

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco      Euskal Herriko  
                              Unibertsitatea


## Unibertsitateko gazteen gorputz-osaerak, egoera fisikoak eta bizi-ohiturek hezur- zurruntasunarekin duten lotura



**DOKTOREGO-TESIA**  
Gotzone Hervás Barbara  
2019



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco      Euskal Herriko  
                                       Unibertsitatea

## Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea

*Fisiología saila*

**Unibertsitateko gazteen gorputz-osaerak, egoera  
fisikoak eta bizi-ohiturek hezur-zurruntasunarekin  
duten lotura**

**Doktorego-tesia**  
Gotzone Hervás Barbara

**Zuzendariak**  
Fatima Ruiz Litago  
Idoia Zarrazquin Arizaga

2019



## Esker onak

Orain, behin tesiak idatzita dudala, bide honetan nirekin batera izan direnei eskerrak eman nahi nizkieki. Lerro gutxi hauetan urte hauetan nolabaiteko laguntza eman didaten guztie merezi ditzuten hitzak laburtzea ez zait erraza egiten. Horregaitik, baten bat ahaztu eskero aldez aurretik barkamena eskatu nahi nioke.

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Fisiologia sailean onartu eta lan hau aurrera atera izana ahalbidetu duten pertsonak eskertu nahi nituzke. Jon Irazusta Astiazaran katedradun eta Fisiologia Saileko zuzendariari, mila esker ikerlan hau aurrera eramateko ardura, jakituria eta batez ere, unibertsitate bidean emandako laguntza eta nigan izandako konfiantzagatik. Baita Javier Gil Goikouria katedradunari, ikerlan honetan egindako ekarpen eta aholkuengatik eta emandako aholko zuhurrengatik. Eta Luis Casis katedradunari bide honetan emandako aukerengatik.

Tesiko zuzendariei, Fatima eta Idoiari, mila esker irakatsitako guztiagatik eta emandako hurbiltasun eta laguntzagatik. Bide honetan, zuzendari, irakasle eta aholkulari bezala, emozionalki eta akademikoki, eman didazuen guztiagatik. Beti ere, jarrera baikor eta alaia mantenduz, nigan izandako ardura eta leialtasunagatik. Fatima, mila esker bide honen hastapenetatik nire ondoan izateagatik. Beti ilusioa izan, eman eta mantentzen laguntzeagatik eta urte guzti hauetan nigan izan duzun konfiantzagatik. Idoia, zure lehenengo tesiak nirea izate benetan berezia egiten zaidala. Zuri ere, eskerrak eman nahi dizkizut aurrera emandako pauso guztiak, txikiak ere, goraipatzen jakin izanagatik eta behar izan dudan momentu askotan erakutsitako gertutasunagatik. Biei, bihotzez eskertzen dizkizuet bide honetan jarraitzeko, eta, adore ez emateko, emandako animo eta bultzadak.

Bestetik, mila esker zuri Izaro, bulegokide zinen eta gaur lagun zaitudanari. Momentu askotan zure laguntza benetan ezinbesteko izan dudalako. Bihotzez, mila esker entzuteko, laguntzeko, eta ezina ekinez egina dela gogorarazteko beti prest eta gertu izateagatik. Baita zuri Miriam, azken txanpa honetan partekaturiko momentu guztiengatik. Hasieratik laguntzeko azaldu duzun interesagatik eta

erakutsitako hurbiltasunagatik. Mila esker biei bidelagun eder eta bikainak izateagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiet ere taldeko beste kideei. Zuri Bego, Fatimarekin batera, Gradu Amaierako Lanaren zuzendari bezala eman zenidan aukeragatik. Momentu hartan nigan izandako konfiantzagatik eta urte guzti hauetan zehar emandako laguntza eta izandako ardura eta zintzotasunagatik. Eskerrik asko ere Amaia, Iratxe, Iraia, Itxaro, Jon Torres eta Ainhoa. Zuek emandako laguntza tekniko/logistikoa, eta batzuetan baita emozionala, ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa izan dudalako. Mila esker ere Ana, emandako aukerengatik, nigan izandako konfiantzagatik, eta hurbiltasunagatik. Baita Susana, Ana Belen, Rakel, Batirtze eta Arantza nolanahi ere, urte guzti hauetan egin dudan bidean, egunerokotasunaren parte izan zaituztedalako. Bestetik, Carmeni ere eskerrak eman nahi dizkiot, nigan erakutsitako ardurarengatik, emandako aukerengatik eta izandako eskuzabaltasunarengatik.

Mila esker ere Iruñako unibertsitate garaian ezagutu nizuen eta gaur egun ere, nire ondoan jarraitzen duzeneai. Bereziki zuri Alex, lagun min, aholkulari, zintzo, leial eta eskuzabal paregabea izateagatik. Bihotzez estimatzen dizkizut beti ere, alaitasunez eta baikor emandako bultzada eta irakaspenak. Iñaki, mila esker zuri ere, izandako eskuzabaltasunagatik, emandako aholku zuhurrengatik eta erakutsitako leialtasunagatik. Eta zuri Maria urtez gertu mantentzeagatik eta behar izan ditudan animo eta aholkuak ematen jakiteagatik.

Baita Leioako unibertsitate garaian nire ondoan izan zaretenei. Diego, zuri eskerrak eman nahi dizkizut beti entzun, lagundu eta ondoan mantentzeagatik. Eta batez ere amaiezin egiten diren egunetan emandako animoenagatik. Jorge eta baita Maria, zuei, behar izan zaituztedan momentuetan, ezer esan gabe, beti positibo, laguntzeko prest agertzen jakiteagatik. Erik, zuri lan honetan, eta, beste askotan, izandako pazientzia eta emandako laguntzagatik. Esti zure eskuzabaltasunagatik, eta Lorea zure alaitasunagatik, biak beti laguntzeko eta animoak emateko prest azaltzeagatik.

Ez ditut ahaztu nahi honelako lan bat aurrera ateratzeko beharrezkoak diren momentuak emateko beti prest izan direnak; Leire, Oihane A, Oihane G, Jon, Diego, Alvaro, Jonan, Nerea, Iñigo, Maitane, Jon Ander, Iratxe, Martin, Asier, Ibon, Paula, Judith, Jone, Miren, Lorea, Patricia eta Inma. Zuen astegun eta asteburu planak, batzuk abenturak, ezinbesteko izan ditudalako. Eta baita zuri ere Guillermo, azken momentuan, bide hau luzea egiten hasten denean agertu eta eskua eman, egoerara moldatu eta behar izan ditudan bultzada ematen jakiteagatik.

Testu honetan azkenak, baina izatez beti lehenak eta ezinbestekoak ditudanei eskerrak eman nahi dizkiet. Etxekoei, nirekin batera, egunero, baldintzarik gabe, beti aurrera egiteagatik. Aita eta amari, uneoro behar izan dudan sostengua ematen lehenak izateagatik. Bidean, irmo, kementsu eta ausart, aurrera egiteko behar izan ditudan aholku, laguntza eta bultzadak emateagatik. Sabin, zuri ondoan behar izan zaitudan guztieta, oraindik hurbilago izaten jakiteagatik. Etxeko txikia izanik egoera askotan erakutsitako heldutasunagatik. Bihotz-bihotzez, mila esker!

Nire eskerrik beroenak, bide honetan zehar nirekin batera lan honetan ilusioa eta konfidantza izan duzuen guztioei.



## **LABURDURAK**

ANCOVA: Analysis of Covariance

BUA: Broadband Ultrasound Attenuation

CPM: Counts per minute

DMS: Diferencia Minima

DXA: Dual Energy X ray Absorptiometry

EAR: Estimated Average Requirements

EU6: Europa 6 (Frantzia, Alemania, Inglaterra, Suedia, Italia, Spainia)

GAA: Gantz-azido Asegabeak

GAM: Gantz-azido Monoasegabeak

GAP: Gantz-azido Poliasegabeak

GH: Growth Hormone

GREC: Grupo Español de Cineantropometría

GMI: Gorputz Masa Indizea

IL-6: Interleukin 6

IL-15: Interleukin 15

IOF: International Osteoporosis Foundation

IP: Indize Ponderala

ISAK: International Society for the Advancement of Kineanthropometry

JF: Jarduera Fisikoa

JFNK: Jarduera Fisiko Neurrizko eta Kementsua

MAJ: Mugimenduaren Aurkako Jauzia

MET: Metabolic Equivalent of Task

OCN: Osteocalcin

PGE<sub>2</sub>: Prostaglandin E2

ROM: Range Of Movement

SENC: Sociedad Española de Nutrición Comunitaria Significativa

SOS: Speed of Sound

TNF-  $\alpha$ : Tumor Necrosis Factor  $\alpha$

VO<sub>2MAX</sub>: Oxigeno kontsumo maximoa

VO<sub>2MAX</sub> erl: Oxigeno kontsumo erlatiboa

WHO: World Health Organization





# Aurkibidea

<b>SARRERA .....</b>	<b>1</b>
1.1 HEZURRA .....	3
1.1.1 Adina hezurraren erantzun-moldaketan .....	3
1.1.2 Osteoporosia.....	7
1.2 HEZUR-ZURRUNTASUNAREKIN LOTURA DUTEN FAKTOREAK.....	10
1.2.1 Gorputz-osaera eta egitura .....	10
1.2.2 Elikadura .....	13
1.2.3 Jarduera eta Ariketa fisikoa.....	14
1.2.4 Bestelako bizi-ohituranak .....	17
<b>HELBURUAK .....</b>	<b>22</b>
<b>MATERIAL ETA METODOAK .....</b>	<b>29</b>
3.1 LAGINA .....	32
3.2 MATERIALA.....	34
3.3 METODOAK .....	36
3.3.1 Hezur-zurruntasunaren neurketa .....	36
3.3.2 Gorputz-osaera eta egituraren balorazioa.....	39
3.3.3 Elikaduraren balorazioa .....	45
3.3.4 Jarduera fisikoaren azterketa.....	46
3.3.5 Egoera fisikoa .....	47
3.3.6 Ariketa fisikoaren azterketa .....	52
3.3.7 Beste bizi-ohituren azterketa.....	54
3.4 ESTATISTIKA ANALISIA .....	55
<b>EMAITZAK ETA EZTABAINA .....</b>	<b>57</b>

4.1 HEZUR-ZURRUNTASUNAREN ALDAGAIEN EZAUGARRI DESKRIPTIBOAK .....	ETA AZTERTURIKO	
4.1.1 Hezur-zurruntasuna .....	60	
4.1.2 Ezaugarri antropometrikoak .....	62	
4.1.3 Elikadura .....	68	
4.1.4 Gaur egungo jarduera fisikoa .....	83	
4.1.5 EgoeraFisikoa .....	85	
4.1.6 Bestelako bizi-ohiturak .....	90	
4.2 HEZUR-ZURRUNTASUNAREN ALDAGAIEN ARTEKO LOTURAK .....	ETA AZTERTURIKO	96
4.2.1 Gorputz-osaera eta egitura eta hezur-zurruntasuna .....	96	
4.2.2 Elikadura eta hezur-zurruntasuna .....	102	
4.2.3 Jarduera fisikoa eta hezur-zurruntasuna .....	109	
4.2.4 Egoera-fisikoa eta hezur-zurruntasuna .....	112	
4.2.5 Bizi-ohiturak eta hezur-zurruntasuna .....	115	
4.3 HEZUR-ZURRUNTASUNA AURREIKUSTEKO EREDUAK .....	118	
4.3.1 Gorputz-osaera, jarduera fisikoa eta egoera fisikoa hezur- zurruntasunean .....	118	
4.4 ESKOLA GARAI DESBERDINETAKO ARIKETA FISIKOAK, GAUR EGUNGO HEZUR-ZURRUNTASUNAREKIN DUEN LOTURA .....	123	
4.4.1 Inpaktudun ariketa fisikoa hezur-zurruntasunean .....	130	
4.4.2 Ariketa fisikoaren jarraipena hezur-zurruntasunean .....	135	
4.5 EMAITZEN ANALISI OROKORRA .....	138	
4.5.1 Mugak eta etorkizunerako proposamenak .....	141	
<b>ONDORIOAK .....</b>	<b>147</b>	
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>153</b>	
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>199</b>	





**SARRERA**



## 1. **SARRERA**


### 1.1. HEZURRA

Hezurra eskeletokoaren osagai nagusia den ehun-konektibo zurruna da. Organismoaren euskarria izateaz gain, barneko organoak babestu, mugimenduan parte-hartu eta zelulen kaltzio metabolismoa erregulatu egiten ditu. Hezurra, osteoklasto eta osteoblastoen eraginez, etengabeko birmoldaketan aurkitzen den ehun dinamikoa da. Osteoblastoak hezur-matrizea eta hezurren osagai mineralaren eraketaz eta osteoklastoak matrizaren alde organikoa bixurgatu eta sortutako ehunaren zati bat suntsitzeaz arduratzen dira (Paniagua, 2007).

Bizitzan zehar, hezur-ehuna, eraketa eta birmoldaketa prozesuen eraginez, hazi eta estrukturaz aldatu egiten da. Hezur-garapen edo eraketan, prozesu fisiologiko edota tentsio mekanikoen eraginez, hezurrak, forman eta tamainan aldatu egiten dira. Birmoldatze prozesuan berriz, metabolismoari, elikadurari eta hormonen estimuluei erantzunez, hezurren indar eta kaltzio homeostasia mantenduz, hezur-ehunaren berriztatzea ematen da, urtero % 5-10eko proportzioan (Weaver eta lank., 2016).

#### 1.1.1 **Adina hezurraren erantzun-moldaketan**

Nahiz eta haurtzaro eta nerabezaroan, hezur-garapen eta eraketa prozesua nagusi izan, honako hau, hezur-birmoldatze eta berriztatzearekin batera ematen da (Rauch, 2005). Garai hauetan, hezurrak luzeeran eta zabalera-tamainan hazten dira (1.1. Irudia). Hezur-epifisi eta metafisietan lehenengo kartilago-ehuna garatu, eta, mineralizazio prozesu baten ondoren, hezur-ehun berria eratzen da. Bestalde, indar biomekanikoek, osteoblasto eta osteoklastoak aktibatuz, hezurrak, tamainan eta forman aldatzeko gaitasuna dute (Katsimbri, 2017).



### 1.1. Irudia. Hezur-ehunaren garapenean zehar emandako aldaketa estrukturalak. (Weaver eta lank., 2016 moldatuta).


Helduaroan berriz, hezur-birmoldaketa da nagusiki ematen den prozesua. Zaharkituriko hezurra, berriago batengatik ordezkatzen, hezur-matrize (osteoid) berriaren mineralizazio ematen da. Hezurren berritzatze prozesu hau, modu aleatorio baten ematen da (Katsimbri, 2017). Gaztaroan eta helduaro goiztiarrean, hezur-eraketa eta birxurgapena orekan mantentzen dira. Erdi helduaroan, beriz, hezur-birmoldaketa prozesuaren azkartzearen ondorioz, osteoblastoen funtzionaltasuna murriztuz eta osteoklastoen aktibazioa gailenduz, hezuraren eduki minerala murritzten hasten da (Paniagua, 2007).

Hezur-galeraren abiadura, emakumeengan gizonengan baino handiagoa da. Alegia, menopausia ondoren, emakumeek duten estrogenoen maila jaitsi egiten da. Estrogenoek hezur-ehunen eraketa eta birxurgapenaren, hezur-masa mantentzearen eta osteoblasto eta osteoklastoen aktibitate funtzionalaren modulatzairen gisa jokatzen dute (Riggs, Khosla eta Melton, 2002). Hala ere, urteak pasatu ahala, desosifikazio-prozesuaren abiadura areagotzen doa eta zahartzarora heltzean hezurdentsitatea murriztu egiten da oro har. Bai gizonek, baita emakumeek ere, hezur kortikalaren eta trabekularren masaren % 20-25 galtzen dute (Paniagua, 2007).

#### ▪ Hezur-dentsitate maila maximoa

Hezur-dentsitate minerala eskeletoko hezurrek zentimetro karratuko duten mineral-edukierari deritzo eta hezur-haustura eta osteoporosiaren adierazle modura erabiltzen da. Hezur-dentsitate maila maximoa, oro har, hezur-indarraren maila maximoarekin erlazionatu egiten da (Gabel eta lank., 2017). Pertsona batek lortutako hezur-dentsitate maila maximoa, erabakigarria da helduaroan eta zahartzaroan izango den hezur-osasunean (Weaver eta lank., 2016). Horregaitik, haurtzaro eta nerabezaro garaiak, hezur-dentsitate maila maximoa handitzeko itu terapeutiko bezala, aintzakotzat hartzen dira.

Hezurraren birmoldatze prozesua umeki-garaian hasi arren, berriztatze-prozesuaren abiadurarik handiena neskek 12,5 urte eta mutilek 14 urte dituztenean izaten da (Maggioli eta Stagi, 2017). Adin honetatik aurrera, emakume eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak nabarmendu egiten dira. Era honetara, emakumezko eta gizonezkoetan, berriztatze-prozesuaren abiadura maximoa, lorturiko dentsitate mineralaren eta desosifikazio prozesuaren abiadura, modu desberdinean ematen dira (1.2. Irudia). Abiadura maximoa 2 urtez mantetzen da, eta nerabeek, denbora horretan, etorkizunean izango duten hezur-dentsitate mineralaren % 25 lortzen dute (Whiting eta lank., 2004). Hala ere, hezurr garapena hain azkar ematen den garai honetan, hezur-hausturaren indizeak gora egiten du. Izan ere, hezurrak luzera eta tamaina maximoa lortzearen mesedetan, hezur-mineralizazioa moteldu egiten da (Khosla, 2003).



**1.2. Irudia.** Hezur-masaren garapena.  
(Weaver eta lank., 2016 moldatua).

Eskeletoaren garapenak pertsonen bigarren hamarkadaren bukaera arte irauten du; epifisiak itxi eta hezurraren luzerakoa garapena amaitu arte, hain zuzen. Badira ikerketak nerabezaro amaieran helduaroko eskeletoaren % 95 baino gehiago garatua dagoela iradokitzen dutenak (Harel eta lank., 2007). Bizitzaren bigarren hamarkadan, hezur-ehunaren garapena guztiz burutu egiten da. Baino hala ere, gizonezkoen gorputz-adarretako hezurrak bizitzaren hirugarren hamarkadan zehar ere finkatu daitezke(Rizzoli eta lank., 2010).


Hezurren garapen eta indarra, faktore desberdinaren araberakoa da. Hau da; hezur-masa, konposizioa, materialen ezaugarriak eta mikroestructura, bai faktore aldaezinak diren genetika, adina edo arrazaren, baita, faktore aldakorrak diren gorputz-osaera, jarduera- eta ariketa fisikoa, elikadura, egoera fisikoa eta bestelako bizi-ohituren araberakoa da. Gaztaroan, nerabezaro amaieran, lortutako hezurdentsitate mineralaren maila maxima guztiz erabakigarria da bizitzan zehar edukiko den hezur-osasunean. Izan ere, pertsona batek lortutako hezurdentsitate maila maxima, helduaro eta zahartzaroan jasango duen desosifikazio-prozesuaren abiapuntua izango baita. Horregaitik, hezur maila maximo lortzean dauden gazteetan, hezur-birmoldaketa, mantentze eta zurruntasunean zein faktorek eta

zelan eragiten duten aztertzea, oso garrantzitsua da hezur-galerarekin erlazionaturiko gaitzei aurre egin ahal izateko.

### **1.1.2. Osteoporosia**

Munduko Osasun Erakundeak osteoporosia hezur-masa baxua eta hezur-ehunen mikro-arkitekturaren narriadura areagotzen dituen gaixotasun sistemiko gisa definitzen du (Weaver eta lank., 2016). Osteoporosian, hezur-ehunaren desoreka orokortu baten ondorioz, hezur-masa murriztu eta hezur-arkitektura narriatu egiten dira. Modu horretara, hezurraren hauskortasuna handituz.

Osteoporosia azken urteetan osasun publikoan garrantzi nabarmena duen gaixotasuna da. Azken ikerketetan azaltzen diren datuen arabera, Frantzia, Alemania, Ingalaterra, Suedia, Italia eta Spainian (EU6), 50 urte edo gehiago dituztenen artean, 15,8 milioi emakumek eta 4,2 milio gizonek, osteoporosia pairatzen dute (1.3. Irudia) (IOF, 2017). Hau dau; Spainiar estatuan, 50 urte edo gehiago dituzten emakumeen %22,5ak eta gizonen % 6,8ak osteoporosia pairatzen dutela kalkulatu da.




**1.3. Irudia** Osteoporosiaren intzidentzia Europan (EU6).  
(IOF, 2017 moldatua).

Batez ere, menopausiaren eraginen ondorioz, osteoporosia batik bat emakumeek pairatzen duten gaixotasuna da; hiru hezur-hausturetatik bi emakumeek jasaten

dituzte. Baino gaur egungo azken ikerketetan, gizonek jasandako hezur-hhaustura ez-traumatikoen kopurua herrialde askotan gora egin duela antzeman da (Kanis eta lank., 2012). Gainera, aldaka-hhaustura bat jasan ondorengo urteetan gizonen heriotza-tasa emakumeena baino altuagoa dela ikusi da ere (Brozek eta lank., 2014; Omsland eta lank., 2014). Hortaz, osteoporosia ez da gaur arte modu okerrean izendaturiko emakumeen-gaixotasuna; gizonek ere arrisku handiko populazioa osatzen dute.

Aurreko 2017.urtean, EU6an 2,7 milioi hezur-hhaustura eman ziren eta horietatik, % 51a osteoporosiaren eraginez gertatu zirela estimatu da. Aldi berean, Espanian Estatua osteoporosiaren ondorioz 330 000 hezur-hhaustura eman ziren baina 2030.urterako, hezur-hasturak % 28,8a igoko direla iragarri da (IOF, 2017).

Guzti honek, tratamenduen kostuen igoera suposatuko du; osteoporosi eta hezur-galeraren aurkako tratamenduen kostu osoa, 2017.urtean, EU6an, 37,5 bilioi euro eta Espanian 4,2 bilioi euro izan ziren bitartean, 2030.urtean, Europan 47,4 bilioi euro izango direla (1. 4. Irudia) eta Espanian kostua % 30,6 igoko dela estimatzen da (Hernlund eta lank., 2013; IOF, 2017).




**1.4. Irudia** Osteoporosiaren kostu Europan (EU6).  
(IOF, 2017 moldatua).

Nahiz eta hezurraren garapena genetikoki mugatuta egon, bizi-ohiturek eta aldakorrak diren bestelako faktoreek hezur-dentsitate mineral maximoaren % 20-

40an eragiten dute. Hala ere, genetikaz eta gaztetan lortutako hezur-maila maximoaz gain, badira hezur-osasunean lotura duten beste faktoreak aldagaiak bestek bestea, jarduera- eta ariketa fisikoa, elikadura eta bestelako bizi ohiturak. Hauek, hantura eragiten duten zitzainen sintesia, estres oxidatiboa eta aldaketa hormonaletan eraginez hezurraren nolakotasuna; ezaugarri material (masa, dentsitatea, mineral konposizioa eta indarra) eta dimentsionalak (tamaina, itxura eta estruktura) moldatzen dituzte (1.5. Irudia).

Bizi-ohitura desegokiak, ariketa fisiko eza, eta osasuntsuak ez diren elikadura-ohiturak dituztenek, hausturak izateko arrisku handiagoa izaten dute. Adinarekin batera, haustura horiek, era esponentzialean areagotzen dira; helduetan eta zaharretan erikortasun eta hilkortasun handia eraginez (Melton eta lank., 2014).



### 1.5. Irudia Osteoporosiaren aldagaiak.

(Tagliaferri eta lank., 2015 moldatua).

Gaur egun arte, pertsona helduetan egindako esku-hartzeak ez dira eraginkorrak izan. Behin osteopenia edo osteoporosia agertu egiten denean, tratamendu farmakologikoek ez dituzte hezur-hasturak ezta hezur-galera ekiditen (Body eta lank., 2011). Gainera, aldaketa demografikoen ondorioz, biztanleriaren zahartzea gero eta nabarmenagoa da eta 2050.urtean, heldu eta zaharretan, osteoporosiaren ondoriozko aldaka-hasturak adibidez, laukoiztu egingo direla iragarri da (Herlund eta lank., 2013).

Haurreko guztsia kontuan hartuta, ezinbestekoa da, aldagarriak diren zenbait faktorek hezurrarekin zer-nolako lotura duten aztertu eta ezagutzea. Modu horretara, faktore hauen hobekuntzan oinarrituriko prebentzio-programak sustatuz, etorkizunean, osteoporosiaren agerrera eta hezur-hausturen intzidentzia murriztu ahal izateko.

## **1.2. HEZUR-ZURRUNTASUNAREKIN LOTURA DUTEN FAKTOREAK**

Hainbat dira hezur-dentsitatearekin lotura duten faktoreak. Horien artean, faktore genetikoak dira eskeletoaren zurruntasun eta indarrean eragin handiena dutenak. Hauek, adinarekin, sexuarekin eta arrazarekin batera, hezurraren garapena modu aldaezinean mugatzen dute. Hala ere, badira aldakorrik diren beste hainbat faktore hezur-osasunarekin lotura dutenak eta helduaroan hezur-masaren galera sahiesten eta geldotzen laguntzen dutenak.


### **1.2.1. Gorputz-osaera eta egitura**

Gorputz-osaerak, giza gorputzaren konpartimendu-izaera ehun desberdinengatik; hezur-, gantz- eta gihar-ehunen ikuspegitik, aztertzen du. Hezurra eta giharra umetokitik pertsona adinduna izan artean elkarri eragiten dioten ehunak dira (Ferrucci eta lank., 2014). Giharraren eta hezurraren arteko seinale mekaniko eta molekularrak ezinbestekoak dira eskeletoaren garapenaren erregulazioan. Enbriogenesian, esaterako, giharren potentziak hezurren periostioaren garapena gidatzen du, eta, era horretan, hezurren itxura eta zirkunferentzia. Prozesu honen eraginez, hezurrek jasan dezaketen karga-maila handitu egiten da (Sharir eta lank., 2011).

Hezurrak duen eginkizun mekaniko garrantzitsuenetarikoa giharrak finkatzeko gunea eta hauei palanka egiteko modua ematea da. Erlazio hau azaltzen duten zelulen eta ehunen arteko interakzio biokimikoak ez dira oso ondo ezagutzen, baina, hala ere, badira hezurraren eta giharraren arteko lotura frogatzen duten gertaera fisiologiko eta seinale molekularrak (Paniagua, 2007). Adibidez,

nerabezaroan lortutako hezur-indarra, gihar-indarra handitu ondoren agertzen da (Rauch eta lank., 2004), eta estres-egoera bat jasan ondoren, giharrak eta hezurrak jariatutako faktoreen artean suertaturiko seinaleztapen gurutzatuak hezur-garapena sustatzen du (Cianferotti eta Brandi, 2014).

Hezur- eta gihar- ehunak bi norabidetan eta maila desberdinatan (zelularra eta molekularra) lotzen dira elkarren arteko seinaleztapen gurutzatuaren bidez (Riley eta Esser, 2017). Gainera, inguru-faktore desberdinek, hala nola elikadurak eta ariketa fisikoak, aldi berean eragin dezakete, bai hezurrean, baita giharrean ere. Estimulu biologikoen bidez, giharrak, hezurrean eragina duten hainbat molekula ezberdin jariatzen ditu (1.6. Irudia), hala nola hazkuntza faktoreak; IGF-1 (*insulinlike growth factor-1*) eta FGF-2 (*basic fibroblast growth factor*) edota miokinak; IL-6 (*interleukin-6*), IL-15 (*interleukin-15*) eta miostatina (Tagliaferri eta lank., 2015). Aldiz, hezurrak giharraren metabolismoan duen eragin potentzialaren inguruko ebidentziak urriagoak dira. Hala ere, hezur eraketan parte-hartzen duten osteozito eta osteoblastoek giharrean eragina duten molekulak jariatzen dituztela ikusi da. Horien artean, PGE<sub>2</sub> (*prostaglandin E2*) eta OCN (*osteocalcin*) dira aipagarriak. Osteozitoek miogenesi-prozesua bizkortzen duen PGE<sub>2</sub> faktorea jariatzen dute (Mo eta lank., 2012), eta osteoblastoek, giharraren masa eta birsorkuntza prozesuan eragina duen OCN faktorea (Wei eta Karsenty, 2015).




**1.6 irudia.** Gihar- eta hezur-ehunen arteko interakzioak.  
(Tagliaferri eta lank., 2015 moldatua).

Bi ehunen arteko interakzio parakrinoek gihar eta hezurraren arteko seinaleztapen gurutzatuan garrantzi handiko eragina dute. Baino gaur egun, giharra da fenomeno honen giltzarritzat ezagutzen den ehuna (Tagliaferri eta lank., 2015).

Beste alde batetik, gantz-ehuna ere hezurrarekin erlazionatu egiten da. Gantz-ehunak funtzió endokrinoa du; bai estrogenoen biosintesian funtsezkoak diren aromatasen baita adiponektina, leptina eta IL-6 adipokinen sintesiaren bitartez, hezurraren eta giharraren arteko seinaleztapena modulatu dezake (Tafliaferri eta lank., 2015). Adiponektina eta IL-6 hezur-osasunaren babesle bezala erlazionatu egin diren bitartean, leptina negatiboki erlazionatu egiten da. (Naot eta Cornish, 2014; Weigert eta lank., 2005).

Obesitatean emandako gantz-metaketa, adipozitoen desregulazioarekin eta gantz-ehun zuriaren handitzearekin erlazionatu egiten da. Gehiegizko gantz-metaketak, gantz-ehunaren metabolismoa desregulatuz, hezur-ehunean efektu negatiboak eragiten ditu (1.7. Irudia). Gehiegizko gantz-ehuna duten pertsonen zelula mesenkimalen diferentiazioak, adipozitoen alde egiten du. Modu horretara, adipozito eta osteoblastoak zelula mesenkimal berdinistik eratorriak direla kontuan izanik (Migliaccio eta lank., 2011), osteoblastoen sintesian desregulazioa ematen da.



**1.7. Irudia.** Hezurrean gehiegizko gantz-ehunak dituen eraginak.

Horretaz gain, gehiegizko gantz-metaketa ematen denean, insulinarekiko erresistentzia handitu egiten da eta hiperglizemia egoerak ematen dira (Karpe, Dickmann eta Frayn, 2011). Hauen eraginez, estres oxidatiboa handitu eta hantura eragiten duten zitzainen sintesia areagotu egiten da (Cao, 2011). Zitzina hauek osteoklastoen aktibazioa areagotu eta osteoblastoek dituzten funtzioen narriadura eragiten dute (Sanches, Vianna eta Barreto, 2017).

### **1.2.2. Elikadura**

Hezur-eragileak aztertzerako orduan, elikadura, garrantzi handiko faktore aldagari bezala azaltzen da hainbat ikerketan. Makro- eta mikromantenugaietan desorekatuak diren dietak jarraitzen dituztenek, hezur-osasun baxua eta hezur-hasturak izateko arrisku handia izaten dute (Weaver eta lank., 2016; Gat-Yablonski eta De Luca, 2017; Meesters eta lank., 2018).

Besteak beste, hezurren garapen eta birmoldaketan, ezinbesteko osagaia da kaltzioa. Gorputzean dagoen kaltzioaren % 90 hezurrean metaturik azaltzen da. Haurtzaroan, kaltzio-indizaren % 100 berriztatzen da hezurraren birmoldaketa bitarteko dela, eta helduaroan, aldiz, % 14-18. Hortaz, kaltzio-ahorakin egokia ezinbestekoa da hezur-osasun egokia lortu eta mantentzeko (Weaver eta lank., 2016;).

Beste alde batetik, hezurrean, mineral nagusia kaltzioa den bitartean, matriz organikoan aurkitzen diren proteinak, hezur-bolumenaren %50a eta hezur-masaren herena osatzen dute. Hau honela, proteinen ahoratzeak, hezurrean, efektu onuragarriak eragiten ditu (Shams-White eta lank., 2017). Nahiz eta proteinek hezurrean erakutsitako efektu positiboak, kaltzio ahorakinarengatik baldintzaturik izan daitezkeen (Mangano, Sahni eta Kerstetter, 2014), ahoraturiko proteinak, hezur-osasunean garrantzi handia duten makromantenugaia direla aztertu da (Shani eta lank., 2015; Kim eta lank., 2016).

Bitaminek ere, hezur-osasunean paper garrantzitsua dutela ikusi da (Weaver eta lank., 2016). D bitamina modu positiboan eragiten du hezur-ehunean. Populazio gehienetan, ez da behar adina D bitamina ahoratzen (Holick, 2017). Hala ere, ahoraturiko D bitamina ez da gorputzean aurkitzen den D bitamina aktiboaren aurrekari bakarra. Izan ere, azalean, kolesteroletitik eratorritako D pre-bitaminak, izpi ultramoreen erradiazioa jasotzean, D bitamina aktibo bilakatzeko, ahoraturiko D bitaminaren metabolismo sintesi berdina jarraitzen du (Nair eta Maseeh, 2012). Dena den, D bitamina aktiboaren gabeziak, hainbat osasun arazo sor; besteari beste, hezur-galera eta hezur-hauskortasuna. Hori dela eta, gazteen D bitamina kontsumoa, aintzat hartu beharreko faktorea da (Saggese eta lank., 2015).

Hezurrean elikaduraren eragina bizitza osoan zehar ematen da. Hala ere, unibertsitate gazteak, nerabezartik gaztaro garaira igarotzeko trantsizio egoera batean aurkitzen dira eta izaten dituzten elikadura-ohiturak aldatzeko joera dute (Whinpenny, 2017; Stok eta lank., 2018). Hau honela, gazteek, elikadura-ohiturak aldatzearen ondorioz, elikadura desegokia jarraitu ezkerro, duten egoera nutrizionalak osasunean modu orokorrean eta baita hezur-ehunean eragin dezake.

### **1.2.3. Jarduera eta Ariketa fisikoa**

Gihar-uzkurketaren eraginez, planifikatu edo planifikatu gabeko edozein mugimenduri, jarduera fisikoa deritzo. Aldiz, modu planifikatuan eta helburu jakin

batzuekin egindako jarduera fisikoa, ariketa fisikoa da (Warburton, Nicol eta Bredin, 2006).

Hezurra ehun dinamikoa da eta jasan behar dituen karga mekaniko desberdinei aurre egin ahal izateko, behar dituen moldaketak egiteko gaitasuna du. Ariketa fisikoaren eraginez ematen diren erantzun-moldaketa molekular eta metabolikoek gaitasun aerobikoan eta anaerobikoan eragiten dute egoera fisikoa moldatuz (Huh, 2018). Ariketa fisikoan jardutean, giharra garatzeaz gain, gantz-ehuna murrizten da. Ezagunak dira gantz-maila altua izateak osasunean eragiten dituen kalteak. Baino horrek ez du gantz-ehuna beharrezkoa ez denik adierazten. Kontuan hartu beharrekoa da jarduera fisiko bizia egiteak gorputzeko gantz-ehunaren galera dakarrela eta horrek, emakumeetan batez ere, irregularitasunak eragin ditzakeela. Izan ere, emakumeek, normalean, ez dituzte jarduera fisiko intentsuak modu egoki eta osasuntsuan egiteko nahitaezkoak diren beharrizan energetiko eta nutrizionalak bermatzen. Horretan eta gorputz-gantzaren gehiegizko galeran oinarritzen da emakume kirolariaren triadan deskribatzen den hezur-dentsitate galera (Mallinson eta De Souza, 2014). Emakume horiek kolesteroletitik eratorria den estrogeno hormonaren maila oso baxua dute gantz-ehunaren galeraren ondorioz. Estrogenoek kaltzioaren xurgapenean eta hezur-eraketan etabirmoldaketan eragiten dute. Hori dela eta, hormona hori maila baxuan izateak hezur-dentsitatea murriztu eta hezur-hauskortasuna handitzen du (Laframboisie, Borody eta Stern, 2013). Erorketaren eta osteoporosi hausturen artean dagoen erlazio sendoa jakinda, hezur-hausturak ekiditeko edozein interbentzio-programak oreka, egonkortasuna eta giharfuntzionaltasuna landu beharko ditu. Nahiz eta hezurraren egokitze positiboa sustatzeko bizitza osoan zehar egin beharreko ariketa fisikoaren «dosia» orain arte zehaztua ez izan, ariketa fisikoak hezurrean duen eragina jarduera fisiko motaren, kantitatearen eta intentsitatearen menpe egongo da (Beck eta lank., 2016).

Guztiz ezaguna da jarduera fisikoak bizitza osoan zehar hezur-indarraren hobekuntzan eta hezur-mineralaren metaketan eta mantentzean duen eragina. Izan ere, osifikazio-prozesuaren garrantzizko mugatzailea da. Mugimendu faltaren

ondorioz, hezurrak atrofiatu egiten dira, eta asko erabiltzearen ondorioz, ostera, hipertrofiatu (Baxter-Jones eta lank., 2008). Nerabezaroa igaro arte egindako ariketa fisikoak hezurraren geometrian, mikro-arkitekturan eta indarrean eragindako onurak helduaroan eta zahartzaroan izaten den desmineralizazio-prozesuaren kalteak orekatzen ditu. Izan ere, nerabezaroan lortutako hezurdentsitate mineralaren maila maximoa % 10 hobetuz, bizitzan zehar hausturak izateko arriskua % 50 murriztu daiteke eta, horrekin batera, osteoporosiaren garapena 13 urtetan atzeratu (Hernandez, Beaupre eta Carter, 2003).

Luzaro aztertu dira haurtzaroan eta gaztaroan jarduera eta ariketa fisikoa egitearen ondorioak zeintzuk diren. Hiru urtez ariketa fisikoa egiten aritu ondoren, eta sedentarioak izan diren beste haur eta nerabeekin alderatuz, mutilek hezur-masa % 5 handitzen dute eta neskek % 14 (Gunter, Almstedt eta Janz, 2012). Haurtzaroan egindako jarduera fisikozko esku-hartzeetan, emaitzarik onenak nerabezaroa hasi baino lehen ekindako esku-hartzeetan ikusi dira: urtero hezur-dentsitatea % 0,6-1,7 hobetzen da (Specker, Thiex eta Sudhagni, 2015). Beraz, oso garrantzitsua da emandako gomendioetan adinak hezurraren moldaketan duen eragina kontuan izatea, hezurraren erantzuna ez baita beti berdina. Ezaguna da karga mekanikoetarako egokitzapena gaztetatik lantzeak, bizitza osoan zehar izango den hezur-indarrean efektu onuragarriak dakartzala, eta, hezur-ehunak, ariketa fisikoaren eraginei gaztaroan hobeto erantzuten diela (Tenforde eta Fredericson, 2011).

Guzti honekin, nahiz eta hezur-galera eta osteoporosia zahartzaroarekin erlazionaturik egon, horiei aurrea hartzen bideratutako osasun-prebentziorako programak ez dira zahartzarora bakarrik mugatu behar. Beraz, jarduera eta ariketa fisikoak hezur-garapen egokia izateko garrantzizko faktore direla kontuan izanik, efektu positiboak, alde batetik, zein ariketa fisiko mota eta zer nolako maiztasunarekin, eta, bestetik, jarduera fisikoazein intentsitate mailan eginez gauzatzen diren zehatzuz, prebentzio estrategiak lantzen hasi ahalko liratekez.

### ❖ Egoera fisikoa

Egoera fisikoarekin erlazionaturiko gaitasun aerobikoa, gihar-indarra eta baita elastikortasuna, gazteen osasun egoera islatzen duten parametro bezala neurtu dira hainbat ikerketan (Ortega eta lank., 2005). Gazteen bihotz-sistema eta sistema-muskuloeskeletikoaren osasuna ezagutzeko aztertzeko egoera fisikoaren balorazioa egiten da. (Vicente-Rodriguez eta lank., 2007). Egoera fisikoaren adierazle diren abiadura eta indarra, hezur-dentsitate mailarekin erlazionaturiko aldagaiak dira (Vicente-Rodriguez eta lank., 2003; Vicente-Rodriguez eta lank., 2004). Hauen eta hezur-osasunaren arteko erlazioa nerabezartotik ematen da (Vicente-Rodriguez eta lank., 2004). Eta honako hau, garapen maila edota gihar-masarekiko independientea dela ikusi da (Vicente-Rodriguez eta lank., 2007).

Bestalde, gaitasun aerobikoa, ariketa fisikoa eta gorputz-masarekin erlazionaturik dago eta hauek hezurreko tentsioekin lotura duten faktoreak dira. Badira gaitasun aerobikoaren erakusle den  $\text{VO}_{\text{2max}}$  hezur-dentsitate maila maximoarekin erlazionatzen duten ikerketak (Martyn-St James eta Carroll, 2010; Hagen eta lank., 2012). Baita haurtzaroan izandako gaitasun aerobikoa eta 20 urte beranduagoko hezur-dentsitate mailaren artean lotura dagoela aipatzen dutenak (Tucker eta lank., 2014).

#### **1.2.4. Bestelako bizi-ohiturak**

Badira hezur-ehunarekin lotura duten beste faktore edo eragile aldagariak ere. Alkohol, tabako eta tratamendu farmakologikoen kontsumoa hezur-ehunean moldaketak eragin ditzakete. Hau horrela, faktore hauek, garapen prozesuan aurkitzen diren gazteetan hezur-ehunarekin izan ditzaketen loturak kontuan izan beharrekoak dira.

### ❖ Alkohola

Alkohola mundu guztian, bai egoera sozial, baita kulturaletan, era zabalean kontsumitu egiten da. Alde batetik, neurrigabekoalkohol kontsumoa eta bestetik,

neurrizko alkohol kontsumo patroiak ezagutzen dira baina gaur egun bada *binge drinking* bezala identifikatu den gehiegizko alkohol kontsumo patroia. Honako hau, gehiegizko alkohol kontsumo patroi bezala definitzen da; azkeneko 30 egunetan, aldi batez (arratsalde/gau batean) gizonek  $\geq 5$  eta emakumeek  $\geq 4$  alkoholdun edari estandar ahoratze kontsumo-patroia da (Valencia-Martin, Galan eta Rodriguez-Artaleko, 2009).

Honako hau, batez ere, gazteetan eman daitekeen kontsumo patroia da. Baino gaur egun arte, kontsumo patroi honek hezur-osasunean duen eragina ez da aztertua izan. Hala ere, jakina da, gehiegizko alkohol kontsumoa hezur-birmoldaketan desorekak, eta, horren ondorioz, hezur-galera eragiten duela (Maurel eta lank., 2012)

### ❖ Tabakoa

Gaur egun, tabako kontsumoa osasunean dituen eragin kaltegarriak ezagunak izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoan 15-34 urte dituzten gazteen % 19,9ak egunero kontsumitzen du tabakoa. Gainera, azken datuen arabera, noizbait tabakoa kontsumitu dutenen % 90,4ak, kontsumoaren hastapena, lehen aldia, 20 urte edo gutxiagorekin izan du; media 16,9 urtetan kokatuz (Euskadi y Drogas, 2017).

Tabakoak gazteen hezur-osasunean zelan eragiten duen aztertu duten ikerketak, metodologikoki mugatuak egon dira. Bai tabako kearen exposizioa kuantifikatzerako orduan, baita bestelako faktoreek hezurrean duten eragina tabakoaren kontsumotik bereizterakoan ere. Gainera kontsumo mota desberdinene eraginez, ohiko-kontsumoa jarraitzen dutenen prebalentzia murriztu egiten da eta honek, estadistika analisiak egiterako orduan eragiten du. Hala ere, eta nahiz eta muga metodologikoak izan, tabako kontsumoa, gazteetan, hezur-dentsitate maila maximoa murriztu egiten du eta hezur-osasunean efektu negatiboak dituela ondorioztatu da (Kopiczko, Gryko eta Lopuszańska-Dawid, 2018).

Batez ere, luzarora, aurretikako tabako kontsumoak hezurrean eragin negatiboak azaltzen ditu (Ward eta Klesges, 2001). Nahiz eta gaztaroan, tabakoak hezur-masan dituen eraginak txikiak eta batzuetaan balioetsi ezinekoak izan, denboran zehar hezurrean efektu kaltegarriak eragiten ditu. Izan ere, tabakoa kontsumitzera ohitzen diren gazteak, tabako kontsumitzaileak izango diren helduak izango dira; bai osteoporosi baita hezur-hasturak izateko hautagai bilakatuz (Heishman, Kleykamp eta Singleton, 2010).

#### ❖ Tratamendu farmakologikoak

Badira zenbait tratamendu farmakologiko, kaltzio-homeostasian, D bitaminaren eta hormona paratiroidaaren metabolismoaren bitartez, hezur-ehunean eragina dutenak (Moro-Álvarez, 2001). Hala ere, eta nahiz eta gazteak, tratamendu farmakologiko gutxi hartzen dituzten populazioa izan, garrantzitsua da tratamendu farmakologiko desberdinek, hauen hezur-osasunean zelan eragiten duten aztertzea.

Gehiegizko glukokortikoide kontzentrazioak, osteoklastogenesi prozesua sustatu eta osteoblastoen eraketa murriztu egiten du. Gainera, glukokortikoide kontzentrazio altuek, IGF-1ak hezurrean duen eragina murriztu, estrogeno eta testosteronaren sintesia txikitu eta kaltzio xurgapena inhibitua egiten dute (Hsu eta Nanes, 2017). Horrela, luzaroko glukokortikoide tratamendua jasotzen duten % 10a hezur-hasturak izaten dituzte (Rizzoli eta Biver, 2015).

Glukokortikoideak kontsumitzen dituzteIn ume eta gazteetan, pisua irabaztea eta hazkunza berantiarra izatearekin batera, % 21erainokoa izatera iritsi daitekeen hezur-galera ematen da (Aljebab, Choonara eta Conroy, 2017). Gazteek glukokortikoide tratamenduak, batez ere, asmaren efektuak pairatzeko, arnasketa bidez hartzen dituzte. Honako tratamenduak jarraitzen dituzten gazteen eta hezur-parametro desberdinen artean nahiz eta erlazio argirik ez ikusi (Roux eta lank., 2003; Zieck eta lank., 2017), jakina da glukokortikoide dosi altuek gazteen hezurdentsitatean efektu negatiboak eragiten dituztela (Skoner, 2016). Hala ere, kontuan

izan beharrekoa da, asma pairatzen dutenen tratamendu osoan, ariketa fisikoa egitea barne dagoela eta honek, hezur-osasunean eragin positiboak dituela.

Bestalde, antikontzeptibo oralek ere emaitza ezberdinak azaltzen dituzte hezurdentsitate mineral maila lortu baino lehenago hartzen dituzten edo helduak diren emakumeen artean (Martins, Curtis eta Glasier, 2006). Spainiar Estatuan, emakumeen % 21,7ak tratamendu hau erabiltzen du metodo antisorgailu bezala (Instituto de la Mujer, 2017). Eta batez ere, munduan, 30 urte baino gutxiagoko emakumeak, nerabe eta gazteak, dira antikontzpetibo oralak hartzen dituztenak (Chandra eta lank., 2005). Gaur egungo ikerketetan, nahiz eta emaitza argirik ez aurkitu, tratamendu hauek jarraitzen dituzten emakume gazteetan hezur-galerak eragiten dituztela azaldu da (Berenson eta lank., 2008; Scholes eta lank., 2010).

Gaur egungo ebidentzien arabera, hezur-dentsitate maximoaren garapenean eta hezurraren zurruntasunarekin zuzenean erlazionaturiko faktore desberdinek nola eragiten duten oraindik ondo zehaztu gabe dago. Honek hezur indartsu eta osasuntsuagoak izateko osasun-programa eraginkor eta zehatzagoak garaiz, hezurdentsitate maila maximoa lortu baino lehen, garatzea ahalbidetuko luke. Ideia honen inguruan, ikerketa proiektu honetan, hezur-dentsitate maila maximoa lortzear dauden gazteen hainbat bizi-ohitura eta aldagaik hezur-osasunarekin duten lotura aztertuko da. Modu honetara, lortutako ebidentziei esker, etorkizunean, prebentziora bideraturiko interbentzio estrategia egokiak diseinatu ahalko lirateke.





**HELBURUAK**



## **2. HELBURUAK**

Nerabezaro amaieran lortutako hezur-dentsitate maila maximoa erabakigarria da helduaroan eta zahartzaroan izango den hezur-osasunean. Bizi-ohiturek eragin zuzena dute hezurraren suspertze- eta mantentze-prozesuan eta haurtzaroan lantzen hasi arren, nerabezaroan bermatu eta finkatu egiten dira.

Gauzak horrela, pertsona hauen gorputz-osaera, elikadurak, jarduera- eta ariketa fisikoak, egoera fisikoa eta bestelako bizi-ohituran ezagutuz hauek hezur-zurruntasunarekin izan ditzaketen loturak aztertuko dira. Faktore hauek guztiak hezur zurruntasunean duten eragina ezagutzeak, osteopenia eta osteoporosiaren aurkako prebentzio-programak garatzeko garrantzizko balioa dauka.

Honela, Doktorego Tesi honen helburuak hauek izan dira:

**1. Unibertsitateko gazte parte-hartzaileen hurrengo parametroek hezur-zurruntasunarekin duten lotura aztertzea.** Horretarako, Bizkaiko campuseko Leioa /Erandio guneko 18-21 urte bitarteko unibertsitate ikasleek hartu dute parte.

**1.1. Unibertsitateko gazte parte-hartzaileek duten gorputz-osaerak hezur-zurruntasunarekin duen lotura islatzea.** Horretarako, ikasleen parametro antropometrikoak, hezur-zurruntasunarekin erlazionatu dira.

**1.2. Unibertsitateko gazte parte-hartzaileen elikadurak hezur-zurruntasunarekin duen lotura aztertzea.** Horretarako, makro- eta mikromantenugaien ahorakin kopurua eta hezur-zurruntasunaren arteko erlazioa analizatu da.

**1.3. Unibertsitateko gaztee parte-hartzaileek gaur egun egindako jarduera fisikoak hezur-zurruntasunarekin duen erlazioa aztertzea.** Horretarako, azelerometriaren bidez neurtutako jarduera fisikoaren

ezaugarriak (iraupena, intentsitatea eta inpaktu-maila) hezur-zurruntasunarekin duten lotura aztertu da.

**1.4. Unibertsitateko gazte parte-hartzaileek aurkezten duten egoera-fisikoak hezur-zurruntasunarekin duen lotura aztertza.** Horretarako, gaitasun aerobiko eta anaerobikoaren adierazle diren oxigeno kontsumo maximoa eta gihar-potentzia eta indarra, hezur-zurruntasunarekin duten erlazioa aztertu da.

**1.5. Unibertsitateko gazte parte-hartzaileen bizi-ohiturekin erlazionaturiko beste aldagai batzuk hezur-zurruntasunarekin duten lotura aztertza.** Horretarako, alkohol eta tabako kontsumoa, tratamendu farmakologikoak eta hezur-hausturak hezur-zurruntasunarekin duten erlazio analizatu da.

**2. Azertutako faktore guztietatik hezur-zurruntasuna aurreikusteko garantzi handiena dutenak identifikatzea.** Horretarako, erregresio lineal anizkoitza egin da aldagai dependientea hezur-zurruntasuna eta independienteak korrelazioetan lotura adierazgarriak izan dituzten aipaturiko parametroak izanik.

**3. Unibertsitateko gazte parte-hartzaileek bizitzan zehar egindako ariketa fisikoak, gaur egun duten hezur-zurruntasunarekin duen lotura aztertza.** Horretarako, egindako ariketa fisikoa, modu erretrospektibo batean aztertu da.

**3.1. Unibertsitateko gazte parte-hartzaileek egindako ariketa fisikoak inpaktuaren ikuspegitik, hezur-zurruntasunarekiko duen lotura aztertza.** Horretarako, eskola garai desberdinatan zehar egindako ariketa fisikoa inpaktudun ikuspegitik sailkatu eta ANCOVA testaren bitartez, hezur-zurruntasunarekin duen erlazio analizatu da.

**3.2. Unibertsitateko gazte parte-hartzaileek, egindako ariketa fisikoaren jarraipena eta hezur-zurruntasunaren arteko lotura aztertzea.**

Horretarako, ANCOVA testaren bitartez, ariketa fisikoa egitearen jarraipenak hezur-zurruntasunarekiko azaltzen duen lotura aztertu da.



# **MATERIAL ETA METODOAK**



### **3. MATERIAL ETA METODOAK**

Ikerketa hau, gorputz-osaera, elikadura, jarduera fisikoa, ariketa fisikoa, egoera fisikoa eta bestelako bizi-ohituren balorazioan oinarrituz, hauek hezur-osasunean duten eragina zehaztean datza. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Bizkaiko kanpuseko 18-21 urte bitarteko ikasleak dira ikerketan parte hartu dutenak.

Burututako froga pilotoan guztira 38 pertsonek hartu dute parte. Frogak pilotoaren helburua alde batetik metodologia ezagutzea, eta, bestetik, ikerketan zehar gerta zitezkeen akatsak ezagutzea eta gaitzestea izan da.

Ikerketaren diseinuari dagokionez, zeharkako ikerketa izan da. Hau da, parametro guztien neurketak 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetan egin dira. Parte-hartzaleei hezur-zurruntasuna neurteaz gain, gorputz-osaera, elikaduraren balorazioa, egoera fisikoak eta hezur-osasunarekin erlazionatu ohi diren bizi-ohitura batzuk, galdeketa espezifiko baten bidez aztertu dira. Modu honetara, bizi-ohituren adierazle diren parametroak, hezur-zurruntasunarekin zer-nolako erlazioa duten aztertuz.

### 3.1. LAGINA

Bizkaiko campuseko Leioa/Erandioko gunearen barnean gradu desberdinako ikasleei gonbidatu zaie, borondatez, ikerketan parte hartzen. Horretarako, kurtso desberdinak delegatuekin kontaktuan jarri eta ikerketaren berri eman eta gero, ikasgela bakoitzari, adosturiko klase tarteetan, ikerketaren inguruko hitzaldi txiki bat eman zaie. Non ikerketa proiektuaren helburuak eta egin beharreko frogentzako deskribapena azaldu ondoren, suertaturiko zalantza guztiak galdezko aukera izan dute. Hala ere, ikasle guztiei informazio-orri bana eman zaie eta bertan ere, ikerketaren berri eman eta parte hartzea eskatu egin zaie (I. Eranskina). Azkenik, bai hitzaldian, baita informazio-orrian ere, ikerketa taldearekin harremanetan jarri ahal izateko telefono zenbakia eta emaila eman zaizkie.

Behin erreklutamendua egin eta gero, Fisioterapia, Medikuntza, Erizaintza, Matematika, Bioteknologia, Biología, Biokimika eta Kazetaritza graduatako ikasleak izan dira ikerketan parte-hartu dutenak. Guztira 156 ikasle izan dira ikerketan parte hartutakoak; 95 emakume (% 60,9) eta 61 gizonezko (% 30,1). Denak 18–21 urte bitartekoak eta batez beste  $18,7 \pm 0,8$  urtetakoak (3.1. Taula).

**3.1. Taula.** Parte-hartzaleen sailkapena sexua kontuan izanda.

	N	Urteak (Bb ± de)
<b>Emakumeak</b>	95	$18,7 \pm 0,8$
<b>Gizonak</b>	61	$18,8 \pm 0,8$
<b>Guztira</b>	<b>156</b>	<b><math>18,7 \pm 0,8</math></b>

n: Parte-hartzale kopurua. Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra.

Ikasketak kontuan izanda, 101 parte-hartzale fisioterapia graduokoak izan dira (% 64,7), 32 erizaintzakoak (% 20,5), 10 medikuntzakoak (% 6,4) eta 13 osasun arlokoak ez diren beste gradu desberdinakoak (% 8,3) (3.2. Taula).

**3.2. Taula.** Ikasleen sailkapena ikasketak kontuan izanda.

	N	Urteak (Bb ± de)
<b>Fisioterapia</b>	101	18,8 ± 0,8
<b>Erizaintza</b>	32	18,5 ± 0,8
<b>Medikuntza</b>	10	18,3 ± 0,7
<b>Beste graduak<sup>a</sup></b>	13	19,0 ± 0,6
<b>Guztira</b>	<b>156</b>	<b>18,7 ± 0,8</b>

n: Parte-hartzaile kopurua. Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra.

<sup>a</sup>: Matematika, Bioteknologia, Biología, Biokimika eta Kazetaritza.

Behin parte-hartzaileekin elkartzeraoan, ikerketaren zehaztasun guztiak azaldu eta sortutako kezkak argitu ondoren, parte hartu nahi dutenek hasi baino lehen baimen informatua (II. Eranskina) sinatu behar izan dute. Baimen informatuaren dokumentuan, pertsonek bere borondatez ikerkuntzan parte hartzeko asmoa bermatzen dutela adierazi dute. Ikerlan hau Euskal Herriko Unibertsitateko Gizakiekin zerikusia duten Ikerketetarako Etika Batzordeak (GIEB) onartua izan da (M10/2015/122).

### **3.2. MATERIALA**

Ikerketan jarraitu den metodologian erabilitako materiala honako hau izan da:

#### **3.2.1. Hezur-zurruntasuna**

- Achilles EXP III ultrasoinuzko dentsitometroa.

#### **3.2.2. Antropometria neurketak**

- Arkatz dermatografikoak.
- Año Sayol, SL-ren balantza.
- Año Sayol, SL-ren tallimetroa.
- Holtain LTD pakimetroa.
- Holtain LTD plikometroa.
- Lufkin neurtzeko zinta.

#### **3.2.3. Elikaduraren balorazioa**

- Dial 1.0 programa.

#### **3.2.4. Froga fisikoak**

- Actigraph w3GT-BT azelerometroak.
- Actilife 6 programa.
- Polar Advantage-ren sistemadun pultsometroak.
- Ergomedic 828E Monark zikloergometroa.

- OPTOJUMP next-Microgate system.
- Optojump Next neurze-sistema optikoa.
- HUMAC NORM-CSMi solutions dinamometro isozinetikoa.
- Humac Extremity Software programa.

### **3.2.5. Estadistika analisia**

- SPSS 21.0.

### 3.3. METODOAK

Ikerketan zehar burututako frogak guztiak erosoak eta egokiak diren laborategietan egin dira. Frogak ingurune baldintzak konstante mantentzeko, bi izan dira frogak aurrera eramateko erabili diren laborategiak; Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Laborategi Isozinetikoa (1F4) eta Laborategi Polibalentea (1F3.1), hain zuzen.

Parametroak neurtzeko prozeduran, beti sekuentzia berdina jarraitu izan da. Lehenik, parte-hartzaileen hezur-zurruntasuna neurtu da. Ondoren, antropometria parametroen neurketak egin dira eta segidan, egoera fisikoaren azterketan parte-hartzaileek, Bosco testa, Astrand testa eta frogak isoziinetikoa burutu dituzte. Behin neurketa hauek egin, hurrengo astean zehar, parte-hartzaileek 5 eguneko egunkari dietetikoa, azelerometria frogak eta bizi-ohituren galdeketa egin dituzte. Honetarako, behar izan dituzten azalpen guztiak eta informazio orriak eman zaizkie. Hala ere, aste horretan zehar zalantzak izan eskero, kontakturako telefono zenbaki bat erraztu zaie.

#### 3.3.1. Hezur-zurruntasunaren neurketa

Azken urteetan hezur-dentsitatea neurtzeko teknika ez-inbaditzaile ugari garatu dira. DXA (*Dual Energy X ray Absorptiometry*) teknikak, gorputz atal desberdinak hezur-dentsitatearen neurketa zehatzak egin arren, ez du hezur estruktura eta ezaugarri kualitatiboen inguruko informaziorik ematen. Ultrasoinuen bidezko dentsitometriek ordea, hezur trabekularreko mikro-arkitektura eta elastikortasunaren inguruko informazioa ematen dute (Baroncelli, 2008). Ultrasoinuzko dentsitometriaren neurtutako parametroak pertsona osasuntsuak eta osteoporosia pairatzeko arriskua dutenen artean desberdindu ditzakete (Hans eta Baim, 2017). Gaur egun, ultrasoinuen bidezko dentsitometria hezur-hauskortasuna estimatzeko segurua, erabiltzeko erraza, erradiazio gabea eta ez-inbaditzailea den balioztaturiko teknika da.

**▪ Ultrasoinuen bidezko dentsitometria**

Dentsitometriarekin (Achilles EXPII), ultrasoinuen bitartez, orpo-hezurreko dentsitatearekin erlazionatutako ezaugarri fisikoak neurtu dira (3.1. Irudia). Frogatzen, aparatura fantoma baten bitartez kalibratu eta gero, parte-hartzailarei aztertua izango duen oinaren orpo-hezurraren azala % 70eko alkohol disoluzio batekin hezetu zaio. Horrela, ultrasoinuen eroankortasuna eta dentsitometroko mintzek oinarekin duten kontaktua hobetuz. Hanka dominantea eskuma duten parte-hartzailerei, eskuin orpo-hezurreko ezaugarriak bakarrik aztertu zaizkie. Ezkertiarrei, berriz, bi oinetan egin zaizkie neurketak.



**3.1. Irudia.** Densitometria.

Metodo kuantitabo honen bitartez, hezur-trabekularren ezaugarriak era zehatz batean neurtu dira. Izan ere, orpo-hezurra, hezur-trabekularrez osatua dago batik bat eta honek hezur-birsorkuntza handia du. Ikerketa desberdinatan balioztatutako metodo honek, BUA (*Broadband Ultrasound Attenuation*) eta SOS (*Speed Of Sound*) parametroak neurtzen ditu:

- ❖ BUA parametroa ultrasoinu uhinek hezur-trabekularak zeharkatzean xurgatzen den energia adierazten du (MHz). Hezurraren dentsitatea eta egiturari buruzko informazioa ematen du.

## Material eta Metodoak

---

- ❖ SOS parametroa ultrasoinu uhinek hezurra zeharkatzean duten abiaduraren adierazle da (m/s). Parametro hau hezurraren dentsitate eta elastikotasunaren araberakoa da.

BUA eta SOS parametroekin batera, ultrasoinuzko dentsitometroak, hezur-zurruntasun indizea neurtzen du; *Stiffness* indizea. Ultrasoinu-uhinek hezurra zeharkatzen duten abiadura eta xurgapenaren ondorioz jasaten duten moteltzean oinarrituz estimatzen den indizea da. Hurrengo formularen bitartez kalkulatzen da:

$$\text{Stiffness indizea} = 0,67 \times \text{BUA} + 0,28 \times \text{SOS} - 420$$

Hau honela, *Stiffness* indizea, BUA eta SOS parametroak barne hartzen dituelarik, hezur-osasuna hobeto islatzen duen parametroa da. Balio hauek biztanleria arruntarekin eginiko erreferentzia-kurbarekin aldaratzu, *Stiffness* indize bakoitzak kurba horrekiko duen desbideratze estandarra kalkulatzen da. Horrela, Munduko Osasun Erakundea hezur-osasuna zer nolakoa den aztertzeko bi parametrotan oinarritzen da (3.3. Taula):

- ❖ T puntuazioa: Parte-hartzalearen neurketa 20–30 urte bitarteko, sexu eta etnia bereko helduen neurketekin alderatuz, batez besteko desbideratze estandarra.
- ❖ Z puntuazioa: Parte-hartzalearen neurketa adin, sexu eta etnia bereko pertsonen neurketekin alderatuz, batez besteko desbideratze estandarra.

**3.3. Taula.** T eta Z balioen sailkapena Munduko Osasun Erakundearen arabera (WHO, 1994).

T eta Z puntuazioa	Sailkapena	Haustura-arriskua
X > -1 de	Normala	Normala
-1 de $\geq$ X > 2,5 de	Osteopenia	Normalaren bikoitza
X $\leq$ -2,5 de	Osteoporosia	Normalaren laukoitza

de: Desbideratze estandarra. X: T edo Z puntuazioak.

### **3.3.2. Gorputz-osaera eta egituraren balorazioa**

Gorputz-osaeraren balorazioa, pertsona baten pisua eta egitura fisikoaren artean erlazio oreaktua dagoen edo ez ezagutzeko baliagarria da. Ikerketetan, gorputz-osaera eta egituraren neurketetarako metodorik erabilgarriena da antropometria. Pisua eta luzerako neurri fisikoak erreferentzia estandarrekin alderatuz, gorputzaren osaera (gantz-, gihar- eta hezur-ehunen portzentajeak) eta egitura (somatotipoa) estimatu dira.

#### **▪ Antropometria neurketak**

Antropometria ez-inbaditzalea eta mingarria ez izateaz gain, ikerketetan erabiltzeko balioztaturiko metodo objektibo eta erabilgarria da. Izan ere, hartutako neurriak, erreferentziazko balioekin eta beste pertsona ezberdinek aurkezten dituztenekin konparatu daitezke.

Honako hauek dira neurtutako parametro antropometrikoak:

#### **❖ Pisua**

Parte-hartzailea arropa arinekin, zutik eta geldirik jartzen da plataformaren erdian, gorputzaren pisua oin bietan banatuta duelarik. Honela, Año Sayol S.L. markako baskula batekin parte-hartzailearen pisua kg-tan neurtu egin da.

#### **❖ Altuera**

Año Sayol S.L. markako tallimetroarekin, vertex (buruaren punturik altuena) eta euste-planoaren arteko distantzia, altuera, cm-tan neurtu da. Parte-hartzailea zutik eta geldirik jartzen da, oinak elkarren ondoan, besoak gorputzarekiko paralelo eta ipurdia eta sorbalda eskalaren kontra. Neurketa egiterako orduan, buruaren posizioa garrantzitusa da; parte-hartzaileak aurrerantz begiratu behar du “Frankfurt planoa” mantenduz. Honetarako, parte-hartzaileak, orbitaren behealdeko ertzetik kanpoko entzunbidearen goialdera lurrarekiko paralelo den lerro bat imajinatu behar du. Neurketa inspirazio sakon baten ondoren egin da.

### ❖ Azal tolesturak

Azalaren eta larruazalpeko gantzaren lodiera mm-tan neurtu da presio konstanteko lipokalibre baten bidez (Holtain LTD). Neurketa guztiak gorputzaren eskuineko aldean egin dira. Puntu bakoitzean bi neurketa egin ondoren, batez besteko neurria kalkulatu da.

- *Tolestura trizipitala*: Besoaren goialdean, akromion eta olekranoren arteko lerroaren erdiko puntuaren atzoko partean. Norabide bertikalean besoaren ardatz nagusiarekiko paralelo.
- *Eskapulapeko tolestura*: Eskapularen beheko angeluaren barnealdean. Eskapularen beheko izkinarekin 45º angelua osatuaz, norabide zeiharrean.
- *Tolestura supraespinal*: Gandor iliakoaren aurreko puntatik bezaperako norabidean eta goiko puntatik norabide zeiharrean doazen marra imaginarioak gurutzatzen diren puntuak.
- *Tolestura abdominala*: Orbain unbilikalaren 3-5 cm-tara. Sabelaren ardatz nagusiarekiko paralelo, norabide bertikalean.
- *Izterreko tolestura*: Belauna eta aldakaren arteko aurreko lerroaren erdian, luzerako zentzuan pertsona eserita egongo da.
- *Bernako tolestura*: Bernaren erdiko aldean, perimetroa handien den puntuari. Luzerako zentzuan eta norabide bertikalean.

### ❖ Giltzaduren diametroak

Giltzaduren diametroak kalibre baten bidez cm-tan neurtu dira:

- *Eskumuturreko diametro biestiloideoa*: Erradioa eta kubituaren apofisi estiloideoen arteko distantzia.
- *Humeroko diametro biepikondilianoa*: Epikondilo eta epitroklearen arteko distantzia. Besoa eta besurrearen artean angelu zuzena osatuz, besoa aurrerantz eta era horizontalean jarriaz.

- *Izterezurreko diametro biepikondilianoa*: Izterezurraren barruko eta kanpoko kondiloen arteko distantzia. Pertsona eserita egonda, berna eta izterraren artean angelu zuzena osatuz.
- *Diametro bimaleolarra*: Maleolo tibialaren eta peronearen arteko distantziarekiko oinak angelu zuzena eratuz.

#### ❖ Gorputz-adarreko perimetroak

Gorputz-adarretako perimetroak zinta metriko baten bidez cm-tan neurtu dira:

- *Besoko perimetroa*: Besoa erlaxatutarik, muskulua uzkurtu gabe, gorputzarekiko paralelo tolestura trizipitala neurzen den tokiaren altueran. Eta besoa flexionaturik (ukondoan 90ºko flexioan) eta uzkurturik mantenduz.
- *Izterreko perimetroa*: Tolestura hartzen den altueran, izterraren erdialdean, pertsona zutik eta pisua bi hanketan berdin banatuta duen bitartean.
- *Bernako perimetroa*: Tolestura hartzen den altueran, pertsona zutik eta pisua bi hanketan berdin banatuta duen bitartean.

#### ▪ Kalkulu eta formulak

Antropometria parametro bakoitzarentzat bi neurketa egin dira eta hauekin gorputz osaera eta indikatzaile desberdinak kalkulatu dira. Neurketa guztiak ISAK (*International Society for the Advancement of Kineanthropometry*) eta GRECek (Grupo Español de Cineantropometría) aholkaturiko protokoloa jarraituz egin dira (Esparza, 1993).

#### ❖ Gorputz Masaren Indizea (GMI)

Altuera eta pisuaren parametroen bitartez Gorputz Masaren Indizea (GMI) kalkulatu da:

$$GMI = \text{Pisua (kg)} / [\text{Altuera (m)}]^2$$

## Material eta Metodoak

---

Parte-hartzaileen GMIak, Munduko Osasun Erakundeak (1995) osasun fisikoan oinarritzen diren irizpideak kontuan hartuz egindako sailkapenaren arabera aztertu dira (3.4. Taula).

### 3.4. Taula. GMI sailkapena Munduko Osasun Erakundearen arabera (WHO, 1995).

GMI ( $\text{kg}/\text{m}^2$ )	Sailkapena
< 18,5	Gutxiegizko pisua
18,5 – 24,9	Pisu normala
25 – 29,9	Gehiegizko pisua
$\geq 30$	Obesitatea

GMI: Gorputz-masa indizea.

### ❖ Gorputz osaera

Lau osagaien eredua jarraituz (Drinkwater eta Ross, 1980), ondorengo formulak erabili dira:

#### Gantz-ehuna

Gantz-portzentajea kalkulatzeko emakumezkoen artean Yuhasz-en formula (Yuhasz, 1974) erabili da eta gizonezkoen artean Faulkner-en formula (Faulkner, 1968).

$$\begin{aligned} \text{Emakumeen gantz-portzentajea } (\%) = & \text{ Sei larruazal tolestura (trizip.} \\ & + \text{eskap.} + \text{supraes.} + \text{abd.} + \text{izter.} + \text{berna.}) \times 0,1548 + 3,58 \end{aligned}$$

$$\begin{aligned} \text{Gizonen gantz-portzentajea } (\%) = & \text{ Lau larruazal tolestura (trizip.} \\ & + \text{eskap.} + \text{supraes.} + \text{abd.}) \times 0,153 + 5,783 \end{aligned}$$

Non trizip., trizipitala; eskap., eskapulapeko; supraes., supraespinala; abd., abdominala; izter., izterreko; berna., bernakoa (denak mm-tan).

Behin gantz-portzentajea ezagututa, gantz-ehunaren pisua kalkula daiteke.

$$\text{Gantz-pisua } (\text{kg}) = \text{Gantz-portzentajea} \times \text{Pisua}/100$$

### **Hezur-ehuna**

Hezur-pisua kalkulatzeko Rocha-k (Rocha, 1975) moldatutako Von Döbelin-en ekuazioa erabili zen.

$$\text{Hezur-pisua (kg)} = 3,02 \times (H^2 \times R \times F \times 400)^{0,712}$$

*Non H, altuera; R, eskumuturreko diametro biestiloideoa; eta F, izterrezurreko diametro bikondiloa (denak m-tan).*

Hezur-pisua kalkulatz, gorputzeko hezur-portzentajea ezagutu daiteke.

$$\text{Hezur portzentajea (\%)} = \text{Hezur-pisua} \times 100 / \text{Pisu osoa}$$

### **Hondar-ehunak**

Hondar-portzentajerako Würch-ek (1974) proposatutako konstanteak erabili dira, % 20,9a emakumeengan eta % 24,1a gizonengan.

### **Gihar-ehuna**

Gihar- pisua, lau osagaietako metodoari jarraituz, pisu osoari gainontzeko osagaien pisua kenduz kalkula daiteke (Drinkwater eta Ross, 1980).

$$\text{Gihar-pisua (kg)} = \text{Pisu totala} - (\text{Gantz-pisua} + \text{Hezur-pisua} + \text{Hondar-pisua})$$

Gihar-portzentajea, modu berean kalkulatzen da; portzentaje totalari, beste hiru ehunen portzentajea kenduz.

$$\text{Gihar-portzentajea (\%)} = 100 - (\text{Gantz-portzentajea} + \text{Hezur-portzentajea} + \text{Hondar-portzentajea})$$

### **❖ Gorputz-egitura**

Somatotipoa gorputzkeraren analisi kuantitatiboa da, eta gorputzen itxura eta osaera estimatzeko baliagarria da. Heath eta Carter-en (1966) metodoa erabiliz, somatotipoa beti orden berean aurkezten diren hiru zenbakirekin adierazten da: osagai endomorfikoa, mesomorfikoa eta ektomorfikoa. Osagai endomorfikoak adipositate erlatiboa adierazten du, osagai mesomorfikoak sendotasuna edo

## Material eta Metodoak

---

gihar eta hezurren tamaina erlatiboa eta osagai ektomorfikoak, aldiz, linealtasun erlatiboa edo argaltasuna. Somatotipoaren kalkuloa hurrengo formulen bidez egin da:

### **Endomorfia**

Endomorfismoa kalkulatzeko, lehenengo E balioa kalkulatu da eta ondoren hurrengo formularen bidez altuerarekiko zuzendu:

$$E = -0,7182 + 0,1451 \times \Sigma AT - 0,00068 \times \Sigma AT^2 + 0,0000014 \times \Sigma AT^3$$

Non  $\Sigma AT$ : Tolestura trizipital, eskapulapeko eta supraespinala (mm-tan).

$$\text{Endomorfia} = E \times [170,18 / \text{altuera(m)}]$$

### **Mesomorfia**

Mesomorfismoa kalkulatzeko, gorputz adarren perimetro eta diametroen bidez egingo da hurrengo formula jarraituz:

$$\begin{aligned} \text{Mesomorfia} = & [0,858 \times U + 0,601 \times F + 0,188 \times B + 0,161 \times P] - \\ & [H \times 0,131] + 4,5 \end{aligned}$$

Non  $U$ , humeroko diametro biepikondilianoa;  $F$ , izterrezurreko diametro biepikondilianoa;  $B$ , besoko perimetro zuzendua;  $P$ , bernako perimetro zuzendua;  $H$ , altuera (denak cm-tan).

### **Ektomorfia**

Ektomorfismoa kalkulatzeko, Indize Ponderalaren (IP) arabera ekuazio desberdinak erabiltzen dira:

$$IP = \text{altuera (cm)} / \text{pisua}^2(\text{kg})$$

Non:

$$IP \geq 40,75$$

$$\text{Ektomorfia} = 0,732 \times IP - 28,58$$

$$38,25 < IP < 40,75$$

$$\text{Ektomorfia} = 0,463 \times IP - 17,63$$

$$IP < 38,25$$

$$\text{Ektomorfia} = 0,1$$

### **3.3.3. Elikaduraren balorazioa**

Elikagai eta mantenugaien ekarpenaren analisia egiteko inuesta dietetikoak erabiltzen dira. Analisi hauek ohizko dietaren adierazle den denbora-tarte batean kontsumituriko elikagai guztien kantitatea neurtuz egiten dira. Hauek egiteko metodo ugari daude eta kasu bakoitzean egokiena aukeratzea ikerlanaren ezaugarrien (helburua, lagina eta errekursoak) araberakoa da.

#### **▪ 5 eguneko egunkari dietetikoa**

Egunkari dietetikoa metodo prospektiboa da non parte-hartzaileak, egun batzuetan zehar, jan eta edandakoaren informazioa modu kuantitatibo eta kualitatibo zehatzean autorregistratu egin behar duen (III. Eranskina). Janariei buruzko informazioa ahalik eta gehien zehazteko eta inuesta era egokian betzoko, parte-hartzaileei beharrezko informazioa eman zaie. Emandako informazioaren barnean, jandakoaren deskribapena, etxeko neurri estandarren azalpena, erabilitako olio mota eta abarri buruzko datuak jartzearen garrantzia azpimarratu zaie.

Erregistro dietetikoa astegun eta asteburu egunak kontuan hartuz egin da. Parte-hartzaileek 5 egunetan zehar, larunbatetik asteazkenera bitarte, jan eta edaten duten guztia idatzi behar dute. Honela, elikagaien osaeraren taulen bidez, ahoraturiko mantenugai guztien kantitatea kalkula daiteke eta aholkatutako ekarpenekin alderatu.

Analisia Dial (1.0 bertsioa. Universidad Complutense de Madrid) programa informatikoaren bidez egin da. Programak egindako analisitik makromantenugaien eta mikromantenugaien ahoratzearen informazioa lortzen da. Makromantenugaiei dagokienez, ahoraturiko energia, proteina, gluzido, lipido, gantz-azido monoasegabe, poliasegabe eta ase, kolesterol eta zuntz kantitatei buruzko datuak lortzen dira. Mikromantenugaiei dagokienez, bitamina, mineral eta elektrolitoen ahoratzearen informazioa jasotzen da.

## **Material eta Metodoak**

---

Dieten analisia egin ondoren, hartutako elikagai eta mantenugaien kantitatea aholkatutako ekarpenekin alderatu dira. Elikagai taldeen anoetarako, SENCEk (Sociedad Española de Nutrición Comunitaria) 2016an aholkatutako anoak erabili dira, sexua eta adina kontuan izanda. Bestalde, mantenugaintzako aholkatutako ekarpenak EAR (*Estimated Average Requirements*) ikuspuntutik ere aztertu dira.

### **3.3.4. Jarduera fisikoaren azterketa**

Egindako jarduera fisikoa neurtzeko hainbat galdeketa eta erregistro desberdin daude. Hauek errore-tasa handia erakusten dute. Hortaz, ikerketa honetan modu objektibo batean aztertzeko, 7 egunetako azelerometria erregistro bat egin dute.

#### **■ Azelerometria**

Parte-hartzaleek egindako jarduera fisikoaren eta aurkezten duten jokabide sedentarioaren neurketak Actigraph WGT3X azelerometroaren bitartez objektiboki neurtu dira. Aurretik egindako ikerketetan, Actigraph WGT3X azelerometroa pertsona gazteen jarduera fisikoa neurtzeko gailu fidagarria dela frogatu da (Migueles eta lank., 2017).

Neurketak, azelerazioaren sentsorea den material piezoelektriko (berunezko titanato-zirkonatoa) baten bidez egiten dira. Hau da, energia mekanikoa elektrikoan bihurtzen duen material baten bidez. Sentsore honek azelerazio bat jasaten duenean, ondoan duen masa sismikoan eragiten du material piezoelektrikoan deformazio jakin bat pairatuz; inklinazioa, tentsioa edota konpresioa. Aldaketa hauek karga elektrikoan aldaketa bat eragiten dute eta ondorioz, boltaje-seinale bat sortzen da. Seinale hau ardatz bertikalean (Y), horizontalean (X) edo zeharkakoan (Z) sortutako azelerazioarekiko proportzionala da. Azelerazioak maiztasunetan neurtu dira (Hz) eta detektaturiko seinalea algoritmoen bitartez kuantifikatzen da, pisuan eta altueran oinarrituz.

Azelerometro bakoitza gerriko elastiko bati lotuta dago eta aldakan eskuineko aldean janzten da. Erregistroak 7 egun irauten ditu. Hau hasi baino lehen, parte-hartzaileei azelerometroa nola erabili behar den azaldu zaie. Egun osoan soinean eraman behar izan dute, uretako ekintzetan (dutxan edo igeriketan adibidez) eta lo egiteko izan ezik. Hala ere, parte-hartzaileei azelerometroa jaso duten egunean, hau erabiltzeko irizpide guztiak azaltzen dituen informazio-orri bat eman zaie (IV. Eranskina).

Actilife v6.13.3 softwarearen bidez programatu dira azelerometroak erregistroak irauten dituen 7 egunetan, neurketak 60 segunduro eta 60 Hz etako laginketa tasarekin jasotzeko. Erregistroa burutu ondoren, softwarearen bidez analisia egin da. Horretarako, gutxieneko neurketa batzuk zehaztu dira; frogatuz emateko, parte-hartzaileek gutxienez azelerometroa 5 egunetan zehar eta egunean gutxienez 10 orduz jantzita izan behar dute. Balio minimo hauetara iritsi ez diren parte-hartzaileak analisitik kanpo geratu dira.

Analisirako Freedson Adult VM3 algoritmoa erabili da (Sasaki, John eta Freedson, 2011). Hau honela, intentsitate ezberdinak hurrengo tarteetan definitu dira: egoneko jarrera (0 - 99 cpm, 10 minutu baino gehiagoz), jarduera fisiko arina (0 - 2689 cpm), neurrizkoa (2690 - 6166 cpm), kementsua (6167 - 9642 cpm), oso kementsua (9643 cpm-tik gora), neurrizkoa eta kementsua (2690 cpm-tik gora) eta hiru ardatzetako mugimendua (Y, Z eta X cpm). Bestalde, batez besteko MET (*Metabolic Equivalent of Task*) kopurua eta eguneko emandako pausoei buruzko informazioa ere jaso da.

### **3.3.5. Egoera fisikoa**

Pertsona baten egoera fisikoa, honek jarduera fisiko desberdinei ahalik eta eraginkortasun handienarekin aurre egiteko, organismoak dituen gaitasunen konbinazioari deritzo. Egoera fisikoaren balorazioa egiteko gaitasun aerobikoa eta anaerobikoa neurtu dira.

### ■ Gaitasun aerobikoa

Gaitasun aerobikoa, oxigeno-kontsumo maximoaren ( $VO_{2\text{Max}}$ ) bidez neurten da eta pertsona batek metabolismo aerobikoaren bitartez, energia ekoizteko gaitasuna adierazten du. Oxigeno-kontsumo maximoa, bihotz-birika sistemaren gaitasun aerobikoa edo gaitasun funtzionala adierazten duen parametrorik zehatzena eta bihotz gastu maximoaren indikatzaile ez zuzen bat da.

#### ❖ Oxigeno-kontsumo maximoa - Astrand testa.

Gaitasun aerobikoa neurtzeko, zikloergometroa eta pultsometroa erabiliz, parte-hartzaleek Astrand-en testa egin dute. Testa egiteko pedalei 50 birako erritmoan eragiten diete, 50 W ko potentzia mantenduz. Lehenengo minutuan, lortutako bihotz-maiztasunaren arabera, potentzia karga gehitzea edo ez erabaki behar da test bukaerako bihotz-maiztasuna 125 - 170 taupada/minutuko tartean egon dadin. Emakumeengan potentzia 75 - 100 W artean kokatzen da eta gizonengana 100-150 W tan. Amaierako taupadak, bosgarren eta seigarren minutuen artean izandako batez besteko bihotz-maiztasuna kalkulatz finkatu dira (3.2. Irudia).



**3.2. Irudia.** Astrand testaren frogak.

Astrand-en normograma erabiliz (IV. Eranskina), egindako frogan izandako potentzia eta azken minutuan erregistraturiko bihotz-maitzasuna erlazionatuz, oxigeno-kontsumo maximo absolutuan (l/min) kalkulatzen da. Azkenik, kalkulaturiko oxigeno-kontsumo maximo absolutua parte-hartzailearen pisuarekin zatituz oxigeno-kontsumo maximo erlatiboa kalkulatzen da (ml/kg/min).


#### ▪ **Gaitasun anaerobikoa**

Gaitasun anaerobikoa, energia nagusiki giharrean bertan dauden substratuetatik lortuz, oxigenoa erabili gabe, gorputzak jarduera fisiko intentsuak egiten mantentzeko gaitasunari deritzo. Bosco testaren eta froga isozinetikoaren bitarbez, parte-hartzaileen behe gorputz-adarren gihar-potenzia eta gihar-indar maximoa aztertu dira.

##### ❖ **Indar esplosiboa - Bosco testa**

Ukipen-plataforma baten bitarbez, partaideek salto egiterakoan oinak plataformarekin kontaktuan eta airean dauden denbora-tartea neurtzen da. Horrela, saltoa egitean, grabitate zentroa erreferentzia modura izanda, lortutako altuera ezagutzen da.

Mugimenduaren aurkako jauzia (MAJ) (*Counter Movement Jump* edo CMJ) egin dute parte-hartzaileek (3.3. Irudia). Zutik dagoen posizio batetik hasita, eskuak gerrian izanik eta belaunak 90º flexionatuz, ahalik eta jauzirik altuena eman behar da saltoan hankak zuzen mantenduz; flexionatu gabe. Frogak egin baino lehen, testa ondo burutu ahal izateko, irizpide hauek ondo jarraitzearen garrantzia azaldu zaie parte-hartzaileei. Horretaz gain, honetan trebatzeko helburuarekin, partaideek pare bat salto egiteko aukera izan dute frogak egin baino lehen. Test honetan jauziaren altuera (cm) eta iraupena (s) neurtu dira. Horrela, behealdeko gorputz-adarren indarra eta koordinazio neuromuskularra ezagutu dira.



**3.3. Irudia.** Bosco testaren MAJ saltoa.

### ❖ Indar muskularra - Frogua isozinetikoa

Parte-hartzailen behe gorputzadarreko giharrekin ariketa jakin baten aurrean egiten duten indarra modu objektiboan neurtzeko sistema isozinetikoa erabili da. Neurketa sistema honek hiru elementu nagusi ditu: goniometroa, takimetroa eta dinamometroa. Lehenengoak mugimendu ibilbidea neurten du; bigarrenak, berriz, mugimenduaren abiadura finkatzen du, mugimendu isozinetikoan abiadura konstantea izan behar baita; eta dinamometroak partaideak eginiko indarra neurten du.

Hankaren bai luzapenean, bai flexioan, lan kontzentrikoa eginez, koadrizeps eta iskiotibialak abiadura angeluar jakin baten aurrean egindako indarra eta potentzia neurtu dira CSI-Humac Norm aparatu isozinetikoarekin (3.4. Irudia). Frogua honek errepikaren bakoitzeko hainbat datu eskaintzen ditu: torkea, lana, potentzia, torke maximoa, ROM (*Range Of Movement*) eta denbora. Parametro hauek *Humac extremity software* programa informatikoaren bidez eskuratu genituen.

**3.4. Irudia.** Froga isozinetikoa.

Parte hartzalea eserleku doigarri batean modu eroso batean eseri ondoren, gorputz-enborra eta eskuineko izterra belkrozko uhalekin eutsi egiten dira. Horrela, indar maximoa egiterakoan, gorputz-enborraren mugimendu eta konpentsazioak saihestu eta koadrizeps eta iskiotibialaren indarra soilik neurtu egiten da. Froga eskuineko hankarekin burutu egin da eta, horretarako, eskuineko belauna dinamometroaren beso altxagarriarekin parekatu behar da. Aztertutako mugimendu tartea 0-90°tan finkatu zen, 0° belaunaren luzatze neutroaren posizioa izanik (zero anatomikoa).

Neurketak hiru abiadura angeluarretan egin dira: 60°/s, 90°/s eta 180°/s. Abiadura angeluar bakoitzeko 5 errepikapenetako froga egin dute parte-hartzaleek. Froga bakoitzaren aurretik, beroketa gisa, frogarekin trebatzeko eta gihar-indar guztia erabilia izango dela ziurtatzeko, abiadura bakoitzarekin 5 saiakera egiten dira esfortzu azpi-maximoan. Beroketa honen eta frogaren artean, parte-hartzaleek 10 segundoko atsedena izan dute. Abiadura batetik bestera pasatzerakoan ere, beste 20 segundo izan dituzte atseden gisa.

Parte-hartzaleek errepikapen guztiak indar maximoarekin burutu ditzaten, frogak iraun duen denbora guztian ordenagailuko monitorean honen jarraipena egin ahal izan dute *feedback* bisual modura. Horrez gain, froga egin baino lehen eta iraun duen denboran zehar, ikertzaileek parte-hartzaleak ahalik eta gehien motibatzeko ardura izan dute.

### 3.3.6. Ariketa fisikoaren azterketa

Modu erretrospektibo batean, bizitzaren garai desberdinetan zehar egindako ariketa fisikoaren inguruko galdeketa bat erantzun dute. Modu honetara, ariketa fisikoa intentsitatearen, inpaktuaren eta bizitzan zeharreko garai desberdinetan izandako jarraipenaren ikuspuntuatik aztertu ahal izan da.

#### ■ Ariketa fisikoko aurrekarien galdeketa

Parte-hartzaileek haurtzaro eta nerabezaroan, heziketa fisikoko irakasgaia kontuan izan gabe, jardundako ariketa fisikoen ohiturak ezagutzeko, galdeketa prestatu zaie (V. Eranskina). Lehen hezkuntzan (6 - 11 urte bitarte), bigarren hezkuntzan (12 - 15 urte bitarte), batxilergoan (16 - 17 urterekin) eta unibertsitatean (18 - 21 urterarte) egindako ariketa fisikoen inguruko galdeketa erantzun dute. Garai bakoitzean egindako ariketa fisikoaren aurrekariak aztertzeko, datuak modu desberdinetan sailkatu dira.

#### ❖ Inpaktua

Azertutako garai guztietan zehar ariketa fisiko desberdinak inpaktuaren arabera sailkatu dira (VI. Eranskina). Sailkapen hau beste ikerketetan erabilitako banaketari jarraituz egin da (Nikader eta lank., 2005). Honako hau, ariketa fisiko bakoitzaren inpaktu-karga (altua, ezohikoa edo txikia), karga-mailan eta maiztasun edo errepijakortasunean oinarritzen da. Guztira, bost ariketa mota bereiz daitezke: inpaktu karga handia, ezohiko inpaktu karga, karga-bolumen altua, inpaktu karga txikia eta inpakturik ez duena (3.5. Taula).

**3.5. Taula.** Ariketa fisikoien inpaktu-kargaren, karga-mailaren eta errepikakortasunaren araberako sailkapena.

Inpaktu-karga	Ezaugarriak
<b>Inpaktu karga handia</b>	- Salto maximoak
<b>Ezohiko inpaktu karga</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Intentsitate altuko saltoak</li> <li>- Azelerazio eta dezelerazio mugimendu arinak</li> <li>- Gorputz eta aldakaren norabide ezohikoa</li> </ul>
<b>Karga-bolumen altua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldi bereko mugimendu koordinatuak</li> <li>- Gihar-indar ekoizpen altua</li> </ul>
<b>Inpaktu karga baxua</b>	- Pisua jasaten duen jarduera errepikakorra
<b>Inpakturik ez</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mugimendu kopuru altua</li> <li>- Inpakturik gabe</li> </ul>

#### ❖ Ariketa fisikoaren aurrekariak

Ariketa fisikoaren aurrekariak aztertzeko, ikasketen ziklo bakoitzean, ariketa fisikoa egiten dutenak edo ez kontuan hartuz, beste sailkapen bat egin da. Lehen taldean, eskolatik kanpo inoiz ariketa fisikorik egin ez dutenak daude. Bigarren taldean, lehen hezkuntzan ariketa fisikoa egiten dutenek osatzen dute. Hirugarren taldean, ariketa fisikoa bigarren hezkuntza arte egiten dutenak aurkitzen dira. Laugarren batean, batxilergo garaia heldutakoan ariketa fisikoa egiten jarraitzen dutenak daude. Bostgarren taldean, ariketa fisikoa bizitzan zehar, unibertsitate garairarte, era jarraituan eta etenik gabe egiteko ohitura dutenak aurkitzen dira. Azkenik, seigarren talde batean, jarduera fisikoa modu ez-jarraitu batean egin dutenak biltzen dira.

### **❖ Federatuak**

Parteideek egindako ariketa fisikoa, federatu gisa egiten duten ala ez kontuan hartuz sailkatu da. Garai bakoitzean, alde batetik federazio-lizentziak dituztenak, eta, bestetik, ariketa fisikoa beren kabuz edo taldeka, baina federatu gabe egiten dutenak kontuan hartuz sailkatu dira.

### **3.3.7. Beste bizi-ohituren azterketa**

Badira jarduera fisikoa eta nutrizioaz gain hezurrarekin erlazionatu egiten diren beste hainbat faktore. Hala nola, alkohol eta tabako kontsumoak, tratamendu farmakologikoek, hezur-hausturarik pairatu izanak eta osteoporosi edota osteopenia duten lehen edota bigarren graduko familiarteko aurrekaririk izateak hezur-osasunarekin lotura izan dezakete. Horregatik, hau guztia kontuan hartuz, parte-hartzaileei aldagai hauen inguruko informazioa jasotzeko galdeketa eman zaie (V. Eranskina).

### **3.4. ESTATISTIKA ANALISIA**

Behin informazio guztia bildu ondoren, estatistika analisirako SPSS 21.0 programa informatikoa erabili da. Horretarako, lehenik aldagaien deskripzioa egin da, aldagai kuantitatiboak batez besteko eta desbideratze estandarrarekin eta portzentajeekin adierazi dira; aldagai kualitatiboak, berriz, frekuentzien bidez.

Kolmogorov-Smirnov frogaren bidez, aldagai guztien normaltasuna aztertu da. Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak aztertzeko Studenten T proba erabili da aldagai parametrikotan eta Mann-Withneyen U proba aldiz aldagai ez-parametrikotan. Neurturiko antropometria, elikadura, jarduera fisiko eta egoera fisiko parametroen aldagai desberdinek, banaka, *Stiffness* indizearekin duten erlaziona korrelazioen bidez aztertu da. Alde batetik aldagai parametrikotan Pearson-en eta bestetik, ez-parametrikotan, Spearman-en koefizienteak erabiliz. Ondoren erregresio lineal anizkoitzen 3 eredu (guztiak, emakumeak eta gizonak) eraiki ziren. Ekuazioan, korrelazioetan *Stiffness* indizearekin adierazgarriki lotutako parametroak aldagí independente bezala eta *Stiffness* indiza bera aldagai dependiente bezala barneratu dira.

Bestalde, aldagai kualitateboen arteko *Stiffness* indizearen ezberdintasunak aztertzeko ANCOVA testa erabili da. Hauetan, kobariableak, azterturiko bizi-ohiturak, eskola garai desberdinaren inpaktuaren arabera sailkaturiko ariketa fisikoak eta ariketa fisiko aurrekarien jarraipena izan dira. Ondoren taldeak binaka konparatzeko *post-hoc* testen artean, DMSren testa egin da.

Esangura estadistikoa  $p < 0,05$  denean finkatu da.



# **EMAITZAK ETA EZTABADA**



#### **4. EMAITZAK ETA EZTABAINA**

Ikerketaren ezaugarriak kontuan izanda, emaitzak aurkezteko lau ataletan desberdintzen den gidoia jarraituko da. Lehenengo atalean, parte-hartzailen hezur-zurruntasunak, gorputz-osaera, elikadura, jarduera fisiko, egoera fisiko eta bestelako bizi-ohiturekin (alkohol eta tabako kontsumoa, tratamendu farmakologikoak eta jasandako lesioak) emaitza deskriptiboak aurkeztuko dira. Ondoren, hauek hezur-zurruntasunarekin duten lotura korrelazio bitartez aztertuko da. Gero, hezur-zurruntasunarekin lotura adierazgarriak dituzten faktoreetatik, hezur-zurruntasuna aurreikusteko garrantzi handiena dutenak zeintzuk diren analizatuko da. Laugarren atalean, ariketa fisikoak, inpaktuaren eta jarraipenaren ikuspuntuetatik aztertuz, hezur-zurruntasunarekin duen lotura zehaztuko da.

Emaitzak emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak aztertuz aurkezten dira. Hauek azaltzen joan heinean, beste ikerketetan plazaratutako ondorioekin alderatuz datuen eztabaida egingo da. Eta azkenik, ikerketan lortutako emaitzak modu orokorrean azalduko dira.

### 4.1. HEZUR-ZURRUNTASUNAREN ETA AZTERTURIKO ALDAGAIEN EZ AUGARRI DESKRIPTIBOAK

#### 4.1.1. Hezur-zurruntasuna

Hezur osasuna baloratzeko, ultrasoinu bitarteko metodoa erabiliz, hezurdentsitatearekin erlazionaturiko ezaugarri fisikoak neurtu dira. Hainbat ikerketetan balioztaturiko metodo hau, erasokorra ez izateaz gain, orpo-hezur trabekularren hainbat ezaugarri neurtzen ditu (Cepollaro eta lank., 2005).

Hezur-zurruntasunaren adierazle den *Stiffness* indizea BUA eta SOS parametroekin erlazionaturik dago. Nahiz eta *Stiffness* indizeak berez erreferentzia baliorik ez izan, hezur-dentsitate mineralarekin erlazionaturiko parametra da (Sawyer eta lank., 2001). Hau honela, *Stiffness* indizea, sexua, etnia eta adina kontuan izanda, biztanleria arruntak aurkeztutakoarekin alderatuz, Munduko Osasun Erakundeak (WHO, 1994) hezur-dentsitatea sailkatzeko ezarri dituen T eta Z puntuazioak kalkulatzen dira.

Ultrasoinuzko dentsitometriarekin, eskumako orpo-hezurrean neurtutako hezur ezaugarri desberdinen adierazle diren parametroak aztertu dira (4.1. Taula).

**4.1. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaleen hezur-parametroak.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>Bb ± de</b>	<b>Bb ± de</b>	<b>Bb ± de</b>
<b>BUA (MHz)</b>	120 ± 13	124 ± 15	122 ± 20
<b>SOS (m/s)</b>	1625 ± 45	1633 ± 71	1629 ± 15
<b>Stiffness indizea</b>	115 ± 17	119 ± 23	117 ± 57
<b>T puntuazioa</b>	1,38 ± 1,4	1,53 ± 1,8	1,44 ± 1,5
<b>Z puntuazioa</b>	1,38 ± 1,3	1,53 ± 1,8	1,44 ± 1,5

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra. BUA: *Brondband Ultrasound Attenuation*. SOS: *Speed Of Sound*.

Student t

Hezur-zurruntasunarekin erlazionaturiko BUA eta SOS parametroen batez besteko balio guztiak, normaltasun parametroen barruan daude. Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak ez dira esanguratsuak izan. Parametro guztiak, BUA izan da ezberdintasunik handiena izan duena. Beste ikerketen emaitzetan azaltzen den bezala, emakumeen parametro guztiak gizonenak baino baxuagoak izan dira (Weater eta Economos, 2004; Pettinato eta lank., 2006; Correa-Rodriguez eta lank., 2016). Bestalde, ikerketa honetan neurriko BUA eta SOS parametroak unibertsitate gazteetan egindako beste ikerketetan azaltzen direnak baino altuagoak dira (Bae eta lank., 2008; Correa-Rodriguez eta lank., 2016). T eta Z puntuazioak oso parekoak dira bai emakume bai gizonetan. Izan ere, T puntuazia etnia, sexu eta 20-30 urte bitarteko pertsonek duten hezur-dentsitatearekiko desbideratze estandarrari deritzo eta Z puntuazioan berri, etnia, sexu eta adin berdinako pertsonak dira erreferentzia. Ikerketa honetan, parte-hartzaleen batez besteko adina 20 urtetara hurbiltzen da ( $18,7 \pm 0,8$  urte) eta horren ondorioz, espero zitekeen bezala, bi puntuazioak oso antzekoak izan dira. Puntuazio hauen sailkapena kontuan hartuz, hezur-zurruntasun egokia eta erreferentzia biztanleria bezalako haustura-arrisku normala (ISCD, 2015) aurkezten dute ikerketa honetako bai emakume bai gizonen batazbesteko.

#### **4.1.2. Ezaugarri antropometrikoak**

Jarraian, parte-hartzaileen ezaugarri antropometrikoak aztertuko ditugu. Modu honetara, ondoren, gorputz-osaerak eta egiturak hezur egoerarekin duten erlazioa aztertu ahal izateko (4.2. Taula).

**4.2. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaileen GMI, gorputz-osaera eta egitura.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>Bb ± de</b>	<b>Bb ± de</b>	<b>Bb ± de</b>
<b>Pisua</b> (kg)	59,3 ± 8,1	72,3 ± 6,9 ***	64,4 ± 10
<b>Altuera</b> (cm)	165 ± 6,2	178 ± 6,8 ****	170 ± 8,9
<b>GMI</b> (kg/m <sup>2</sup> )	21,7 ± 2,5	22,7 ± 1,9 **	22,1 ± 2,4
<b>Gorputz-osaera (%)</b>			
<i>Gantz-portzentajea</i>	21,0 ± 4,1	12,8 ± 3,0 ****	17,8 ± 5,5
<i>Hezur-portzentajea</i>	13,2 ± 1,9	13,2 ± 1,8	13,2 ± 1,9
<i>Gihar-portzentajea</i>	41,6 ± 4,6	49,8 ± 3,1 ****	44,8 ± 5,7
<b>Somatotipoa</b>			
<i>Endomorfia</i>	4,53 ± 1,3	3,26 ± 1,2 ***	4,04 ± 1,4
<i>Mesomorfia</i>	2,22 ± 1,7	2,38 ± 1,6	2,28 ± 1,7
<i>Ektomorfia</i>	2,59 ± 1,1	2,72 ± 0,9	2,64 ± 1,1


Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra. GMI: Gorputz-masa indizea.

Student t eta Mann Whitney U \*\* p < 0,01; \*\*\*\* p < 0,001

Emakume eta gizon parte-hartzaileen batez besteko **GMI**ak Munduko Osasun Erakundeak gomendatutriko 18,5 eta 24,9 kg/m<sup>2</sup> balio osasungarrien barruan daude (WHO, 1995). Gizonek emakumeek baino GMI altuagoa dute (p = 0,007) baina duten gantz-portzentajea aldiz, txikiagoa da (p < 0,001).

Emaitzha hauek unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketetan lortutakoekin bat etorri arren (Irazusta eta lank., 2006; Zarrazquin eta lank., 2014), badira emaitza desberdinak aurkezten dituzten ikerketak ere. Non, unibertsitate ikasleek, GMI baxuagoak dituzten (Lutoslawska eta lank., 2014; Zaccagni eta lank., 2014).

Munduko Osasun Erakundearen erreferentzi balioak (WHO, 1995) kontuan izanda, GMIaren sailkapen maila bakoitzean dauden parte-hartzaleen portzentajeak aztertu dira (4.1.Grafika).



**4.1. Grafika.** Emakume eta gizonen sailkapena GMIari dagokionez (WHO, 1995).

Nahiz eta emakume eta gizonen gehiengoak normal bezala erreferentziaturiko GMIA izan, ikerketa honetan lortutako emaitzen arabera, badira gomendaturik GMIA ez duten gizon eta emakumeak. Gizonen %13,1ak gehiegizko-pisua duen bitartean, % 1,64ak GMI baxua azaltzen du. Emakumeen kasuan aldiz, % 7,4ak gomendaturikoa baino GMI baxuagoa du, % 7,4ak gehiegizko-pisua eta %1ak obesitatea. Gainpisua eta obesitatearen datuak batu ezkerro, emakumeen % 8,4ak gomendaturikoa baino GMI altuagoa aurkezten duen bitartean, gizonetan portzentajea % 13,1rarte igotzen da. Hain zuzen ere, GMIA ez du beti pertsonen gorputz-osaera modu egokian Zaccagni sailkatzen (Hernández Ruiz de Eguilaz eta lank., 2010; Kalantari eta lank., 2017). GMI balio altuak ez dira beti obesitate mailaren adierazle izan behar. Izan ere, GMIA kalkulatzerako orduan, pisua eta altueraren arteko harremana bakarrik izaten da kontuan eta ez ehun desberdiniek pisu totalarekiko adierazten duten portzentajea. Gizonek adibidez, gihar-ehun portzentaje handia dute baina hau ez da GMIaren kalkuluan kontuan hartzen.

Elikadura eta bizi-ohitura aldaketak gaztaroan ematen dira eta Spainiar estatuan elikadura desegokiaren ondorioz gertatzen diren gaixotasunak gazteen % 16ak pairatzen dituzte (Ortiz-Montcada, 2006; Peláez-Fernandez eta lank., 2007). Hauek nagusiki emakumeetan gertatzen dira baina gizon gazteen % 5-10ak ere elikadurarekin erlazioa duten gaixotasun psikiatrikoak jasaten dituzte.. Ikerketa honetan lortutako emaitzak ez dato guztiz bat honako portzentajeekin baina aztertutakoaren arabera, antzeko joera ikusten da; GMI baxua, batez ere, emakumeek aurkezten dute eta joera hau, unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketetan azaldutako emaitzakin bat dator (Zarrazquin, 2012).

**Gantz-portzentajeari** dagokionez, emakumeen batez besteko gantz-portzentajea, pisuaren % 21 da. Adin tarte honetako emakumeen gantz-portzentaje egokia % 20 - 25 dela kontutan izanez gero (Gallagher eta lank., 2000), aztertutako emakumeen % 16,8ak erreferentzia balioek adierazten dutena baino gantz-portzentaje handiagoa aurkitzen du (> % 25). Gizonen gantz-portzentajea berriz, pisuaren % 12,8 izan da eta adin tarte honetako gizonen gantz-portzentaje egokia % 13 - 20 tartean kokatzen da (Gallagher eta lank., 2000). Hau honela, gizonen % 3,3ak bakarrik aurkezten du gomendaturiko baino gantz-portzentaje handiagoa (> % 20).

**Gihar-portzentajeak** ere, ezberdintasun esanguratsua azaltzen du emakume eta gizonen artean ( $p < 0,001$ ). Beste ikerketetan ere, gizonak dira emakumeek baino gihar-ehun portzentaje handiagoa aurkezten dutenak batez ere goi gorputz-atalean (Abe, Kearns eta Fukunaga, 2003; Schorr eta lank., 2018).

**Somatotipoari** dagokionez (Endomorfia, Mesomorfia, Ektomorfia), ikerketa honetan, emakumeek somatotipo ektoendomorfikoa (4,53-2,22-2,59) dute eta gizonek ere (3,26-2,38-2,72). Somatotipoan ere, sexuen arteko ezberdintasunak modu nabarmenean azaltzen dira. Izan ere, adipositate erlatiboaren adierazle den gorputz-osaera endomorfikoa emakumeengan gizonengan baino altuagoa da ( $p < 0,001$ ).

Unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketeten ere, emakumeen somatotipo nagusia endomorfikoa izan da (Carrasco eta lank., 2015; Ramos-Jiménez eta lank., 2017). Gizonen kasuan aldiz, desberdintasunak daude gure emaitzen eta beste ikerketetan azaltzen direnen artean. Ikerketa honetan gizonetan osagai endomorfikoa izan da nagusi eta beste ikerketetan berriz mesomorfikoa (Carrasco eta lank., 2015; Ramos-Jiménez eta lank., 2017). Hala ere, gazteen gorputz-osaeraren eboluzioa aztertuz, gaur egungo gazteak, aurreko hamarkadakoekin alderatuz, osagai mesomorfikoak endomorfikoaren alde egin duela antzeman da (Lizana eta lank., 2012). Gainera, gure datuekin bat eginez, nerabezarotik gaztarora emakume eta gizonen somatotipo aldaketak aztertu dituen bestelako ikerketa batean, osagai endomorfikoa, mesomorfikoa eta ektomorfikoaurrean gailentzeko joera duela ikusi da (Lizana, Olivares eta Berral, 2014).

Parte-hartzaleek dituzten azal tolesturak eta gorputz-adarretako perimetroak ere aztertu dira (4.3. Taula).

**4.3. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaileen azal tolesturak eta gorputz-adarretako perimetroak.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>Bb ± de</b>	<b>Bb ± de</b>	<b>Bb ± de</b>
<b>Tolesturak (mm)</b>			
$\Sigma$ Sei Tolesturak	114 ± 26	88,9 ± 25 ****	104 ± 29
$\Sigma$ Enborra	71,8 ± 16	54,1 ± 14 ***	64,9 ± 17
<i>Trizipitala</i>	17,0 ± 4,9	10,3 ± 4,3 ****	14,4 ± 5,6
<i>Eskapulapekoia</i>	11,7 ± 5,2	10,5 ± 4,0	11,2 ± 4,8
<i>Suprailiakoa</i>	14,2 ± 5,3	11,1 ± 5,5 ****	13,0 ± 5,6
<i>Abdominala</i>	15,9 ± 5,5	13,4 ± 6,6 *	14,9 ± 6,1
$\Sigma$ Behe gorputz-adarra	41,2 ± 14	35,0 ± 15 ****	38,8 ± 15
<i>Izterrekoa</i>	31,0 ± 6,7	23,6 ± 7,3 ****	28,1 ± 7,8
<i>Bernakoa</i>	24,5 ± 6,9	20,1 ± 6,1 ****	22,8 ± 6,9
<b>Diametroak (cm)</b>			
<i>Eskumuturra</i>	4,93 ± 0,3	5,56 ± 0,4 ****	5,18 ± 0,8
<i>Humeroan</i>	6,02 ± 0,7	6,84 ± 0,8 ****	6,34 ± 0,5
<i>Izterrean</i>	7,06 ± 1,4	7,16 ± 1,2	7,11 ± 1,3
<i>Bimaleoloa</i>	5,55 ± 0,8	5,96 ± 1,2 **	5,71 ± 1,0
<b>Perimetroak (cm)</b>			
<i>Besoa</i>	8,87 ± 4,3	19,1 ± 2,2 ****	25,80 ± 2,9
<i>Izterra</i>	19,4 ± 6,5	25,9 ± 2,2	47,74 ± 4,1
<i>Berna</i>	11,4 ± 6,8	25,9 ± 2,2 ***	34,06 ± 2,9

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra.  $\Sigma$  Sei Tolesturak: Trizipitala, eskapulapekoia, suprailiakoa, abdominala ( $\Sigma$  Enborra), izterrekoa, bernakoa ( $\Sigma$  Behe gorputz-adarra).

Student t eta Mann Whitney U \* p < 0,05 ; \*\*\* p < 0,005; \*\*\*\* p < 0,001

**Azal tolesturak**, gorputzeko gantz-portzentajearen adierazle dira. Larruazalpeko gantzaren lodiera modu desberdinean banatzen da gorputzean zehar. Emakumeen tolesturak gizonenak baino handiagoak dira ( $p < 0,001$ ). Izan ere, aipatu bezala, emakumeek gizonek baino gantz-portzentaje altuagoa dute ( $p < 0,001$ ). Desberdintasun hau nabarmenagoa da behe gorputz-adarreko tolesturetan ( $p <$

0,001) enbor tolesturetan baino ( $p < 0,005$ ). Gantz-azidoen metabolismoaren erregulazioa ez da modu berdinean gertatzen gizon eta emakumeetan. Emakumeek, gantz-azidoak larruazalpeko egoera postabsortiboan (jan ondorengo 4 - 6 ordu bitartean) gantz-ehun zurian metatzen dituzten bitartean, gizonek, gantz-azidoak egoera postpandrialean (jan ondorengo 2 orduetan), erraietako gantz-ehunean metatzeko joera dute (Karastergiou eta lank., 2012). Gizonetan gantz-metaketa, batez ere, gorputz-atal abdominalean gertatzen den bitartean (Blaak, 2001), emakumeetan, gorputzeko atal gluteo-femoralean gertatzen da. Era horretara, emakumeen izterreko- ( $p < 0,001$ ) eta bernako tolesturak ( $p < 0,001$ ) bereziki, gizonenak baino handiagoak dira. Hala ere, genetika eta faktore hormonalen elkareragite konplexuak ere badira gantz-azidoen metatze, mobilizazio eta oxidazioa emakume eta gizonetan modu ezberdinean ematearen arrazoi (Brown eta lank., 2010; Fried eta lank., 2015).

*Diametroei* dagokienez, humeroko diametro biepikondilianoa izan ezik, gizonek emakumeek baino diametro handiagoak dituzte. Ezberdintasun hauek, goi-gorputz-adarrean; eskumuturreko diametroan ( $p < 0,001$ ) eta humeroan ( $p < 0,001$ ) dira nabarmenen.

Gorputz-adarretako *perimetroak* ere, handiagoak dira gizonetan. Permetroak neurtzerakoan, gorputz-atal horretako hezurra, giharra eta gantza batera neurtzen direla kontuan hartu behar da, hezur-portzentajeak ez duela ezberdintasun esanguratsurik aurkezten emakume eta gizonen artean (4.2. Taula) baina bai ordea gihar- ( $p < 0,001$ ) eta gantz-portzentajeak ( $p < 0,001$ ). Beraz, ehun portzentajeen eta perimetroen emaitzak batera aztertuz, gizonek gorputz-adar desberdinatan, emakumeek baino gihar gehiago dutela esan dezakegu.

### 4.1.3. Elikadura

Elikaduraren balorazioa egiterako orduan, emakume eta gizonen behar nutrizionalak desberdinak direla kontuan hartuz, datuak sexuka bananduz aztertu bananduz aztertu dira. Gainera, makromantenugai eta mikromantenugaien ahorakina, adin eta sexu bereko pertsona batentzat SENCek (SENC, 2016) emandako gomendioekin alderatu dira.

#### ■ Makromantenugaiak

Parte-hartzaileek ahoraturiko makromantenugaien balio absolutuak eta dituzten behar minimoak asetzeko gomendaturiko ahoratzea aztertu dira (4.4. Taula).

**4.4. Taula.** Emakume eta gizonen ahorakinaren energia eta makromantenugaiak.

	Emakumeak		Gizonak	
	Ahorakina Bb ± de	Gomendioa <sup>a</sup>	Ahorakina Bb ± de	Gomendioa <sup>a</sup>
<b>Energia</b> (Kcal/egun)	2259 ± 541	2016 – 2202	2761 ± 631****	2513 – 2884
<b>Proteinak</b> (%)	17,0 ± 2,4	15	17,2 ± 2,6	15
<b>Lipidoak</b> (%)	41,0 ± 5,6	30 – 35	41,1 ± 5,9	30 – 35
<b>Gluzidoak</b> (%)	42,0 ± 6,2	50 – 55	41,7 ± 6,2	50 – 55
<b>Zuntza</b> (g/egun)	16,8 ± 6,9	25 – 30	19,1 ± 7,8	25 – 30
<b>Kolesterolak</b> (mg/egun)	341 ± 107	< 300	450 ± 142****	< 300

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra.

<sup>a</sup> SENCeK gomendaturiko ahorakina (2016).

Student t \*\*\*\* p < 0,001

Adina eta sexua kontuan hartuta eta energiari dagokionez emakume eta gizon parte-hartzaileen dieta normokalorikoa da. Hala ere, emakumeek dietan gizonek baino kilokaloria gutxiago ahoratzen dituzte ( $p < 0,001$ ). Dena den, makromantenugaien portzentajea kontuan izanik, bai emakume baita gizonek, proteina eta lipidoetan aberatsak eta gluzidoetan baxuak diren dietak dituzte; hiperproteikoak, hiperlipidikoak eta hipogluzidikoak.

**Proteinen ahorakina** gomendaturikoa baino altuagoa da bai emakume baita gizonetan ere. Gomendioen arabera, energiaren % 15a da proteinetatik eratorria izan beharko litzatekina. Bainan ikerketa honetan, emakumeetan, portzentaje hori % 17,0koa da eta gizonetan % 17,2ko. Dieta hiperproteikoa, unibertsitate ikasleetan egindako beste hainbat ikerketen emaitzetan azaltzen da (Martinez-Roldán eta lank., 2005; Irazusta eta lank., 2006; García-Meseguer eta lank., 2014; Correa-Rodriguez eta lank., 2018 Porto-Arias eta lank., 2018).

**Lipidoen ahorakina** gomendaturikoaren gainetik dago emakume eta gizonetan. Gomendioen arabera energia totalaren % 30-35a lipidoetatik lortu behar da baina kasu honetan, parte-hartzaileek aurkezten duten dieta hiperlipidikoa da. Emakumeek energiaren % 40,99a lipidoetatik lortzen dute eta gizonek % 41,12a. Beste ikerketetan lortutako emaitzak ikerketa honetan azaltzen diren balioekin bat dato (Martinez-Roldán eta lank., 2005; Zarrazquin, 2012; García-Meseguer eta lank., 2014). Hala ere, badira portzentaje altuagoak aurkezten dituzten ikerketak ere (Correa-Rodriguez eta lank., 2018; Porto-Arias eta lank., 2018).

**Gluzidoen ahorakina** ordea ez da gomendaturikoa balioetara iristen. Energiaren % 50-55a da gluzidoetatik eratorria izan beharko litzatekeena; horietatik gluzido simpleak % 10a baino gutxiago izanik. Ikerketa honetan, emakumeek, energiaren % 41,98a eta gizonek % 41,65a da gluzidoetatik lortzen dutena. Beste ikerketetan ere aztertu bezala, unibertsitate ikasleek dieta hipogluzidikoa jarraitzen dute (Irazusta eta lank., 2006; Baldini eta lank., 2009; Zarrazquin, 2012; Porto-Arias eta lank., 2017).

Parte-hartzaileek ahoraturiko batez besteko **zuntz** kantitatea ez da gomendioetara iristen ez emakume ezta gizonetan ere ez. 18-24 urte bitarteko gazteek, bai emakume bai gizonek, ENIDE 2011 ikerketan, zuntz-ahorakin altuagoa dute (AESAN, 2011). Beste ikerketetan ere, unibertsitate ikasleek gomendioek diotena baino zuntz gutxiago ahoratzan dutela ikusi da (Irazusta eta lank., 2006; Montero, Úbeda eta Garcia, 2006; Perea, 2006; Correa-Rodríguez eta lank., 2018). Hau

kontuan izan beharreko datua da izan ere, zuntz-ahorakina hezur-galeraren aurkako babesle bezala identifikatu da eta kaltzio-xurgapenarekin erlazio positiboa aurkezten du (Dai eta lank., 2018). Beraz, oinarrizkoa da gazteek zuntz-ahorakin egokia izatea, modu horretara, hesteetan, ahoraturiko kaltzioaren xurgapen handiagoa izan dezaten.

**Kolesterolari** dagokionez, emakume eta gizonek gehiegizko kontsumoa azaltzen dute. Kolesterol, batez ere, gazteek asko kontsumitzen dituzten animali jatorriko eta elikagai prozesatuetan aurkitzen da. Hala ere, aipatzeko da gizonek emakumeek baino kolesterol gehiago kontsumitzen dutela ( $p < 0,001$ ). Gizonezkoen % 86,8a eta emakumeen % 64,3a dira gomendaturiko baino kolesterol gehiago kontsumitzen dutenak. Hala ere, kontsumoaren bataz bestekoa altua izanik, desbiderapen estandarra ere altua izan da. Hau honela, gizon batzuk aholkaturiko kolesterol ahoratzen duten bitartean, beste batzuk gomendioa alde handiz gainditzen dute eta honek hezurrean gain, gorputz-sistema desberdinietan ondorio larriak eragin ditzake.

Beste alde batetik, dietaren profil lipidikoaren analisiaren bitartez, parte-hartzaleen dieta hiperlipidikoaren barruan aurkitzen diren gantz mota desberdinak aztertu dira (4.5. Taula). Emakume eta gizon parte-hartzaleek gantz-azido asegabeak, monoasegabeak eta polasegabeak zer proportzioetan ahoratzen dituzten definituz.

#### 4.5. Taula. Emakume eta gizonen profil lipidikoa.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Gomendioa<sup>a</sup></b>
	<b>Bb ± de</b>	<b>Bb ± de</b>	
<b>GAA (%)</b>	12,3 ± 2,8	12,7 ± 2,5	< 7-8
<b>GAM (%)</b>	18,5 ± 3,5	18,7 ± 3,4	20
<b>GAP (%)</b>	5,26 ± 1,0	5,37 ± 1,4	5
<b>ω<sub>3</sub> (g)</b>	0,70 ± 0,2	0,73 ± 0,3	
<b>ω<sub>6</sub> (g)</b>	4,40 ± 0,9	4,45 ± 1,2	
<b>GAP/GAA</b>	0,46 ± 0,2	0,44 ± 0,2	> 0,5
<b>(GAP+GAM)/GAA</b>	2,02 ± 0,5	1,95 ± 0,4	> 2

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra. GAA: Gantz-azido asegabeak.

GAM: Gantz-azido monoasegabeak. GAP: Gantz-azido poliasegabeak. ω3: Omega 3.

ω6: Omega 6.

<sup>a</sup> SENcek gomendaturiko ahorakina (2016).

Student t eta Mann Whitney U

Emakumeek eta gizonen dietaren profil lipidikoa antzekoa izan da. **GAA**en (gantz-azido asegabeen) ahoratze portzentaje altua dute ikerketan parte-hartu duten emakume bai gizonek. **GAM**en (gantz-azido monoasegabeen) ahoratzea ordea ez da gomendaturikoetara iristen. **GAP**en (gantz-azido poliasegabeen) ahorakina gomendioak betetzen dituen gantz-azido mota bakarra izan da. GAAekiko parte-hartzaileek ahoraturiko GAPen proportzioa aholkaturikoa baino baxuagoa izan da. Emakumeetan, nahiz eta GAPek GAAekiko duten proportzioa gomendaturiko balioetara ez iritsi, (GAP + GAM) / GAA proportzio egokia aurkezten dute. Gizonetan ordea, (GAP + GAM) / GAA proportzioa ere ez da gomendio minimoetara iristen. Gazteek elikagaien kontsumoaren lehentasuna izan daiteke emaitza hauen arrazoia. GAAetan aberatsak diren gurina duten elikagaiak, *snack* eta aurrez prestatutako jakiak gazteek sarritan kontsumitzen dituzte. GAMak, dituzten oliba olia edo fruitu lehorren ahoratzea aldiz, ez dago oso hedatua unibertsitate ikasleen artean (Zarrazquin, 2012).

Datu hauek, unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketetan azaltzen diren emaitzakin bat datoaz (Irazusta eta lank., 2006; Zarrazquin, 2012). Aldiz, 19 - 30

urte bitarteko populazio orokor batekin alderatuz, unibertsitateko ikasleek azaldutako GAA, GAM eta GAP ahorakina altuagoa da (Aguirre-Jaime eta lank., 2008). Hau honela, emakume eta gizon parte-hartzaleek aurkeztutako profil nutrizionalak hainbat ikerketetan azaltzen diren datuekin bat dato (AVENA ikerketa, 2009; SUN ikerketa 2010, HELENA ikerketa, 2010; PREDIMED ikerketa, 2010). Profil hauek ez dira osasun erakundeek gomendaturiko profil nutrizionalak. Osasunean izan ditzaketen eraginik nabarmenatarikoak, gantz-metaketa areagotzeko joera eta obesitatea pairatzeko arriskua dira eta hortaz, hezur-osasunean eragina izan dezakete (Weaver eta lank., 2016).

### **■ Mikromantenugaiak**

Mikromantenugaiak aztertzerako orduan bi talde bereizten dira; bitaminak eta mineralak. Mineralen barnean elektrolitoak ere azterzen dira. Mikromantenugaien ahoratzearen analisia egiterako orduan, behar minimoak asetzeko gomendaturiko ahoratzeak ere izan dira kontuan.

#### **❖ Bitaminak**

Bitaminak disolbagarritasunaren arabera bi azpitaldetan sailkatzen dira.

#### ***Bitamina hidrosolugarriak***

Emakume eta gizon parte-hartzailen bitamina hidrosolugarrien ahoratzeak aztertu dira (4.6. Taula). Azido folikoaren ahoratzea izan ezik, beste bitamina guztiak, SENCek (SENC, 2016) emandako gomendioak asetzenean dituzte.

**4.6. Taula.** Emakume eta gizonen bitamina hidrosolugarrien ahorakina.

	Emakumeak		Gizonak	
	Ahorakina Bb ± de	Gomendioa <sup>a</sup>	Ahorakina Bb ± de	Gomendioa <sup>a</sup>
<b>Tiamina</b> (mg/egun)	1,54 ± 0,5	1,1	1,81 ± 0,6*	1,2
<b>Erriboflabina</b> (mg/egun)	1,80 ± 0,6	1,1	2,21 ± 0,8***	1,3
<b>Niazina</b> (mg/egun)	38,3 ± 9,6	14	47,9 ± 12****	16
<b>Az. Askorbiko</b> (mg/egun)	180 ± 95	75	201 ± 105	90
<b>Az. Folikoa</b> (μg/egun)	332 ± 109	400	383 ± 127	400
<b>B<sub>6</sub> bitamina</b> (mg/egun)	2,34 ± 0,7	1,1	2,81 ± 0,9***	1,3
<b>B<sub>12</sub> bitamina</b> (μg/egun)	5,17 ± 1,9	2,4	7,93 ± 6****	2,4

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra. Az. Askorbikoa: Azido Askorbikoa. Az. Folikoa: Azido Folikoa.

<sup>a</sup> SENCeK gomendaturikoa ahorakina (2016).

Student t eta Mann Whitney U\* p < 0,05; \*\*\* p < 0,005, \*\*\*\* p < 0,001

**Tiamina** edo B<sub>1</sub> bitaminaren ahoratzea, nahiz eta bai emakume bai gizonetan egokia izan, gizonen ahoratzea emakumeena baino handiagoa ( $p = 0,013$ ) izan da. Unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketetan, gizonek ahoratze altuagoa aurkeztu dute ere (Zarrazquin, 2012; Durán-Aguero, Reyes-García eta Gaete, 2013; Correa-Rodríguez eta lank., 2018). Emakumeen kasuan berriz, denetariko emaitzak daude; ikerketa batzuetan ahoratze altuagoak (Durán-Aguero, Reyes-García eta Gaete, 2013) eta beste batzuetan baxuagoak (Zarrazquin, 2012; Correa-Rodríguez eta lank., 2018) azaltzen dira. Bestalde, 18 – 24 urte bitarteko populazio orokor baten tiamina ahoratzea, ikerketa honetan azaltzen dena baino baxuagoa da bai emakume bai gizonen kasuan (ENIDE, 2011). Haragi, arroz eta pasta produktuetan dagoen bitamina izanik, agian, elikagai hauek kontsumitzeko joera izan daiteke gizonek, emakumeek baino ahorakin gehiago izanaren arrazoia.

**Erriboflabina** ahoratzea ere, gomendaturiko ahoratze minimoa baino altuagoa izan da bai emakume bai gizonetan Hala ere, emakumeek gizonek baino erriboflabina edo B<sub>2</sub> bitamina gutxiago ahoratzen dute ( $p = 0,002$ ). Desberdintasun hau, unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketetan ere azaldu da (Durán-Aguero, Reyes-García eta Gaete, 2013). Baino badira bestalde, beste ikerketa batzuk zeinetan unibertsitate ikasleek, erriboflabina-ahorakin baxuagoak (Szczuko, Gutowska eta Seidler, 2015) edota altuagoak (Zarrazquin, 2012; Correa-Rodríguez eta lank., 2018) azaltzen dituztenak. Haragia, arrautzak eta esnekiak erriboflabinetan aberatsak diren elikagaiak dira eta gazteek, hauek kontsumitzeko joera eta ahoratzea altua dute (Pérez-Rodrigo eta lank., 2015; Pérez-Rodrigo eta lank., 2017).

**Azido askorbikoa** edo C bitaminaren ahorakina, gomendaturikoa baino altuagoa izan da ikerketa honetako parte-hartzaleetan. Antzerako ikerketetan ere, emakume eta gizonek azido askorbiko-ahorakin altuak aurkeztu dituzte (Zarrazquin, 2012; Durán-Aguero, Reyes-García eta Gaete, 2013; Szczuko, Gutowska eta Seidler, 2015; Correa-Rodríguez eta lank., 2018). Kolagenoaren sintensian eta elikagaietako burdin mineralaren xurgapenean parte-hartzen duen bitamina honen ahoratze handiaren arrazoietako bat, gazteek laranja fruituaren aurrean aurkezten duten lehentasuna izan daiteke (Pérez-Rodrigo eta lank., 2003). Izan ere, elikagai baten aurrean agertutako lehentasuna, honen kontsumoarekin erlazionatu daiteke eta laranjak, limoi eta kiwiarekin batera, azido askorbikoan aberatsak dira.

**Azido folikoaren** edo B<sub>9</sub> bitaminaren batazbesteko ahoratzea gomendioen azpitik dagoen bitamina hidrosolugarri bakarra da. Unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketetan ere, gomendaturikoa baino ahoratze baxuagoak aurkitu dira (Irazusta eta lank., 2006; Aguirre-Jaime eta lank., 2008; Zarrazquin, 2012). Barazki berdeetan, lekaleetan eta fruitu lehorretan dagoen bitamina da eta normalean, hauek, gutxi kontsumitzen dituzte gazteek.

**B<sub>6</sub> bitamina** edo piridoxina ahorakina, gomendaturiko ahoratze minimoa baino altuagoa izan da bai emakume bai gizonetan. Beste bitamina hidrosolugarrietan bezala, emakumeek gizonek baino ahorakin txikiagoa aurkezten dute ( $p = 0,003$ ). **B<sub>12</sub> bitamina**-ahorakina ere gomendioek diotena baino altuagoa da nahiz eta emakume eta gizonen arteko kontsumoa desberdina izan ( $p < 0,001$ ). Ikerketa honetako datuak unibertsitate ikasleetan eta 18 – 24 urte bitarteko biztanleria orokorrean egindako beste ikerketetan azaltzen direnak baino baxuagoak dira (ENIDE, 2011; Zarrazquin, 2012; Durán-Aguero, Reyes-García eta Gaete, 2013; Szczuko, Gutowska eta Seidler, 2015; Correa-Rodríguez eta lank., 2018). Unibertsitateko ikasleek animali jatorriko elikagaiak; haragi, arrautzak eta esneki asko kontsumitzen dituzte eta hauek B<sub>6</sub> eta B<sub>12</sub> bitaminetan aberatsak diren elikagaiak dira (García-Meseguer eta lank., 2014; De Piero eta lank., 2015).

Bitamina bakoitzaren ahorakin absolutua zenbatekoa den ezagutzeaz gain, garrantzitsua da gomendaturiko ahorakin minimoa ahoratzen ez dutenen kopurua jakitea. Bitamina-ahorakinen gabezia aztertzeko, bitamina hidrosolugarrien EARak asetzten ez dituzten parte-hartzaleen portzentajeak aztertu dira (4.7. Taula).

**4.7. Taula.** Bitamina hidrosolugarrien EARak asetzten ez dituzten emakume eta gizonak.

	<b>Emakumeak</b>		<b>Gizonak</b>	
	<b>%</b>	<b>EAR</b>	<b>%</b>	<b>EAR</b>
<b>Tiamina</b> (mg/egun)	5	0,9	6	1
<b>Az. Askorbiko</b> (mg/egun)	7	60	12	75
<b>Az. Foliko</b> ( $\mu$ g/egun)	50	320	32	320
<b>B<sub>12</sub> bitamina</b> ( $\mu$ g/egun)	1	2	0	2

EAR: Estimated Average Requirement.

Bitamina hidrosolugarrien artean, emakumeen % 50ak eta gizonen % 32ak **azido folikoaren** ahorakin eskasa aurkezten dute. Aipatzeko da ere, nahiz eta beste

bitamina hidrosolugarrien batez besteko kontsumoa gomendaturikoa baino altuagoa izan bai gizon bai emakumeetan (4.6. Taula), **azido askorbikoaren** kasuan, emakumeen % 7ak eta gizonen % 12ak ez dituztela EARk asetzten. **Tiaminaren** kasuan ordea, emakumeen % 5a eta gizonen % 6 dira EAR baino ahorakin baxuagoak dituztenak. **B<sub>12</sub> bitamina** ahoratzea emakumeen % 1ean bakarrik ez da gomendio minimoetara iristen. Bestelako bitamina hidrosolugarriean ez da gabezirik aurkitu. Unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketen datuekin alderatuz, ikerketa honetako bitamina hidrosolugarrien EAR betetzen ez dituztenen portzentajeak baxuagoak izan dira (Morimoto, Marchioni eta Fisberg, 2006; Kobayashi eta lank., 2017).

### ***Bitamina liposolugarriak***

Bitamina liposolugarrien ahoratzeak ere aztertu dira (4.8. Taula). Nahiz eta A eta K bitamin ahorakinen gomendioak (SENC, 2016) desberdinak izan emakume eta gizonentzat, bitamina liposolugarri hauen batazbesteko ahorakinak egokiak izan dira ikerketa honetako parte-hartzaileetan. D eta E bitaminen kasuan aldiz, emakume eta gizonek ahoratze gomendioak berdinak izan arren, parte-hartzaileek ez dituzte ahoratze minimoak asetu.

**4.8. Taula.** Emakume eta gizonen bitamina liposolugarrien ahorakina.

	Emakumeak		Gizonak	
	Ahorakina Bb ± de	Gomendioa <sup>a</sup>	Ahorakina Bb ± de	Gomendioa <sup>a</sup>
<b>A bitamina</b> (μg/egun)	948 ± 413	700	1308 ± 1388	900
<b>D bitamina</b> (μg/egun)	3,09 ± 2,2	5	3,87 ± 2,1*	5
<b>E bitamina</b> (mg/egun)	9,04 ± 2,5	15	11,4 ± 4,0***	15
<b>K bitamina</b> (μg/egun)	151 ± 70	90	154 ± 100	120

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra.

<sup>a</sup> SENCeik gomendaturiko ahorakina(2016).

Student t eta Mann Whitney U \* p < 0,05; \*\*\* p < 0,005

**A bitamina** ahorakina gomendaturikoa baino altuagoa izan da bai emakume bai gizonetan. **K bitamina** ahorakinean ere, gauza bera azaltzen da. Unibertsitate ikasleetan edota adin tarte berdineko populazio orokorrean egindako beste ikerketetan, parte-hartzaileek, gomendaturikoa baino ahorakin altuagoa dute (Laleye eta lank., 2011; Zarrazquin, 2012; Durán-Aguero, Reyes-García eta Gaete, 2013; Correa-Rodríguez eta lank., 2018; Tsujiguchi eta lank., 2018).

**D bitaminaren** ahoratzea, ikerketa honetako emakume eta gizon parte-hartzaileetan, unibertsitate ikasleetan egindako beste hainbat ikerketetan bezala, ez dituzte behar izan minimoak asetzten (Zarrazquin, 2012; Correa-Rodríguez eta lank., 2018). Hala ere, gizonek, emakumeek baino D bitamin-ahorakin handiagoa aurkezten dute ( $p = 0,021$ ). D bitamina baxua izatea, hezur- eta gihar-galerarekin erlazionaturik dago (Bruyère, Cavalier eta Reginster, 2017). D bitaminak, kaltzio xurgapenean eta hezur eta giharraren arteko seinaleztapen gurutzatuan parte-hartzen duten hormonen modulazioan eragina du eta hortaz, hezur- eta gihar-osasunarekin erlazionaturik dagoela adierazten duten ikerketak badira (Girgis, Baldock eta Downes 2015; Bouillon eta lank., 2018). Esneki, arrain eta itsaskietan D bitamina kantitate handiak daude baina hauek, unibertsitateko ikasleek gutxi kontsumitzen dituzten elikagaiak dira.

**E bitaminari** dagokionez ere, ez dira gomendioak betetzen. Hala ere, gizonen ahorakina emakumeena baino handiagoa izan da ( $p = 0,001$ ). Emaitza hauek beste ikerketetan azaltzen direnkin bat datozen (Zarrazquin, 2012; Durán-Aguero, Reyes-García eta Gaete, 2013). Landare jatorriko olioetan, fruitu lehorretan eta barazki berdeetan ugari dagoen bitamina da eta normalean, gazteek ez dituzte elikagai hauek asko kontsumitzen.

Bitamina hidrosolugarrietan bezala, liposolugarriak direnen artean ere, gomendio minimoak, EARak, ahoratzen ez dituzten parte-hartzaileak aztertu dira (4.9. Taula). Gaur egun, ez dago K bitaminaren EAR finkatzeko haina daturik eta hortaz, ezin izan da bitamina hau ikuspuntu honetatik aztertu.

**4.9. Taula.** Bitamina liposolugarrien EARak asetzen ez dituzten emakume eta gizonak.

	<b>Emakumeak</b>		<b>Gizonak</b>	
	<b>%</b>	<b>EAR</b>	<b>%</b>	<b>EAR</b>
<b>A bitamina</b> ( $\mu\text{g}/\text{egun}$ )	12	500	17	625
<b>D bitamina</b> ( $\mu\text{g}/\text{egun}$ )	79	5	74	5
<b>E bitamina</b> ( $\mu\text{g}/\text{egun}$ )	87	12	72	12

EAR: *Estimated Average Requirement*.

**A bitaminaren** batez besteko kontsumoa gomendaturikoa baino altuagoa izan da baina emakumeen % 12ak eta gizonen % 17ak ahorakin eskasa dute. Unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketetan, A bitamina gabezia dutenen portzentaje altuagoak azaltzen dira (Morimoto, Marchioni eta Fisberg, 2006; Vargas-Zárate, Becerra-Bulla eta Prieto-Suárez, 2010; Kobayashi eta lank., 2017). **D bitaminaren** kasuan, emakumeen % 79ak eta gizonen % 74ak ez dituzte EARk asetzen. Aipatu bezala, D bitamina, hezur- eta gihar-osasunean garrantzi handia duen mikromantenugaia da. Hortaz, kontuan hartu beharrekoa da ahorakin minimoa betetzen ez duten parte-hartzailee kopurua hain handia izana. **E bitaminaren** kasuan, emakumeen portzentajea % 87 eta gizonena % 72 izan dira. Oso portzentaje altuak dira hauek baina bada D eta E bitaminen EAR portzentaje altuagoak aurkezten ez dituzten antzerako ikerketarik (Zarrazquin, 2012).

Bitamina liposolugarrieta, gomendaturiko ahorakina ez kontsumitzeaz gain, parte-hartzaile gehienek ez dituzte ahoratze minimoak betetzen. Hauek kontuan izan beharreko emaitzak dira, izan ere, bitamina hauen ahoratzea, hezur-osasun hobearrekin erlazionaturik eta, osasun egoera egoki bat mantentzeko beharrezkoak izateagatik (Sathe eta Patel, 2010)

#### ❖ Mineral eta elektrolitoak

Parte-hartzaileen mineral eta elektrolito ahoratzeak ere aztertu dira (4.10. Taula).

**4.10. Taula.** Mineral eta elektrolito ahorakina emakume eta gizonetan.

	Emakumeak		Gizonak	
	Ahorakina Bb ± de	Gomendioa <sup>a</sup>	Ahorakina Bb ± de	Gomendioa <sup>a</sup>
<b>Kaltzioa</b> (μg/egun)	815 ± 206	1000	1018 ± 348****	1000
<b>Burdina</b> (μg/egun)	15,7 ± 4,7	18	17,7 ± 5,5***	8
<b>Iodoa</b> (mg/egun)	96,4 ± 34	150	117 ± 39***	150
<b>Potasioa</b> (mg/egun)	3053 ± 709	4700	3518 ± 989***	4700
<b>Zinka</b> (μg/egun)	9,68 ± 2,4	8	11,84 ± 3,7****	11
<b>Magnesio</b> (mg/egun)	306 ± 81	310	554 ± 112***	400
<b>Sodioa</b> (mg/egun)	2900 ± 1023	1500	3439 ± 1023****	1500
<b>Fosforoa</b> (mg/egun)	1377 ± 303	700	1679 ± 445****	700
<b>Kloroa</b> (mg/egun)	2946 ± 840	2300	3541 ± 994****	2300

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra.

<sup>a</sup> SENC-ek (2016) gomendaturiko ahorakina.

Student t eta Mann Whitney U \*\*\* p < 0,005, \*\*\*\* p < 0,001

**Kaltzio** ahorakina desberdina da emakume eta gizonen kasuan ( $p < 0,001$ ). Gizonek gomendioak asetzen dituzten bitartean, emakumeek kaltzio gutxiago kontsumitzen dute. Osteoporosia, emakumeek, gizonek baino pairatzen dutela erreparatuz, honako hau kontuan hartu beharreko datua da. Izan ere, kaltzioa hezur-eraketa, garapen eta mantentzean berebiziko garrantzia du eta honen eskasiak, besteak beste errakitismoa, hazkuntza arazoak eta osteoporosia eragin dezake. Beste ikerketa batzuetan ere, kaltzio kontsumoa gomendaturikoa baino baxuagoa izan da emakumeetan (Durán-Aguero, Reyes-García eta Gaete, 2013; Barker, Blain eta Russell, 2015; Correa-Rodríguez eta lank., 2018). Izan ere, unibertsitate ikasleen artean, kaltzioan aberatsak diren elikagaien, hala nola esneki eta fruitu lehorren kontsumo baxua da (De Piero eta lank., 2015).

**Burdinaren** kasuan, emakume eta gizonen datuak desberdinak dira ( $p = 0,019$ ). Gizonen ahoratzeak gomendioak betetzen dituen bitartean, emakumeak ez dira gomendaturiko ahoratzera iristen. Kontuan hartu beharrekoa da emakumeentzako gomendioa 18  $\mu\text{g}/\text{egun}$  den bitartean, gizonena 8  $\mu\text{g}/\text{egun}$  dela. Burdinaren ahorapen desegokiagatik eta burdinak duen biodisponibilitate baxuagatik gertatzen dira anemia ferropenikoaren kasu gehienak; batez ere emakumeetan (Alzaheb eta Al-Amer, 2017). Fruitu lehorrak, haragia eta itsaskiak, burdinean aberatsak diren elikagaiak dira.

**Iodoari** dagokionez, emakume eta gizonen arteko ahoratzea desberdina izan da ( $p = 0,002$ ). **Potasio** ere, emakumeek gizonek baino gutxiago kontsumitzen duten minerala da ( $p = 0,004$ ). Mineral hauen ahoratzea gomendaturikoa baino baxuagoa izan da ere unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketetan (Zarrazquin, 2012; Correa-Rodríguez eta lank., 2018). Arrainak, esnekiak, barazkiak eta frutek iodoa eta potasioan aberatsak diren elikagaiak dira baina hauen kontsumoa ez dago oso edatua unibertsitate gazteen artean (Zarrazquin, 2012).

**Zink** eta **magnesioaren** ahoratze gomendioak desberdinak dira emakume eta gizonentzat. Hala ere, zinkaren kasuan nahiz eta emakume eta gizonen arteko kontsumoa desberdina izan ( $p < 0,001$ ), gomendioak biek asetzan dituzte. Magnesioaren kasuan aldiz, emakumeen ahoratzea, gizonena baino baxuagoa da ( $p = 0,004$ ) eta ez dute gomendaturiko adina magnesio kontsumitzen. Unibertsitate ikasle populazioan eta 18-24 urte bitarteko populazio orokorrean egindako ikerketetan, ahoratze baxuagoak izan arren, joera berdina duten emaitzak azaltzen dira (Morimoto, Marchioni, eta Fisberg, 2006; Zarrazquin, 2012; Durán-Aguero, Reyes-García eta Gaete, 2013; Correa-Rodríguez eta lank., 2018).

Hala ere, badira bai emakume eta gizonek gomendaturikoa baino kantitate altuagoan kontsumitzen dituzten mineral eta elektrolitoak ere; fosforoa, sodioa eta kloroa hain zuzen.

**Sodioari** dagokionez, nahiz eta emakume eta gizonen arteko kontsumoa desberdina izan ( $p < 0,001$ ), gomendaturiko baino ahorakin altuagoa dute. Emakume eta

gizonen arteko desberdintasunak *fosforo* ( $p < 0,001$ ) eta *kloro* ( $p < 0,001$ ) ahorakinan agertu dira ere; hauen kontsumoa gomendaturikoak baino altuagoa izanik. Antzeko ikerketetan azaltzen diren emaitzak ere joera berdina aurkezten dute (Zarrazquin, 2012; Correa-Rodríguez eta lank., 2018). Sodio-ahorakin maila altua izatearen arrazoia, parte-hartzaileek kontsumituriko elikagai motak dira. Izan ere, gaur egun, gero eta gehiago kontsumitzen dira gatz sodikoa gehigarri moduan erabiltzen dituzte freskagarri, *snack* eta *fast food*-ak. Beste alde batetik, fosforoa unibertsitate gazteetan kontsumoa nahiko edatua dagoen haragi eta edari karbonataduetan aurkitzen da. Baino fosfora ere, arrain eta fruitu lehorretan aurkitzen den mikromantenugaia da. Hezurra, kaltzio fosforoaz osaturik dagoela kontuan izanik, fosforoa, ezinbesteko da. hezur-homeostasiaren mantentzean du eta hezur-mineralizazioa egokia izateko.

Mineral eta elektrolitoen ahorakinak banaka aztertu diren arren, garrantzitsua da defizita zenbat parte-hartzailek duten zehaztea. Gomendioen azpitik dauden mineral eta elektrolitoen EARak asetzten ez dituzten emakume eta gizon parte-hartzaileen portzentajeak aztertu dira (4.11. Taula).

**4.11. Taula.** Mineral eta elektroli desberdinaren EARak asetzten ez dituzten emakume eta gizonak.

	Emakumeak		Gizonak	
	%	EAR	%	EAR
<b>Kaltzioa</b> ( $\mu\text{g/egun}$ )	9,5	540	32,1	840
<b>Burdina</b> ( $\mu\text{g/egun}$ )	0	8	0	6
<b>Iodoa</b> (mg/egun)	63,1	100	41,5	100
<b>Zink</b> ( $\mu\text{g/egun}$ )	10,7	6,5	67,9	12
<b>Magnesioa</b> (mg/egun)	29,8	255	41,5	330
<b>Potasioa</b> (mg/egun)	0	580	0	580

EAR: *Estimated Average Requirement*.

## **Emaitzak eta Eztabaida**

---

Mineral eta elektrolitoen ahoratze minimoak ez dira parte-hartzale guztietan asetzan. Gizonen % 32,1ak ez du kaltzio-ahorakin minimoa kontsumitzen eta % 67,9 eta % 41,5ak hain zuzen, zink eta magnesio-ahorakin eskasa dute. Emakumeetan aldiz, aipatzeko da % 63,1ak ez dela gomendaturiko iodo-ahorakin minimora iristen. Bestalde, % 29,8a da magnesio kontsumo minimoa betetzen ez duena. Aipatu bezala, mikromantenugai hauek hezurrarekin duten erlazioa kontuan izanik, gazteek, mineral eta elektrolito hauekiko aurkeztu ditzuzten ahoratze baxuen aurrean arreta izan beharra dago.

#### 4.1.4. Jarduera fisikoa

Partaide bakoitzak gaur egun egiten duen jarduera fisikoa eta aurkezten duen jokabide sedentarioa, azelerometroaren bitartez modu objektibo batean neurtu dira. Azelerometroekin besteak beste, eguneko batezbesteko pausoak, egoneko jarrera eta jarduera fisikoaren intentsitateak aztertu dira (4.12. Taula).

**4.12. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaileen azelerometria datuak.

	Emakumeak Bb ± de	Gizonak Bb ± de	Guztiak Bb ± de
<b>Pausoak/egun</b>	9339 ± 2752	9196 ± 2734	9284 ± 2735
<b>MET/egun</b>	0,20 ± 0,04	0,22 ± 0,04	0,21 ± 0,04
<b>Egoneko jarrera</b> (min/egun)	403 ± 128	408 ± 85	405 ± 113
<b>JF arina</b> (min/egun)	791 ± 129	775 ± 76	785 ± 112
<b>JF neurrizkoa</b> (min/egun)	57,2 ± 19	57,7 ± 17	57,4 ± 18
<b>JF kementsua</b> (min/egun)	8,90 ± 8,9	10,2 ± 9,2	9,38 ± 9,0
<b>JF oso kementsua</b> (min/egun)	1,59 ± 4,0	2,22 ± 2,9	1,83 ± 3,7
<b>JFNK</b> (min/egun)	67,7 ± 25	70 ± 24	68,6 ± 25

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra. MET: *Metabolic equivalent of task*.

JF: Jarduera fisiko. JFNK: Jarduera fisiko neurrizkoa eta kementsua.

Student t eta Mann Whitney U

Ikerketa honetan parte-hartu duten emakume eta gizonek egin duten jarduera fisikoaren artean, nahiz eta esanguratsuak ez izan, ez izan, badira ezberdintasunak. Aipatzekoa da ez gizonek ezta emakumeek ere ez, ez dituztela Munduko Osasun Erakundeak egunean gomendaturiko 10000 pausoak ematen. Hala ere, ikerketa honetako parte-hartzaileak, unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketa batzuekin alderatuz, eguneko pauso gutxiago ematen dituzten arren, bai emakume bai gizonak, intentsitate maila kementsu eta oso kementsu altuagoan aritzen dira (Clemente eta lank., 2016; Rodríguez-Rodríguez eta lank., 2018). Hala ere, Munduko Osasun Erakundeak astean gutxienez 150 minutuz edo, osasunean eragin onuragarriak areagotzeko, 300 minutuz, neurrizko intentsitateak egitea gomendatu egiten du eta parte-hartzaileek gomendio honen gainetik daude.

Erabilitako azelerometroak triaxialak izan dira eta horrek mugimendu bakoitzeko azelerazioa zein ardatzetan gertatu den aztertzeko aukera eman du. Parte-hartzaileek egindako jarduera fisikoaren mugimenduak ardatz bertikalarekiko (Y), horizontalarekiko (X) eta zeharkakoarekiko (Z) zer nolakoak izan diren aztertu dira (4.13. Taula).

**4.13. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaileek, hiru ardatzekiko egindako mugimenduak.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>Bb ± de</b>	<b>Bb ± de</b>	<b>Bb ± de</b>
<b>Y ardatza</b> (cpm)	66,6 ± 26	70,7 ± 26	68,2 ± 26
<b>X ardatza</b> (cpm)	56,3 ± 20	54,7 ± 16	35,7 ± 19
<b>Z ardatza</b> (cpm)	60,5 ± 20	63,4 ± 21	61,6 ± 20

Bb ± de: Batez besteko eta desbideratze estandarra. Cpm: Kontaketak minutuko (*counts per minute*).

Student t

Mugimendu ardatz desberdinei dagokionez, bai emakume bai gizonen kontaketak minutuko gehien Y ardatzean neurtu dira eta gutxien izan duena X ardatza izan da. Hau egunean emandako pauso kopuruarekin lotura du bai emakume ( $R = 0,517$ ,  $p < 0,001$ ) bai gizonetan ( $R = 0,688$ ,  $p < 0,001$ ). Hain zuzen ere, pausoak ematerako orduan X ardatzaren mugimendua handitu egiten da eta emakumeek gizonek baino pauso gehiago ematen dituztenez, emakumeetan gizonetan baino mugimendu handiagoa duen ardatz bakarra X ardatza izatearen arrazoia emandako pauso kopuruan izan daiteke.


#### 4.1.5. EgoeraFisikoa

Atal honetan, parte-hartzaileen egoera-fisikoaren adierazle diren gaitasun aerobikoaren eta anaerobikoaren emaitzak azaltzen dira. Gaitasun aerobikoa, entrenamendu mailaren erakuslea da eta gaitasun anaerobikoa, gorputz-osaerarekin erlazionatzen da. Hala ere, biak dira bizi-ohituren erakusle. Astrand-Rhyming testarekin, gaitasun aerobikoa neurtu egin da eta gihar-indarra eta potentzia, Bosco testa eta froga isozinetiko baten bitartez.

##### ▪Gaitasun aerobikoa

Oxigeno-kontsumo maximoak pertsonen metabolismo aerobikoa erabiliz energia ekoizteko gaitasuna adierazten du. Hortaz, oxigeno-kontsumo maximoaren parametroa, bihotz gastu maximoaren indikatzaile zuzen bat izateaz gain, gaitasun aerobikoaren adierazlea da.

Astrand-Rhyming testaren bidez estimaturiko emakume eta gizon parte-hartzaileen oxigeno kontsumo maximo absolutua eta oxigeno kontsumo erlatiboa aztertu dira (4.4. Grafikoa).



**4.4. Grafika.** Emakume eta gizon parte-hartzaileen oxigeno kontsumo maximoak. VO<sub>2</sub>Max abs.: Oxigeno kontsumo maximo absolutua. VO<sub>2</sub>Max erl.: Oxigeno kontsumo maximo erlatiboa. Student t \*\*\*\* p < 0,001

Astrand testaren bitartez estimatutako oxigeno kontsumo maximo absoluto ( $p < 0,001$ ) eta erlatiboa ( $p = 0,075$ ) gizonengan emakumeengan baino altuagoa da. Beste ikerketetan, emakume eta gizon gazteen gaitasun aerobikoan ezberdintasunak azaltzen dira (Mondal eta Mishra, 2017; Ten Hoor eta lank., 2018) . Emakume parte-hartzaleen gaitasun aerobikoaren balioak Astrand eta bere lankideek, erreferentziaturiko 20 urteko emakumeen oxigeno kontsumo maximoa (2,6 l/min eta 43 ml/kg/min) baino altuagoak dira (Astrand eta lank., 1985). Gizonetan ere, Astrand eta bere lankideek adierazitako batez bestekoa (3,6 l/min eta 54 ml/kg/min) baino balio altuagoak aurkezten dituzte ikerketa hontan parte-hartu duten duten gizonek.

18-21 urte bitarteko gazteetan egindako ikerketa batean ondorioztatu den bezala, nahiz eta egoera fisiko baxua izan, intentsitate maila altua eta entrenamendu aerobikoa lantzen dituen ariketa fisikoak modu egokian bideratuz, gaitasun aerobikoan hobekuntzak eragiten ditu (Khammassi eta lank., 2018). Izan ere, ariketa fisikoak gorputz-osaeran eta pisuan aldaketak eragiten du eta hauek gaitasun aerobikoaren hobekuntzarekin erlazionaturik daude. Adinak, generoak, gorputz osaerak eta beste zenbait faktorek pertsona batek aurkezten duen gaitasun aerobikoarekin lotura dute.

### **▪Gaitasun anaerobikoa**

Gihar-indarra eta potentzia, gaitasun anaerobikoaren adierazleak dira. Alde batetik, Bosco testan, MAJ motatako saltoan egindako indar esplosiboa eta bestetik, balorazio isozinetiko batekin koadrizepseko indar-espezifikoa neurtu dira.

### **❖Bosco testa**

Test honen bitartez, MAJ saltoarekin, zuntzen proportzio altua den beheko gorputz-adarraren indar esplosiboa neurtu da (4.16. Taula).

**4.16. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaleen MAJ saltoaren ezaugarriak.

	Emakumeak	Gizonak	Guztiak
	Bb ± de	Bb ± de	Bb ± de
<b>Altuera</b> (cm)	21,06 ± 4,6	31,91 ± 1,0 ***	25,30 ± 7,4
<b>Hegaldi denbora</b> (s)	0,43 ± 0,2	0,51 ± 0,05 ***	0,46 ± 0,1
<b>Energia espezifikoa</b> (J/kg)	2,06 ± 0,5	3,13 ± 0,6 ***	2,48 ± 0,7

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra. MAJ: Mugimenduauren aurkako jauzia (*counter movement jump* edo CMJ).  
Student t eta Mann Whitney U \*\*\*\* p < 0,001

Gizonek egindako saltoak emakumeenak baino altuagoak dira (p < 0,001). Hori dela eta, hegaldi denbora ere altuagoa izan da gizonetan emakumeetan baino (p < 0,001). Gainera, saltoak egiteko erabilitako energia espezifikoa ere altuagoa izan da gizonetan emakumeetan baino (p < 0,001).

#### ❖ Frogak isozinetikoa

Belaunaren luzapen isozinetikoan koadrizepsaren bidez egindako indarra dinamometro isozinetikoarekin neurtu da. 60º eta 90º-tako frogak kontzentrikoen datuak aztertu dira (4.17. Taula).

## Emaitzak eta Eztabaida

---

**4.17. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaleen 60° eta 90°ko frogak isozenetiko kontzentrikoaren hanka luzapen eta flexioaren parametroak.

Emakumeak			Gizonak			Guztiak			
Luzak.	Flex.	Ratioa	Luzak.	Flex.	Ratioa	Luzak.	Flex.	Ratioa	
Bb ± de	Bb ± de	Bb ± de	Bb ± de	Bb ± de	Bb ± de	Bb ± de	Bb ± de	Bb ± de	
<b>Indarra</b> (Nm)									
60°	114 ± 34	61 ± 15	53 ± 10	174 ± 51 ****	104 ± 22 ****	58 ± 11 *	137 ± 50	77 ± 27	55 ± 11
90°	99 ± 24	58 ± 56	60 ± 56	149 ± 33 ****	88 ± 20 ****	60 ± 12	117 ± 37	69 ± 48	60 ± 45
<b>Lana</b> (W)									
60°	140 ± 33	80 ± 22	57 ± 12	211 ± 42 ****	133 ± 31 ****	63 ± 11 *	166 ± 51	100 ± 36	60 ± 12
90°	124 ± 29	67 ± 16	56 ± 13	183 ± 41 ****	112 ± 27 ****	62 ± 13 **	145 ± 44	84 ± 30	58 ± 13
<b>Potentzia</b> (Nm)									
60°	78 ± 19	45 ± 12	59 ± 12	142 ± 144 ***	77 ± 19 ****	62 ± 14	101 ± 95	57 ± 21	61 ± 13
90°	96 ± 24	54 ± 12	57 ± 12	159 ± 104 ****	90 ± 22 ****	61 ± 15	119 ± 73	67 ± 24	59 ± 14
<b>Indar maximoa</b> (Nm)									
60°	123 ± 31	65 ± 16	53 ± 10	193 ± 46 ****	110 ± 27 ****	58 ± 11 *	149 ± 50	82 ± 31	55 ± 11
90°	154 ± 37	81 ± 18	54 ± 11	233 ± 53 ****	138 ± 33 ****	60 ± 14 ***	183 ± 57	102 ± 37	56 ± 12

Bb ± de: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra. Luzak.: Luzaketa. Flex.: Flexioa.

60° vs 90° frogak parametroak Student t eta Mann Whitney U\* p < 0.05; \*\* p < 0.01; \*\*\* p < 0.005; \*\*\*\* p < 0.001

Bai hankaren luzapenean neurturiko parametroetan baita hankaren flexioa egiterakoan neurtutakoetan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak esanguratsuak izan dira. Hau horrela, flexioaren eta luzapenaren arteko ratioetan ezberdintasunak ere modu adierazgarrian azaltzen dira batik bat 90°ko abiaduran egindako lana ( $p = 0,009$ ) eta indar maximoa ( $p = 0,003$ ).


### 4.1.6. Bestelako bizi-ohiturak

Atal honetan, parte-hartzileen bestelako bizi-ohiturei buruzko informazioa azaltzen da. Galdetegien bitartez, bestelako arrisku faktoreak aztertu ahal izan dira. Ondorengo informazioa, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak adieraziz aurkezten da.

#### ■ Alkohol kontsumoa

Gure gaur egungo gizartean, alkohola era zabalean kontsumitu egiten da egoera sozial eta kulturaletan. Ehun eta organismo askotan, gehiegizko alkohol kontsumoak kalteak eragiten ditu; hezurretan ere eta bigarren mailako osteoporosiaren eragilea da. Hala ere, alkohol kontsumo arinak hezur birmoldaketan, osteozitoen apoptosian eta estres oxidatiboan eragiten duela arguidatzen duten ikerketak badira (Maurel eta lank., 2012).

Hau honela, gazteen alkohol kontsumoak hezur-zurruntasunean duen lotura aztertzeko, parte-hartzailleei, noizbait alkohola kontsumitu ote duten galdetu egin zaie. Gainera, baiezkoen kasuan, kontsumoa lehen aldiz noiz, zenbat urterekin, izan zen adierazi dute (4.5. Grafika).



**4.5. Grafika.** Emakume eta gizon parte-hartzileen alkohol kontsumoaren hastapena.

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak  $\chi^2$

Emakume eta gizonen artean, ez dago ezberdintasun adierazgaririk alkoholaren kontsumoaren hastapenean ( $p = 0,061$ ). Parte-hartzaileen % 97,2 alkohola kontsumitu du noizbait. Hala ere, bada bai emakume bai gizonen portzentaje txiki bat, % 3,4 eta % 1,8-koa hain zuzen, ez duena inoiz alkoholik kontsumitu. Alkohola kontsumitzen dutenen gehiengoak 12-15 urte bitarterekin kontsumitu du lehen aldiz. Hauen portzentajea handiagoa da emakumeen kasuan gizonetan baino. Hau honela, aipatzeko da ere, alkohol kontsumoaren hastapena 16 urte edo gehiagorekin hasitako emakumeen portzentajea % 9,2ko den bitartean, gizonetan % 25,5ko del. Badira ere 11 urte baino gutxiagorekin alkohola kontsumitzen hasitakoak. Parte-hartzaile hauen artean, emakumeen portzentajea gizonena baino txikiagoa da.

Estatu mailan, Estadistika Instituto Nazionalak egindako azken datu analizien arabera (OEDA eta DGPNSD, 2017), 15-24 urte bitarteko gazteen % 87,5ak noizbait alkohola kontsumitu du. Ikerketa hontan, agian parte-hartzaileen adin tarta 18-21 urte bitarte izanarekin erlazionaturik, portzentaje hori % 97,2koia izatera iristen da. Bestalde, estatu mailan, alkohol kontsumoa 16,6 urterekin hasten den bitartean, adierazgarria da ikerketa hontan alkohol hastapena 16 urte baino lehenagorekin hasi izana.

Alkohol kontsumoa aztertzeko orduan, kontsumo-patroia aintzat hartu beharreko faktorea da. Izan ere, gazteen gehiegizko alkohol kontsumoa *binge drinking* bezala ezagutzen den kontsumo-patroi zehatzarekin erlazionatu egiten da. Azkeneko 30 egunetan, aldi batez (arratsalde/gau batean) gizonek  $\geq 5$  eta emakumeek  $\geq 4$  alkoholdun edari estandar ahoratze kontsumo-patroiari *binge drinking* deritzo (Valencia-Martin, Galan eta Rodriguez-Artaleko, 2009).

Azkenengo hilabetean zehar, astero bataz beste kontsumituriko alkohola kontuan izanda, parte-hartzaileen kontsumo-patroien portzentajeak aztertu dira (4.18. Taula).

**4.18. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaleen alkohol kontsumo-patroia.

	Noiz	Ezer	Arina-Neurritsua	Binge drinking
		%	%	%
<b>Emakumeak</b>	Astegun	35	61,3	3,7
	Asteburu	8,9	63,3	27,8
<b>Gizonak</b>	Asteagun	34,7	61,2	4,1
	Asteburu	6,2	62,5	31,3


*Binge drinking:* Emakumeetan  $\geq 4$  eta gizonetan  $\geq 5$  alkoholdun edari estandar.

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak  $\chi^2$

Parte-hartu duten gazteek, alkohola batez ere asteburueta kontsumitzen dute. Astean zehar emakume parte-hartzaleen % 65ak eta gizonen % 65,3ak alkohola kontsumitzen du eta asteburueta portzentaje horiek gora egiten dute bai emakumeetan % 91,1 baita gizonetan % 93,8 ere. Emakumeetan, alkohol kontsumoa-patroi arina-moderatua da nagusi baina aipatzeko da asteburueta, % 27,8ak *binge drinking* bezalako kontsumo-patroia aurkezten duela. Gizonetan era berdinean, arina-moderatua kontsumo-patroia nagusi izanda, asteburuuan % 31,3a da *binge drinking* kontsumo patroia jarraitzen duena. Hala ere, *binge drinking* kontsumo portzentaje hauek baino altuagoak azaltzen dituzten ikerketak badira. Hala nola, unibertsitate ikasleetan egindako beste ikerketa batean, emakumeen % 56,1ak *binge drinking* kontsumo patroia jarraitzen duen bitartean, gizonetan, portzentajea apur bat baxuagoa da % 41,3 (Varela-Mato eta lank., 2012).

■ **Tabako kontsumoa**

Tabako kontsumoak sistema muskuloeskeletikoan eragiten duela ikusi da. Tabakoaren kontsumoa, gihar, tendoi, kartilago eta loturekin gain, hezur-osasunarekin ere, modu negatiboan, erlazionaturik dagoela ikusi da (Al-Bashaireh eta lank., 2018). Hori dela eta, parte-hartzaleen tabako kontsumoa aztertu da, (4.6. Grafika).



**4.6. Grafika.** Noizbait edo gaur egun tabakoa kontsumitu dutenen portzentajeak.

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak  $\chi^2$

Tabakoa kontsumitu duten parte-hartzaileen portzentajea, antzekoa da emakume eta gizonen artean baina hala ere, gizon baino emakume gehiago dira noizbait tabakoa kontsumitu dutenak. Datu hauek beste estatu mailan egindako azken estadistika analiziekin alderatuz, ikerketa honetan parte-hartu dutenen tabako kontsumoa baxua izan da. Izan ere, Estadistica Instituto Nazionaleko azken txostenaren arabera, 15–24 urte bitarteko gazteen % 57,4ak noizbait tabakoa kontsumitu egin du. Kasu honetan ere, gizonen kontsumoa (% 60), emakumeena baino handiagoa izan da (% 54,7).

#### ■ Tratamendu farmakologikoak

Tratamendu farmakologikoak osteoporosi sekundarioaren eragilerik nabarmenenak izan daitezke. Hainbat dira mekanismo desberdinak bitartez, eskeletoan efektu kaltegarriak eragiten dituzten farmakoak; retrobiralak, glukokortikoideak, tratamendu hormonalak, antikoagulatzailak, antiepileptikoak... (N’Guyen eta lank., 2018). Hau kontuan izanik, ikerketa honetan, parte-hartzaileen tratamendu farmakologikoak 2 talde farmakologikoen arabera aztertu dira; glukokortikoidedun tratamenduak eta tratamendu hormonalak.

Hezurrarekin negatiboli erlazionatu egiten diren tratamendu farmakologikoen artean, **glukokortikoide tratamendua** da ezagunena. Besteak beste, asma eta alergia tratamenduetan ahoraturiko tratamendu hauen efekto iatrogeniko ezagunetako da bigarren mailako osteoporosiaren garapena (Buehring eta lank., 2013). Hau honela, hormona glukokortikoidedun tratamendua hartu duten parte-hartzaileen portzentajeak aztertu dira (4.19. Taula).

**4.19. Taula.** Noizbait glukokortikoide tratamenduren bat jaso duten emakume eta gizon parte-hartzaileak.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>%</b>	<b>%</b>	<b>%</b>
<b>Bai</b>	14,9	14,5	14,8
<b>Ez</b>	85,1	85,5	85,2

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak  $\chi^2$

Ikerketa honetako parte-hartzaileen % 85,2ak ez du glukokortikoide tratamendurik jaso. Gutxi dira, bai emakume bai gizonetan arrazoi desberdinengatik, noizbait glukokortikoidea duen medikamenduren bat jaso behar izan dutenak. Aipatzeko da, emakume eta gizonen artean, ez direla ezberdintasun adierazgarririk azaltzen tratamendua jaso ez dutenen eta noizbait jasotakoen artean.

Tratamendu hormonalek ere hezur narriadurarekin erlazionaturik daude. Hortaz, emakumeen kasuan, **aho-bidezko antisorgailu hormonalak** kontuan hartu beharrekoak dira. Antikontzeptibo oralen tratamenduek glutation peroxidasa eta superoxido dismutasaren metabolismo sintensiaren aktibazioa eragiten dute (Fallah eta lank., 2011). Erradikal aske hauek osteoblasto eta osteozitoen apoptosisa suspectu eta osteoklastogenesiaren aktibazioaren bitartez, hezur mineralizazio eta osteogenesia inhibitua egiten dute (Domazetovic eta lank., 2017). Ikerketa honetan parte-hartu duten emakumeen %15,9a izan da noizbait aho-bidezko antisorgailu hormonalak hartu izan duena.

### ■ Aurretikako hezur-hausturak

Bizitzan zehar jasandako hezur-hausturek ere hezur-zurruntasunarekin erlazioa dute (Weaver eta lank., 2016). Izan ere, osteoporosia isileko gaisotasuna da, eta, askotan, hezur-haustura bat jasan arte pertsonek ez dakite gaixotasuna pairatzen ote duten. Hezur-zurruntasun baxuaren ondorioz ematen diren hausturak ez dira ohikoak ikerketa honetako parte-hartzaileek duten adin tartean, baina arrisku faktore bat denez, aztertu beharreko aldagai bat da.

Txikitatik emandako hezur-hausterek gaztaroan izandako hezur-zurruntasunarekin duten erlazioa azterzeko, parte-hartzaileei, momenturarte hezur hausturarik izan duten galdetu egin zaie (4.20. Taula).

**4.20. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaileek izandako hezur-hausturak.

	Emakumeak	Gizonak	Guztiak
	%	%	%
<b>Bai</b>	31,8	41,8	35,7
<i>Goi gorputz-atala</i>	25	30,4	27,1
<i>Behe gorputz-atala</i>	5,7	3,8	5
<i>Goi eta behe gorputz-atala</i>	1,1	7,6	3,6
<b>Ez</b>	68,2	58,2	64,3

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak  $\chi^2$

Parte-hartzaileen % 64,3ak ez du inolako hezur-hausturarik jasan inoiz. Gizonen % 41,8ak noizbait hausturaren bat izan duen bitartean, emakumeengan portzentajea % 31,8koa da. Haustura gehienak goi gorputz-atalean eman dira, bai emakume bai gizonengana. Aipatzekoa da, gizonen % 7,6ak hausturak goi eta behe gorputz-ataletan, bietan, jasan dituztela. Emakumeengan aldiz, portzentaje hau % 1,1koa izan da, eta behe gorputz-ataletan bakarrik izandako hausturak % 5,7 izan dira.

### 4.2 HEZUR-ZURRUNTASUNAREN ETA AZTERTURIKO ALDAGAIEN ARTEKO LOTURAK

#### 4.2.1. Gorputz-osaera eta egitura eta hezur-zurruntasuna

Hezur-zurruntasunak gorputz-osaera eta egiturarekiko duen erlazioa aztertzeko, aldagai antropometrikoak hezur-zurruntasunaren adierazle de *Stiffness* indizearekin alderatu dira (4.21. Taula).

**4.21. Taula.** Emakume eta gizonen gorputz-osaera eta egituraren eta *Stiffness* indizearen arteko erlazioa.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>R</b>	<b>R</b>	<b>R</b>
<b>GMI</b> (kg/m <sup>2</sup> )	0,186	0,136	0,153
<b>Gantz-ehuna</b> (%)	-0,031	-0,264	-0,121
<b>Gihar-ehuna</b> (%)	0,109	0,214	0,132
<b>Endomorfia</b>	-0,002	-0,240	-0,134
<b>Mesomorfia</b>	-0,034	0,162	0,076
<b>Ektomorfia</b>	-0,138	-0,173	-0,139

Guztiak: Adina eta sexuarekiko doituta. Emakumeak eta gizonak: Adinarekiko doituta. GMI: Gorputz-masa indizea.

Pearson \* p < 0,05

Hezur-zurruntasuna eta *GMI*aren artean, lotura positibo baten joera somatzen da. Hala ere, aurretik aipatu bezala, *GMI*aren kalkuluan pisua bakarrik izaten da kontuan eta ez ehun desberdinek pisu totalarekiko adierazten duten portzentajea. Ehun desberdinek hezur-zurruntasunarekin duten erlazioa aztertzean, ***gantz-ehunak*** hezur-zurruntasunarekin negatiboki eragiteko joera duela ikusi da, batez ere gizonengan ( $R = -0,264$ ,  $p = 0,084$ ). ***Gihar-ehunak***, berriz, nahiz eta modu esanguratsuan ez azaldu, hezur-zurruntasunarekiko erlazio positiboa duela antzematen da.

***Endomorfia*** hezur-zurruntasun baxuagoarekin lotura duela somatu egiten da, izan ere, joera negatiboa du parte-hartzaleek aurkezturiko endomorfiak *Stiffness*

indizearekin. Egitura endomorfikoa duten pertsonek obesitaterako joera dute, eta ez dute gihar-ehun trinkorik aurkezten. ***Ektomorfia*** ere, hezur-zurruntasunarekin negatiboki lotzen dela somatzen da. Somatotipo honek altueraren eta zeharkako neurrien arteko erlazioa azaltzen du. Hau da, pertsona baten zabalerarekiko aurkezten duen altuera. Ektomorfikoak diren pertsonengan, luzerako forma gailendu egiten da, hezur luzeak izaten dituzte eta gantz portzentaje baxuak. Nahiz eta gantz-ehunak hezur-zurruntasunarekin lotura negatiboa duela adierazi, gutxiegiko gantz-ehuna izateak ere, eragin kaltegarriak ditu hezurrean (Robinson, Micali eta Misra, 2017). ***Mesomofía*** somatotipoa nagusi duten pertsonek, berriz, hezurren muskuluen eta ehun-konektiboaren nagusitasuna daukate. Somatotipo mota hau, oro har, hezur-zurruntasunarekin positiboki erlazionatzeko joera du ( $R = 0,162$ ,  $p = 0,038$ ). Gorputz-osaerarekin antzeman den bezala, giharrak hezurrarekin lotura positiboa duela ikusi da gorputz-egitura aztertzerakoan.

Tolesturak gantz-portzentajearren adierazle dira, eta hauek hezur-zurruntasunarekin nola erlazionatzen diren aztertu da (4.22. Taula).

**4.22. Taula.** Emakume eta gizonen antropometria tolesturen eta *Stiffness* indizearen arteko erlazioa.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>R</b>	<b>R</b>	<b>R</b>
<b>Tolesturak</b> (mm)			
Σ Sei Tolesturak	-0,026	-0,274	-0,148
Σ Enborra	-0,006	<b>-0,299*</b>	-0,167
<i>Trizipitala</i>	0,007	-0,094	-0,036
<i>Eskapulapekoa</i>	0,005	-0,222	-0,112
<i>Suprailiakoa</i>	-0,066	-0,257	-0,161
<i>Abdominala</i>	0,038	<b>-0,344**</b>	-0,178
Σ Behe gorputz-adarra	-0,044	-0,192	-0,099
<i>Izterrekoia</i>	-0,116	-0,248	-0,174
<i>Bernakoa</i>	0,032	-0,039	0,011
<b>Diametroak</b> (cm)			
<i>Eskumuturra</i>	<b>0,328**</b>	-0,020	0,130
<i>Humeroan</i>	-0,007	0,010	0,008
<i>Belauna</i>	-0,085	0,161	0,037
<i>Bimaleoloa</i>	-0,059	0,287	0,114
<b>Permetroak</b> (cm)			
<i>Besoa</i>	<b>0,276*</b>	0,048	0,154
<i>Izterra</i>	<b>0,342***</b>	<b>0,433***</b>	<b>0,356****</b>
<i>Berna</i>	0,234	0,095	0,169

Guztiak: Adina eta sexuarekiko doituta. Emakumeak eta gizonak: Adinarekiko doituta.

Σ Sei Tolesturak: Trizipitala, eskapulapekoa, suprailiakoa, abdominala (Σ Enbor tolesturak), izterrekoia, bernakoa (Σ Behe gorputz-adar tolesturak)

Pearson \* p < 0,05; \*\* p < 0,01; \*\*\* p < 0,005; \*\*\*\* p < 0,001

Gizonen kasuan, **tolesturek** hezur-zurruntasunarekin modu negatiboan erlazionatzeko joera dute. Enbor tolesturak ( $R = -0,299$ ,  $p = 0,049$ ) hezur-zurruntasunarekin erlazio negatiboa azaltzen dute. Emakumeengan ere tolestura suprailiakoa eta izterreko tolestura, sei tolestura, enbor- eta behe gorputz-adarreko

tolesturekin batera, hezur-zurruntasunarekin modu negatiboan erlazionatzeko joera azaldu dute.

Gizonek normalean gantza abdominalean ( $R = -0,344$ ,  $p = 0,022$ ) pilatzen dute; eta beste ikerketa batean azaltzen den bezala, obesitate zentralarekin lotura duen erraietako gantza hezurrarekin modu negatiboan erlazionatzen da (Choi eta lank., 2010). Hezur-galeraren aurka babesia ematen duten adiponektinaren, eta androgenoak estrogeno bihurtzen dituen aromatasaren sintesia txikiagoa da erraietako gantz-ehuna osatzen duen gantzean (Rosen eta Bouxsen, 2006). Baino, aldi berean, hezur birxurgapena areagotzen duten TNF- $\alpha$  (*tumor necrosis tumoral  $\alpha$* ) eta IL-6 hanturazko zitzazinekin modu positiboan erlazionatu egiten da (Morley eta Baumgartner, 2004). Obesitate periferikoarekin erlazionatutako larruazalpeko gantzaren eta hezur-osasunaren artean, berriz, ez da emaitza argirik aurkitu. Hau honela, ikerketa honetako emaitzen arabera, badirudi gantzak hezurrarekin duen lotura negatiboa, gantz-ehun totalak baino, erlazio handiagoa du gantz-metaketa gorputzeko zein lekutan ematen den.

Gaur egun, obesitatea garrantzi handiko osasun arazoa da mundu osoan. Honako hau gantz-portzentaje altua izatearekin erlazionaturik dago. Gaixotasun kardiobaskularak, diabetesa eta minbizia pairatzeko arrisku faktorea izateaz gain, gain-pisu eta obesitatea sistema lokomotorearekin erlazionaturiko gaixotasunak jasateko arriskuarekin erlazionatzen dira (González-Muniesa eta lank., 2017). Hezur-ehuna eta gantz-ehunaren metabolismoek elkarrekiko oso lotura estua dute eta obesitatean suertaturiko desregulazioek, adipogenesia areagotu eta osteoblastogenesia murritztu egiten dute.

Obesitatearekin erlazionaturiko lipidoen estres oxidatiboaren eta hanturazko molekulen eta hormonen desregulazioaren eraginez, hezur-eraketa txikiagotu eta hezur-birxurgapena areagotu egiten dira (Shapses, Pop eta Wang, 2017). Bestalde, obesitatea hantura kronikoarekin erlazionatzen da, eta adipozitoek jariatutako hanturaren eragile diren zitzinek hezur-zelulen arteko homeostasian eragiten dute.

Gantz-ehuna hezur-dentsitate mineralarekin modu negatiboan erlazionatzen dituzten mekanismoak ez dira ondo ezagutzen, baina hanturazko molekulen prozesu honetan modu aktiboan eragiten dutela ikusi da (Cao, 2011; Michaud eta lank., 2013). Hala ere, hauen arteko lotura helduengen gazteengan baino ezagunagoa izan, haurtzaro eta nerabezaroko gantz-ehunak hezur-metabolismoan eragiten duela ikusi da (Sederquist eta lank., 2014).

Erraietako gantz-ehunetatik jariaturiko hanturaren eragile diren zitzinak, osteoklastoen diferentiazioa aktibatu eta apoptosisia eragotzi egiten dute, hezur-birxurgapena areagotuz eta hezur-dentsitatea txikituz. Hanturazko zitzinez gain, adipozitoek hezur-metabolismoan eragiten duen adiponektina hormona jariatzen dute (Barbour eta lank., 2012). Osteoklastoetan adiponektina hartzailak aurkitzen dira; eta adiponektinak hauetara atxikitu egiten direnean, osteoklastoen aktibazioa handitu egiten da (Luo eta lank., 2006). Hau honela, adiponektina ere, negatiboki erlazionatzen da hezur-dentsitatearekin, hezur-birxurgapena areagotuz (Misra eta lank., 2007; Russell eta lank., 2010).

Pertsona batek aurkezten duen *eskumuturreko diametroa* eta zirkunferentzia aurkezten duen gorpuzkeraren adierazle da; zenbat eta eskumuturreko zirkunferentzia handiagoa izan, orduan eta gorpuzkera sendoagoa izanez (Öztürk eta lank., 2017). Hau horrela, eskumuturreko diametroa modu positiboan erlazionatu egin da emakumeen hezur-zurruntasunarekin ( $R = 0,328$ ,  $p = 0,006$ ).

Permetroaren parametroak neurtzerako orduan, gantz- eta gihar-ehunak barne hartu egiten dira; beraz, hezur-zurruntasunarekiko erlazioan parametro honek berez, ez du argitzen zein den loturarik argiena duen ehun-mota. Baina aurretik adierazi den bezala, tolesturek hezur-zurruntasunarekin negatiboki erlazionatzeko joera azaltzen dute eta gantz-ehunaren adierazle dira. Hau kontuan izanda, permetroak hezurrarekiko aurkezten duten erlazio gihar-ehunaren loturarengatik dela ondorioztatu ahal da. Hau honela, *izterreko perimetroa*, hezur-

zurruntasunarekin era positibo eta esanguratsuan erlazionatzen da bai emakumeengan ( $R = 0,342$ ,  $p = 0,004$ ) baita gizonengan ( $R = 0,433$ ,  $p = 0,003$ ) ere.

Gihar- eta hezur-ehunen arteko sinergia beste ikerketetan ere ikusi egin da (Hart eta lank., 2017). Izan ere, giharrean ematen diren aldaketak hezurrean islatu egiten dira (Cianferotti eta Brandi, 2014). Nahiz eta gihar-ehunaren eta hezur-zurruntasunaren arteko joera positiboa estatistikoki esanguratsua ez izan, izterreko perimetroa hezurrarekin azaldutako erlazio positiboa emakume eta gizonetan mantentzen da. Beste ikerlan batean, izter-erdiko gihar-bolumena hezur trabekularren egiturarekin estuki erlazionaturik dagoela ondorioztatu dute (Bajad eta lank., 2015).

Jakina da, estres-egoera bat jasan ondoren, giharrak eta hezurrak jariatutako faktoreen artean suertaturiko seinaleztapen gurutzatuak hezur-garapena sustatzen duela (Cianferotti eta Brandi, 2014). Gainera, giharrak, estimulu biologikoen bidez, hazkuntza-faktore lokalak jariatzen ditu hezurraren garapena sustatuz (Hamrick, McNeil eta Patterson, 2010).

Ikerketa honetan, izterreko perimetroak hezur-zurruntasunarekin modu positiboan erlazionatzen dela ikusirik eta, literaturan azaltzen diren beste ebidentziak kontuan izanik, gihar-ehuna prebentzio ekintzen diseinuan kontuan izan beharreko faktorea dela agerian geratu da. Gihar-ehuna lantzen bideraturiko esku-hartzeek hezur-osasunean efektu positiboak izango dituzte. Gainera, lotura hau gaztetatik azaltzen dela ikusirik, giharraren babes-papera gaztetatik lantzen hasi daitekeen faktorea da. Modu horretara, hain garrantzitsua den hezur-dentsitate mineral maila maximoa altuagoa izatea ahalbidetuz.

### 4.2.2. Elikadura eta hezur-zurruntasuna

Populazio baten elikadura ohiturak osasun egoeraren faktore mugatzaleetako bat dira, hortaz, elikadurak funtsezko papera bete dezake hezur-zurruntasunean. Hau honela, elikadurak hezur osasunarekiko azaltzen duen lotura aztertu da eta hurrengo atalean emaitza aipagarrienak aurkezten dira.

Honela, hezur-zurruntasunaren eta makromantenuen ahoratzearen artean dagoen erlazioa aztertu da (4.23. Taula).

**4.23. Taula.** Ahoraturiko energia eta makromantenuen ahoratzearen artean dagoen erlazioa aztertu da (4.23. Taula).

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>R</b>	<b>R</b>	<b>R</b>
<b>Energia</b> (Kcal/egun)	0,137	0,167	0,155
<b>Proteinak</b> (%)	-0,061	0,119	0,030
<b>Gluzidoak</b> (%)	0,209	-0,103	0,045
<b>Lipidoak</b> (%)	-0,187	0,063	-0,058
<b>Zuntza</b> (g/egun)	0,229	0,030	0,124
<b>Kolesteroloa</b> (mg/egun)	-0,020	0,207	0,120

Adinarekiko doitura.

Pearson \* p < 0,05 \*\* p < 0,01

**Energia** nahiz eta modu esanguratsuan ez izan, hezur-zurruntasunarekin modu positiboan erlazionatzeko joera dauka. **Proteina ahoratzeak** ordea, joera desberdinean erlazionatzen da emakume eta gizonen hezur-zurruntasunarekin. Emakumeen proteina ahoratzea hezur-zurruntasunarekin lotura negatiboa duela azaltzen da eta gizonetan berriz positiboa.

Badira hainbat ikerketa (Hanann eta lank., 2000; Kerstetter, Looker eta Insogna, 2000), ez denak (Nives, 2005), proteina ahorakinak hezurrean modu positiboan eragiten duela ondorioztatzen dutenak. Hain zuzen, proteina ahorakinak hezur-osasunean efektu kaltegarriak eta onuragarriak eragiten dituela deskribatu da (Dunton eta lank., 20018). Izan ere, proteina-ahorakinak hezurrarekin duen lotura

kaltzio-ahorakinaren araberakoa dela adierazten dute (Shani eta lank., 2015). Erlazio kontraesankor hauen beste azalpen bat proteina kopuruan eta ahoraturiko proteinen kalitate eta bioerabilgarritasunean aurkitu daitekela ere badira (Layman, 2009).

***Gluzido-ahorakina***, emakumeengan, joera positiboa du hezur-zurruntasunarekin ( $R = 0,209$ ,  $p = 0,087$ ). Pertsona gazteengan egindako ikerketa batean aipatu bezala, gluzidoen ahorakin altua jarduera fisikoarekin erlazionaturik egon daiteke (Dunton eta lank., 2018). Ikerketa honetan, jarduera fisiko kementsua egiten duten emakumeen gluzido ahorakina, jarduera fisikoa intentsitate maila baxuagoan egiten duten emakumeek baino gluzido ahorakin altua dute ( $R = 0,213$ ,  $p = 0,082$ ). Hortaz, gluzido ahorakinaren eta hezur-zurruntasunaren arteko eragile mugatzalea jarduera fisikoa izan daiteke.

***Lipido-ahorakinaren*** eta hezur-zurruntasunaren artean joera desberdinak azaltzen dira emakume eta gizonengan. Gizonen lipido-ahorakinak, hezur-zurruntasunarekin joera positiboa duela azaldu du eta emakumeek berriz negatiboa. Honako emaitza kontraesankorrak kontuan izanik, ondoren, profil lipidikoan lipidoen eta hezur-zurruntasunaren arteko erlaziona aztertuko da.

***Zuntz-ahorakina*** eta hezur-zurruntasunaren artean bada joera positiboa, batez ere emakumeengan ( $R = 0,229$ ,  $p = 0,060$ ). Azken ikerketetan azaltzen den bezala, zuntz-ahorakinak, hesteetako mikrobiota moldatuz kaltzio xurgapena areagotzen du (Wallace eta lank., 2017). Hesteetan dagoen mikrobiota, ahoraturiko zuntza hartzitu inguruneko pH jaitsi egiten du; eta honek kaltzio xurgapena hobetu egiten du (Weaver eta lank., 2010; Weaver, 2015). Zuntzaren hartzidurak, seinaleztapen molekularretan aldaketak eraginez, mineral xurgapenaren seinaleztapen prozesua suspertu eta hesteetako zelulen metabolismo eta ugaritzea ere sustatu dezake (Yonezawa eta lank., 2007). Hau honela, hesteetan ematen den ahoraturiko zuntzaren hartzidurak kaltzio xurgapena sustatu eta hezur osasunean onurak eragiten ditu.

**Kolesterol-ahorakina** modu desberdinean erlazionatzeko joera du emakumeengan eta gizonengan. Emakumeengan, kolesterolak hezur-zurruntasunarekiko azaldutako erlazio negatiboa bestelako ikerketetan ere adierazten da (Park eta Lee, 2012). Kolesterol-maila altua osteoklastoen aktibazioarekin eta osteoblastoen funtziogalerarekin erlazionatu egiten da (Mandal, 2015). Faktore osteoklastogenikoaren aktibazioek osteoblastoen aktibilitate eta funtzionaltasuna handitu egiten dituzte (Sjögren eta lank., 2002; Prieto-Potín eta lank., 2013). Gainera, kolesterol sintesia inhibitzen duten estatinek osteoklastogenesia eta hezur-birxurgapena murriztu, eta osteoblastoen apoptosisa ekidin eta aktibilitatea areagotzen dutela aztertu da (Luisetto eta Camozzi, 2009).

Makromantenugaien eta hezurraren arteko lotura aztertu ondoren, dietako profil lipidikoa hezurrarekiko duen lotura zehaztea garrantzitsua da. Horretarako, ahoraturiko gantz mota desberdinek hezur-zurruntasunarekin aurkezten duten erlazioa aztertu da (4.24. Taula). Aurretik aipatu bezala, emaitza adierazgarrienak aipatuko dira.

**4.24. Taula.** Emakume eta gizonen profil lipidikoa eta *Stiffness* indizearen arteko erlazioa.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>R</b>	<b>R</b>	<b>R</b>
<b>GAA (%)</b>	-0,145	0,172	0,006
<b>GAM (%)</b>	-0,200	0,003	- 0,088
<b>GAP (%)</b>			
<b>ω3 (mg)</b>	0,220	0,126	0,152
<b>ω6 (mg)</b>	0,133	0,060	0,076
<b>GAP/GAA</b>	0,136	-0,104	0,002
<b>(GAP+GAM)/GAA</b>	0,046	-0,169	-0,044

Adinarekiko doituta. GAS: Gantz-azido asegabea. GAM: Gantz-azido monoasegabek. GAP: Gantz-azido poliasegabek. ω3: Omega 3. ω6: Omega 6.  
Pearson \* p < 0,05

Profil lipidikoan lortutako emaitzak adierazgarriak ez badira ere, hezur-zurruntasunarekiko duten lotura aipatuko da. Emakumeengan, GAAen ahoratzea hezur-zurruntasunarekin lotura negatibodun joera azaltzen du; beste ikerketa baten ere, honekin bat datozen emaitzak azaldu dira (Corwin eta lank., 2006). Gaur egun, GAAen ahoratzearen eta hezur metabolismoaren arteko erlazioa nola ematen den ez da guztiz ondo ezagutzen; baina GAAetan altuak diren dietek, lipidoen metabolismoan parte-hartuz, osteoklastoen apoptosisa sahiestu egiten dutela ikusi da (Oh eta lank., 2010). Gainera, GAA ahorakinak, hanturaren eragile diren IL-6 eta TNF- $\alpha$  zitozinen aktibazioaren bitartez, osteoklastogenesia eta hezur-birxurgapena eragiten dute (Ragab eta lank., 2002).

Ikerketa honetan, parte-hartzailen GAMak hezur-zurruntasunarekin duen lotura ez da modu argi batean azaltzen. Emakumeetan joera negatiboa somatzen den bitartean, gizonetan, lotura positiboa bat azaltzen da. Hala ere, badira oliba olioa eta intxaurretan aberatsak diren GAMen ahorakinak haustura arriskua murrizten duela adierazten duten ikerketak (Martínez-Ramírez eta lank., 2007; Hayek, Egeland eta Weiler, 2012).

GAPen barruan,  $\omega$ -3 eta  $\omega$ -6 ahoratzeak, hezur-zurruntasunarekin joera positibodun lotura azaldu du. Izan ere,  $\omega$ -3aren ahoratzeak, kaltzio xurgapena handituz, hezurdentsitate mineralaren hobekuntzan eragiten du (Nawata eta lank., 2013; Saini eta Keum, 2018). Hain zuzen,  $\omega$ -3 motatako GAPEk, osteoblastoen diferentziajio eta biziraupena sustatzeaz gain (Watkins eta lank., 2003), PGE<sub>2</sub> prostaglandinaren maila txikiagotuz eta osteoklastoen eraketa eta diferentziajiaoan parte-hartzen duen NF- $\kappa\beta$  hartzalea inhibituz, hezur-masan eta -estrukturan onurak eragiten dituzte (Boeyen eta lank., 2014).

Bitaminei dagokienez, bitamina hidrosolugarriak hezur-zurruntasunarekin aurkezten duten lotura aztertu da (4.25. Taula).

**4.25. Taula.** Emakume eta gizonen bitamina hidrosolugarrien eta *Stiffness* indizeare arteko erlazioa.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>R</b>	<b>R</b>	<b>R</b>
<b>Tiamina</b> (mg/egun)	0,211	<b>0,348*</b>	<b>0,291**</b>
<b>Az. Askorbikoa</b> (mg/egun)	<b>0,247*</b>	0,218	<b>0,216*</b>
<b>B<sub>6</sub> bitamina</b> (mg/egun)	0,195	0,252	<b>0,230*</b>

Adinarekiko doituta. Az. Askorbikoa: Azido askorbikoa.

Pearson \* p < 0,05

Bitamina hidrosolugarrien ahoratzea, hezur-zurruntasunarekin lotura positiboa dutela azaldu da. Hala nola, **tiamina-ahoratza** modu positiboan erlazionatzen da hezur-zurruntasunarekin ( $R = 0,291$ ,  $p = 0,002$ ) batez ere gizonengan ( $R = 0,348$ ,  $p = 0,021$ ). **Azido askorbikoaren-ahorakina** ere modu positiboan erlazionatzen da hezur-zurruntasunarekin ( $R = 0,216$ ,  $p = 0,021$ ) batez ere emakumeengan ( $R = 0,247$ ,  $p = 0,043$ ). Izan ere, azido askorbikoa, antioxidantzaile bezala, kolagenoaren sintesian laguntzen du (Tack, Shorthouse eta Kass, 2018). Bestalde, **B<sub>6</sub> bitamina** ahorakinak ere, hezur-zurruntasunarekin modu positiboan erlazionatu egin da ( $R = 0,230$ ,  $p = 0,015$ ). Ikerketa honetan azaldutako emaitzekin bat eginez, beste ikerketa batean, B<sub>6</sub> bitamina ahorakin baxua aurkezten duten parte-hartzaleek hezur-osasun okerragoa dute (Lim eta lank., 2014).

Bitamina liposolugarriek ere, hezur-zurruntasunarekin duten lotura aztertu egin da (4.26. Taula).

**4.26. Taula.** Emakume eta gizonen bitamina liposolugarrien ahorakina eta *Stiffness* indizearen arteko erlazioa.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>R</b>	<b>R</b>	<b>R</b>
<b>D bitamina</b> (μg/egun)	- 0,006	0,101	0,050
<b>E bitamina</b> (mg/egun)	0,208	0,060	0,112

Adinarekiko doituta.

Pearson

**D bitaminak** kaltzio homeostasian erantzunkizun garrantzitsua du, hezur-mineralizazioan eta garapen-prozesuan parte-hartuz. D bitamina maila baxuak hezur-galera eta hauskortasuna handitzeko arriskua areagotzen duela ikusi da (Weaver eta lank., 2016). Espero ez bezala, ikerketa honetan, ez da emaitza adierazgarririk aurkitu. Hala ere, kontuan hartu beharrekoa da ere, ahoraturiko D bitamina ez dela gorputzean aurkitzen den D bitamina aktiboaren aurrekari bakarra. Azalean, kolesteroletitik eratorritako D pre-bitamina izpi ultramoreen erradiazioa jasotzean, aktibatu egiten da eta ahoraturiko D bitaminaren metabolismo sintesi berdina jarraitzen du (Nair eta Maseeh, 2012).

**E bitamina** ordea, hezur-zurruntasunarekin lotura positibodun joera du, batez ere emakumeengan ( $R = 0,208$ ,  $p = 0,088$ ). Bitamina antioxidantzailea izateaz gain, E bitaminak hanturaren aurkako ezaugarriak ditu. Ezaugarri horiek osteoblastogenesia areagotzea eta osteoklastogenesia murriztea eragiten dituzte (Shen eta lank., 2017). Era horretan, E bitaminak kartilagoan eta, ondorioz, hezur-zurruntasunean estres oxidatiboak dituen efektuak arindu egiten ditu (Chin eta Ima-Nirwana, 2018).

Azkenik, elikadura eta hezurrarekin duten lotura aztertzean, mineral eta elektrolito ahorakinek hezur-zurruntasunarekin duten lotura aztertu da (4.27. Taula).

**4.27. Taula.** Emakume eta gizonen mineral eta elektrolito ahorakinen eta *Stiffness* indizearen arteko erlazioa.

	Emakumeak	Gizonak	Guztiak
	R	R	R
<b>Kaltzioa</b> ( $\mu\text{g/egun}$ )	0,151	0,258	<b>0,217*</b>
<b>Potasioa</b> ( $\text{mg/egun}$ )	<b>0,313**</b>	0,235	<b>0,263**</b>
<b>Magnesioa</b> ( $\text{mg/egun}$ )	<b>0,248*</b>	0,107	0,157
<b>Fosforoa</b> ( $\text{mg/egun}$ )	0,209	0,204	<b>0,202*</b>

Adinarekiko doituta.

Pearson \*  $p < 0,05$  \*\*  $p < 0,005$

Kaltzioa hezur-matrizeko mineral nagusia da, eta hori dela eta, berebiziko garrantzia du hezur-osasunean. Hainbat dira kaltzioak hezur-eraketan, mantentzean eta, azken batean, hezur-osasunarekin erlazio positiboa duela azaltzen dituzten ikerketak (Weaver eta lank., 2016). Ikerketa honetan, ***kaltzio-ahorakina*** eta hezur-zurruntasunaren arteko lotura positiboa izan da ( $R = 0,217$ ,  $p = 0,022$ ). Bestelako ikerketetan ere, kaltzio-ahorakinaren eta hezur-parametro desberdinen artean lotura positiboa dagoela aztertu da (Flynn, 2003; Martínez de Victoria, 2016). ***Potasio ahorakina*** eta hezur-zurruntasuna modu positiboan erlazionatzen dira ere ( $R = 0,263$ ,  $p = 0,005$ ), nagusiki emakumeengan ( $R = 0,313$ ;  $p = 0,009$ ). Izan ere, potasio ahoratze baxua, osteosarkopeniarengan agerrera-rekin batera azalduriko hantura egoerarekin erlazionaturik dago (Kelly eta lank., 2016). ***Magnesio-ahorakinak*** ere, lotura positiboa du emakumeen hezur-zurruntasunarekin ( $R = 0,248$ ,  $p = 0,041$ ). Beste ikerketetan ere, alde batetik, magnesio-ahorakin baxua hezur-galerarekin erlazionaturik dagoela aipatzen da (Castiglioni eta lank., 2013; Orchard eta lank., 2014). Berriz, gehigarri-dietetiko bezala, magnesioa 12 hilabetez kontsumitu ondoren, emakume gazteek aldaka hezur-masa handitu egiten dutela ikusi da (Carpenter eta lank., 2006). ***Fosforo-ahorakinari*** dagokionez, honek lotura positiboa aurkezten du hezur-zurruntasunarekin ( $R = 0,202$ ,  $p = 0,032$ ).

Ahoratze egokiak, elikadura kontsumo-patroi osasuntsuak jarraitzearekin lotura du eta honek, metabolismoan homeostasi egoera bat mantentzen laguntzen du. Modu horretara, hezur-osasunaren hobekuntzan eta mantentzearekin lotura izanez. Ikerketa honetan mikromantenugaien ahoratzeak izan dira hezur-zurruntasunarekin lotura azaldu dutenak; hauen ahoratzea egokia, elikadura osasuntsua izatearekin bat etorri daitekeelarik.

#### **4.2.3. Jarduera fisikoa eta hezur-zurruntasuna**

Jarduera fisikoak hezur-zurruntasunarekin duen erlazioa aztertzeko, azelerometriaren bidez neurrikor parametroak *Stiffness* indizearekin erlazionatu dira. Horrela, intentsitatea bakoitzean egindako jarduera fisikoaren denbora eta mugimenduaren ardatzak hezur-osasunarekin nola erlazionatzen diren definitzeko.

Ikerketa honetako parte-hartzaleek gaur egun egindako jarduera fisikoaren parametroak hezur-zurruntasunaren adierazle den *Stiffness* indizearekin aurkezten duten erlazioa aztertu da (4.28. Taula).

**4.28. Taula.** Emakume eta gizonen azelerometria parametroen eta hezur-zurruntasunaren arteko erlazioa.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>R</b>	<b>R</b>	<b>R</b>
<b>Pausoak/egun</b>	<b>0,366***</b>	0,170	<b>0,265***</b>
<b>Egoneko jarrera</b> (min/egun)	-0,036	-0,160	-0,079
<b>JF arina</b> (min/egun)	0,091	-0,085	0,026
<b>JF neurrizkoa</b> (min/egun)	<b>0,262*</b>	0,190	<b>0,222*</b>
<b>JF kementsua</b> (min/egun)	0,174	0,153	0,163
<b>JF oso kementsua</b> (min/egun)	<b>0,267*</b>	<b>0,397**</b>	<b>0,303****</b>
<b>JFNK</b> (min/egun)	<b>0,310*</b>	0,245	<b>0,274***</b>
<b>Y-ardatza</b> (cpm)	<b>0,311*</b>	0,179	<b>0,238*</b>
<b>X-ardatza</b> (cpm)	0,188	0,175	0,172
<b>Z-ardatza</b> (cpm)	0,201	0,188	<b>0,196*</b>

Guztiak: Adina eta sexuarekiko doitura. Emakumeak eta gizonak: Adinarekiko doitura. JF: Jarduera fisikoa. JFNK: Jarduera fisiko neurrizkoa eta kementsua. cpm: kontaketak minutuko (*counts per minute*).

Pearson \* p < 0,05; \*\* p < 0,01; \*\*\* p < 0,005; \*\*\*\* p < 0,001

Bai emakume bai gizonengan, egindako jarduera fisikoaren parametro gehienak modu positiboan erlazionatzen dira hezur-zurruntasunarekin. Denbora sedentarioaren adierazle den egoneko jarrera, berriz, hezur *Stiffness* indizearekin lotura negatiboa duela antzeman daiteke. Zehazki, JF neurrizkoa ( $R = 0,262$ ,  $p =$

0,031), JF oso kementsua ( $R = 0,267$ ,  $p = 0,028$ ), JFNK ( $R = 0,310$ ,  $p = 0,010$ ), Y-ardatza ( $R = 0,311$ ,  $p = 0,010$ ), eta egunean emandako pausoak ( $R = 0,366$ ,  $p = 0,002$ ) modu positiboan erlazionatzen dira emakumeen hezur-zurruntasunarekin. Gizonengan ere, hezur-zurruntasuna JF oso kementsuarekin modu adierazgarrian erlazionatzen da ( $R = 0,397$ ,  $p = 0,008$ ).

Ikerketa honetako emaitzakin bat eginez, intentsitate maila altuko jarduerak, JF kementsua eta oso kementsua hain zuzen ere, hezur-osasun hobearekin erlazionaturik daudela adierazten dute (Gabel eta lank., 2017; Marin-Puyalto eta lank., 2018). Bestalde, egoneko jarrera edo jokabide sedentarioak dituzten pertsonetan, ariketa fisiko arinak hezur-osasunean onurak eragiten ditu (Füzéki, Engeroff eta Banzer, 2017).

Jarduera fisikoaren mugimenduak 3 ardatz desberdinaren arabera aztertzean, Y-ardatza da hezur-zurruntasunarekin modu adierazgarrian erlazionatzen dena, emakumeengan ( $R = 0,311$ ,  $p = 0,010$ ). Emaitza hauek, alde batetik, egindako jarduera fisikoaren intentsitatea hezur-garapenean funtsezkoa dela adierazten dute; bestetik, inpaktudun jarduera fisikoaren eta hezur metaketaren arteko erlazioa indartzen dute (Meyer eta lank., 2013) Izan ere, inpaktu altuko eta karga-bolumen altuko jarduera fisikoek gazteengan efektu osteogenikoak dituzte (Yung eta lank., 2005; Rosenberger eta lank., 2017).

Hezurrean presio altuak eragiten dituzten ariketek, dinamikoak diren kargak erabiliz, hezur-erantzunaren egokitzapena hobetzen laguntzen dute. Hainbat ikerketen arabera, karga-maila ezberdinaren ardatz bertikalean zehar inpaktu altu edo ezohikoak jasaten dituzten ariketetan jarduteak hezurrean onurak eragiten ditu. Adibidez, futbolean (El Hage eta lank., 2014), boleibolean (Zouch eta lank., 2016), saskibaloian (Bagur-Calafat eta lank., 2015), dantzan (Matthews eta lank., 2006) edota tenisean (Sanchiz-Moysi eta lank., 2010) jarduten diren pertsonek, sedentarioek edota karga edo inpaktu gabeko ariketak egiten dituztenek baino hezur-masa handiagoa dute.

Hezur-osasunean, onura nabarmenenak erresistentzia-entrenamenduetan Y-ardatzean egindako saltoak, pixkanaka modu progresiboan gehitzen joan heinean antzeman dira (Zhao, Zhao eta Xu, 2015). Modu honetan, hezurrean zeharka eragiten duten giharren indarra eta funtzionaltasuna lantzearekin batera, hezur-osasuna hobetu egiten da (Steib, Schoene eta Pfeifer, 2010). Talkadun ariketek eragindako tentsio eta estres mekanikoek hezurren transdukzio-mekaniko deritzon prozesu fisiologikoa aktibatzen dute, hezurraren birmoldaketarako beharrezkoak diren seinaleztapen biokimikoaren eta erantzun mekanikoaren eraginez (Hamblin, 2014).

#### **4.2.4. Egoera-fisikoa eta hezur-zurruntasuna**

Egoera fisikoa, besteak beste, pertsona batek egindako ariketa fisikoaren adierazle da. Ariketa fisiko ohiturek pertsona baten egoera-fisiko baldintzatzen dute. Hori dela eta, egoera fisikoak hezur-zurruntasunarekin lotura izan dezake. Ikerlan honetan gaitasun aerobikoak eta anaerobikoak hezur-zurruntasunarekin duten erlazioa aztertu da (4.29. Taula).

**4.29. Taula.** Emakume eta gizonen egoera fisikoaren adierazle diren gaitasun fisikoak eta hezur-zurruntasunaren arteko erlazioa.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>R</b>	<b>R</b>	<b>R</b>
<b>Gaitasun aerobikoa</b>			
<i>VO<sub>2Max</sub> erl. (ml/kg/min)</i>	0,088	<b>0,316*</b>	<b>0,201*</b>
<b>Gaitasun anaerobikoa</b>			
<i>Bosco testa</i>			
<i>Altuera (cm)</i>	0,186	0,138	0,165
<i>Hegaldi denbora (s)</i>	0,008	0,149	0,031
<i>Energia espezifika (J/kg)</i>	0,188	0,138	0,166
<i>Froga isozinetikoa</i>			
<i>Indarra 60° luzak. (Nm)</i>	<b>0,324**</b>	-0,037	0,131
<i>Indarra 60° flex. (Nm)</i>	0,184	<b>0,339*</b>	0,287***
<i>Indarra 90° luzak. (Nm)</i>	<b>0,419****</b>	0,109	<b>0,251**</b>
<i>Indarra 90° flex. (Nm)</i>	0,098	<b>0,372*</b>	0,141

Guztiak: Adina eta sexuarekiko doituta. Emakumeak eta gizonak: Adinarekiko doituta. Luzak: Luzaketa. Flex: Flexioa.

Pearson \* p < 0,05; \*\* p < 0,01; \*\*\* p < 0,005

**Gaitasun aerobikoaren** adierazlea den oxigeno-kontsumo maila maximoa era positiboan erlazionatzen da hezur-zurruntasunarekin ( $R = 0,201$ ,  $p = 0,010$ ), batez ere gizonengana ( $R = 0,316$ ,  $p = 0,014$ ). Oxigeno-kontsumo maximoak hezur zurruntasunarekin duen erlazioa egindako ariketa fisikoak gaitasun fisiko aerobikoan duen loturaren ondorio izan daiteke. Ariketa fisikoa egitean, gaitasun aerobikoa landu egiten da; gero eta intentsitate maila handiagoan jardun, orduan eta

gaitasun aerobiko altuagoa garatzen da. Ikerketa honetako parte-hartzaleen artean, gizonek emakumeek baino intentsitate maila altuagoko ariketa fisikoa egiten dute, eta, horrek, aurkezten duten gaitasun aerobikoan erlazioa du.

Gaitasun aerobikoaren eta hezur-osasunaren adierazle diren parametroen artean erlazio positiboa dagoela ikusi da (El Hage eta lank., 2014; Berro eta lank., 2018). Gaitasun aerobikoa hezur-osasunaren zeharkako eragilea da. Izan ere, beste ikerketa batean,  $VO_{2\text{Max}}$  balio baxuak azaltzen dituztenek hezur-parametro baxuak aurkezten dituzte, eta hau ariketa fisiko gutxi egitearekin eta gantz-portzentaje altua izatearekin erlazionaturik dagoela aipatzen dute (Ubago-Gisago eta lank., 2016).

*Gaitasun anaerobikoaren* adierazle den behe-gorputz adarreko gihar-potentziak ere hezur-zurruntasunarekin lotura positiboa duela azaldu du. Bosco testan egindako saltoaren altuera ( $R = 0,165$ ,  $p = 0,081$ ) eta erabilitako energia espezifika ( $R = 0,166$ ,  $p = 0,080$ ) hezur-zurruntasunarekin positiboki erlazionatzeko joera azaldu dute. Froga isozinetikoan lortutako emaitzetan, erlazio adierazgarria azaltzen da hezur-zurruntasuna eta luzaketa indarraren ( $R = 0,324$ ,  $p = 0,007$ ;  $R = 0,419$ ,  $p < 0,001$ ) artean emakumeengan; eta flexio indarraren artean gizonengan ( $R = 0,339$ ,  $p = 0,025$ ;  $R = 0,372$ ,  $p = 0,013$ ). Era berean, beste ikerketeta batzuetan ere, gihar-indarra eta potentzia modu positiboan erlazionatu dira hezur-osasunarekin (Antony eta lank., 2015; Berro eta lank., 2018).

Hau honela, koadrizepsak emakumeengan, eta iskiotibialek gizonengan, hezur-zurruntasunarekin modu positiboan erlazionatzen direla esan daiteke. Emaitza guztiak orokorki aztertuz, hezur-zurruntasunean koadrizeps giharraren lotura da nabarmen iskiotibialaren aurrean. Honako desberdintasun hau, kirolari gazteetan ere azaltzen da (Duarte eta lank., 2018). Izan ere, kontutan hartu beharrekoa da koadrizepsa, iskiotibiala baino errazago lantzen dela. Hau da, iskiotibiala lantzeko ariketa edo mugimendu eszentrikoak egin behar diren bitartean, koadrizepsa mugimendu kontzentrikoen bitartez landu daiteke ere. Azken hauek erraztasun

handiagoz burutzen diren mugimenduak dira eta horrek koadrizepsaren garapena iskiotibialarena bainoa handiagoa izatea eragiten du.

Emakumeen eta gizonen artean azterturiko berezitazunek, ariketa fisikoan jardutean, gihar-mota bakoitza lantzearen zailtasunean izan dezakete oinarria. Bai emakume bai gizonengan, ariketa fisikoak gihar-ehunean eragiten du; alde batetik kantitatean (gihar-portzentajea), eta bestetik kalitatean (indarra). Izan ere, gihar-portzentaje altuagoa izateaz gain, jarduera fisiko kementsuan aritzen diren emakumeek koadrizeps indar handiagoa duten bitartean ( $R = 0,237$ ,  $p = 0,052$ ), ez dute ezberdintasunik azaltzen iskiotibialen indar mailan. Gizonen kasuan, aldiz, jarduera fisiko neurriko eta kementsua egitea iskiotibialean indar handiagoa izatearekin erlazionatzen da ( $R = 0,432$ ,  $p = 0,003$ ), baina ez kuadrizepsaren indar mailarekin. Hortaz, intentsitate maila altuan egindako ariketa fisikoak hezurren duen efektu osteogenikoa, gihar-ehunak sortatuko tentsioen edota miokinen efektuaren ondorioz izan daiteke. Miokinak giharreko zelulek, giharreko kontrakzioak ematen direnean sintetisatu eta jariaturiko proteinak dira. Hauek gihar-ehunaren eta bestelako ehunen arteko interakzioak sortzen dituzte. Modu horretara, gihar- eta hezur-ehunaren arteko loturan miokinek, hezurraren metabolismoaren erregulazioan eragiten dute (Kaji, 2016; Hu, 2018).

#### 4.2.5. Bizi-ohiturak eta hezur-zurruntasuna

Hezur-zurruntasunaren adierazle den *Stiffness* indizearen eta *alkohol kontsumoaren* arteko lotura aztertzerakoan, ANCOVA testan, ez da lotura esanguratsurik azaldu. Hala ere, alde batetik, inoiz alkoholik kontsumitu ez dutenek (*Stiffness* indizea = 129), alkohola kontsumitu duten parte-hartzaileek (*Stiffness* indizea = 117) aurkezten dutena baino altuagoa da.

Alkohol kontsumoa, hezur-galerarekiko arrisku faktoretzat hartzen da. Gehiegizko alkohol kontsumoak, hezur eraketa murriztu eta gernu-iraizketaren bitartez galduzako kaltzioa areagotu egiten du. Neurri gabeko kontsumoa, magnesio maila eskasarekin ere erlazionatu egiten da eta hau, hipokaltzemiarekin lotura duela ikusi da (Díaz-Curiel eta Torrijos-Eslava, 2012).

Beste aldetik, *binge drinking* kontsumo patroia jarraitzeak hezur-zurruntasunarekin duen erlazioa aztertuz, ez da emaitza adierazgaririk azaldu. Ikerketan parte-hartu baino lehen, azken hilabetean, alkoholik kontsumitu ez dutenek (*Stiffness* indizea = 134), alkohola kontsumitu dutenek (*Stiffness* indizea = 115) eta *binge drinking* kontsumoa egindakoek (*Stiffness* indizea = 117) baino hezur-zurruntasun altuagoa aurkezten dute. Hortaz, alkohola ez kontsumitzeak, hezur-zurruntasun hobearekin erlazionatzeko joera azaldu du.

*Tabako kontsumoari* dagokionez, ez du erlazio adierazgaririk azaldu hezur-zurruntasunarekin. Noizbait tabakoa kontsumitu dutenek 116 ko *Stiffness* indizea eta inoiz erretzaileak izandakoek 117 ko *Stiffness* indize balioak azaldu dituzte. Honako hauek ez dira espero zitezkeen emaitzak baina aipatu beharra dago, ikerketa honetan parte-hartu duten gazteen % 34,3ak bakarrik izan dela noizbait tabakoa kontsumitu duena eta hezurrean honen efektuak luzaroko kontsumo baten ondoren azaltzen dela.

Bestelako bizi-ohiturekin jarraituz, tratamendu farmakologiko desberdinek hezur-osasunarekin duten lotura aztertu da. Glukokortikoide eta antikontzeptibo tratamenduen eta hezur-zurruntasunarekiko erlazioa aztertu da (4.30. Taula).

**4.30. Taula.** Emakume eta gizonen tratamendu farmakologikoen eta *Stiffness* indizearen arteko erlazioa.

Tratamendua	Emakumeak	Gizonak	Guztiak
	R	R	R
Glukokortikoide	0,016	0,019	0,017
Antikontzeptikobo	-0,139	—	—

Pearson

Gaur egun, *glukokortikoide tratamenduek* hezurraren mikroarkitektura narriatu eta gihar-masa eta -indarra galtzea eragiten dutela ezaguna da (Sato, Peacock eta Bellido, 2018). Ikerketa honetan, tratamendu honek hezur-zurruntasunearekin duen lotura ez da modu argi batean azaldu. Dena den, kontuan hartu behar da parte-hartzaileen oso portzentaje txikiak, % 14,8ak, jarraitu duela noizbait glukokortikoidedun tratamenduren bat. Gainera, gehiengoak tratamendu akutu bat jarraituz hartu izan du. Hortaz, hauek ez dira emaitza adierazgarriak izateko behar beste. Helduengan, hezur galera ahotik hartutako glukokortikoide dosiarekin erlazionaturik dago, baina ume eta gazteengan ikerketa gutxi daude honen inguruan. Hala ere, glukokortikoide tratamenduak jasotako umeek gaixotasun berdina duten, baina glukokortikoidedun tratamendurik hartzen ez dutenek baino hezur-dentsitate baxuagoa dutela ikusi da (Hansen eta lank., 2014).

**Aho-bidezko antisorgailu hormonalen** kasuan, nahiz eta emaitza adierazgarria ez izan, emakumeen hezur-zurruntasunarekin joera negatiboa dutela azaltzen da. Gazteengan egindako beste ikerketetan, ez da ebidentzia zientifiko argirik azaldu. Ikerketa batzuetan tratamendu hauen eta hezur-osasunaren arteko erlazioa negatiboa dela adierazten den bitartean (Pikkarainen eta lank., 2008; Biason eta lank., 2015), beste batzuetan antisorgailuak hartzeak hezur-ehunaren osasunarekin

loturarik ez duela adierazten da (Cromer eta lank., 2008; Bonny, Secic eta Cromer, 2011).

Azkenik, **hezur-hausturak** jasan izana hezur-zurruntasunarekin nola erlazionatzen diren aztertuz, ez da erlazio esanguratsurik antzeman. Hala ere, hezur-hausturak jasandako gorputz-atalak, positiboa den joera azaltzen du hezur-zurruntasunarekin emakumeengan ( $p = 0,092$ ). Goi-gorputz ataleko hezur-hausturak jasandako emakumeek (*Stiffness* indizea = 112,01) behe-gorputz atalean jasandakoek (*Stiffness* indizea = 128,4) eta goi- eta behe-gorputz adarretan izandakoek (*Stiffness* indizea = 132) baino hezur-zurruntasun txikiagoa daukate. Behe-gorputz adarretan jasandako lesioak ariketa fisikoan jardutean izandako ezbehar baten ondorioz izan ohi dira. Alegia, bada erorketa-arrisku handiagoa izatearen ondorioz, erlazio positibo bat hezur-hausturen eta egindako ariketa fisikoaren artean (Clarck, Ness eta Tobias, 2008). Hala ere, nahiz eta ariketa fisikoa egitea hezur osasuntsua izateko nahitaezkoa izan, intentsitate maila altuan aritzen diren haur eta gazteek hezur-haustura gehiago izateko arriskua daukate (Löfgren eta lank., 2012; Detter, Rosengren eta lank., 2013). Beraz, guzti honekin, gazte hauek egindako ariketa fisikoaren onurak, jasandako lesioen ondorioz izan ditzateketen efektu negatiboen gainetik daudela esan daiteke.

### **4.3. HEZUR-ZURRUNTASUNA AURREIKUSTEKO EREDUA**

Neurturiko parametroek hezur-zurruntasunarekin azaltzen duten erlazioa korrelazioen bitartez aztertu ondoren, kobariantza analisiak eginez, *Stiffness* indizearen eragile bereizleak zeintzuk diren aztertu dira. Modu honetara, hezur-osasunarekin lotura duten aldagai prediktiboak identifikatuz.

#### **4.3.1. Gorputz-osaera, jarduera fisikoa eta egoera fisikoa hezur-zurruntasunean**

Behin hezur-zurruntasunarekin lotuta dauden parametroen korrelazioak aztertutik, hezur-zurruntasuna aurreikusteko, erlazio handiena duten faktoreak zeintzuk diren identifikatu dira. Horretarako, parte-hartzaleek gaur egun duten gorputz-osaera, egiten duten jarduera fisikoa eta azaltzen duten gaitasun aerobiko eta anaerobikoa hezur-zurruntasunarekin nola erlazionatzen diren aztertu dira atzerakako erregresio analisiaren bitartez (4.33. Taula).

**4.33. Taula.** *Stiffness* indizearen aldagai prediktibo anitzeko erregresio eredua.

	Emakumeak <sup>a</sup>				Gizonak <sup>a</sup>				Guztiak <sup>b</sup>			
	B	Beta	P	R <sup>2</sup>	B	Beta	p	R <sup>2</sup>	B	Beta	p	R <sup>2</sup>
				0,331				0,281				0,274
<b>Adina</b> (urteak)	-5,734	-0,264	0,052		-	-	-		-3,849	-0,143	0,081	
<b>Izterreko tolestura</b> (mm)	-	-	-		-0,792	-0,231	0,081		-0,602	-0,229	0,008	
<b>Izterreko perimetroa</b> (cm)	0,793	0,209	0,008		2,133	0,270	0,060		1,672	0,328	< 0,001	
<b>JF oso kementsua</b> (cpm)	-	-	-		2,501	0,288	0,040		0,798	0,145	0,096	
<b>JFNK</b> (cpm)	-	-	-		-	-	-		0,154	0,184	0,035	
<b>Pauso/egun</b>	0,002	0,319	0,002		-	-	-		-	-	-	
<b>Indarra 90º Luz.</b> (Nm)	0,185	0,263	0,016		-	-	-		-	-	-	
<b>Indarra 90º Flex.</b> (Nm)	-	-	-		-	-	-		-	-	-	
<b>VO<sub>2Max</sub> erl.</b> (mL/kg/min)	-	-	-		0,489	0,228	0,096		0,279	0,147	0,079	

B: Ez-estandarizaturiko erregresio koefizientea Beta: Estandarizaturiko erregresio koefizientea JF: Jarduera fisiko, JFNK: Jarduera fisiko neurrizko-kementsua, VO<sub>2Max</sub> erl.: Oxigeno kontsumo maximo erlatiboa.

<sup>a</sup> Adinaren aldagaiarekin doituta. <sup>b</sup> Adina eta sexuaren aldagaiekin doituta.

Erregresioan sartutako parametroak: Adina, Izterreko tolestura, Izterreko perimetroa, Jarduera fisiko oso kementsua, Jarduera fisiko neurrizko-kementsua, Pausoak/egun, Indarra 90º Luzaketa, Indarra 90º Flexioa, Oxigeno kontsumo maximo erlatiboa, Y ardatza, Kaltzio-ahorakina

Hezur-zurruntasunarekin modu adierazgarri erlazionaturiko parametroak oinarri izanda, hezur-zurruntasunaren eta gihar-ehunaren arteko sinergia maila desberdinan antzeman daiteke. Gihar- eta hezur-ehunetan gertatzen diren egokitzapenak interdependenteak dira, giharrean gertatzen diren moldaketak hezurrean aldaketak eragiten baitituzte (Hart eta lank., 2017). Hau honela, jakina da giharrak hezur-indarrean ezinbesteko lotura duela (Cianferotti eta Brandi, 2014). Ikerketa honetako emaitzek gihar-ehunak hezurrean, kasu honetan hezur-zurruntasunean, erlazio zuzena duelaren ideia indartu egiten dute. Antropometria frogan neurturiko perimetroen neurketek bere baitan gihar eta gantz-ehunak hartzen dituzte bitartean, tolesturek larruazalpeko gantza neurtzen dute. Ikerketa honetako emaitzek, alde batetik, izterreko perimetroak hezur-zurruntasunarekin lotura positiboa duela ( $\beta = 0,328$ ,  $p < 0,001$ ), eta, bestetik, izterreko tolestura hezur-zurruntasunarekin modu negatiboan ( $\beta = -0,229$ ,  $p = 0,008$ ) erlazionatzen dela azaltzen dute. Hau honela, izterreko perimetroaren barne dagoen giharrak hezur-zurruntasunarekin positiboki hezur-zurruntasun hobea aurkezten dute ikerketa honetako parte-hartzaleek. Beste ikerketa batean azaltzen dutenez, izterreko gihar-bolumenak hezur-trabekularren arkitekturarekiko erlazio sendoa erakusten du (Bajaj eta lank., 2015). Gainera, ikerketa honetan bezala, beste batzuetan ere gihar-ehun eta hezur-parametroen arteko lotura emakume eta gizonengan azaltzen den erlazioa da (Zhu eta lank., 2015).

Badira bi azalpen gihar-ehunaren eta hezur-parametroen arteko erlazioa azaltzen dutenak. Alde batetik, jakina da gihar- eta hezur-ehunen artean seinaleztapen gurutzatu bat gertatzen dela; giharretik eratorriak diren miokinek hezurrean efektu anabolikoak gauzatzen dituzte (Migliaccio eta lank., 2014; Sioen eta lank., 2017). Hortaz, orduan eta gihar-masa handiagoa izan, gero eta miokina gehiago jariatuko dira, modu horretara hezur-osasunean efektu handiagoa eraginez (Guo eta lank., 2017). Beste alde batetik, gihar uzkurduren ondorioz ematen den estres mekanikoak gihar-ehunarekin lotura du, eta gihar-indarrean emandako aldaketek hezur-indarrean eragiten dute (Tagliaferri eta lank., 2015). Ikerketa honetan,

emakumeengen belaunaren luzapenean, koadrizeps giharrarak egindako indar maximoa hezur-zurruntasunarekin erlazio positiboa duela azaltzen da ( $\beta = 0,263$ ,  $p = 0,016$ ). Honako hau, izterreko perimetro eta tolesturarekiko independientea da.

Atzerako erregresio ereduan, emakumeengan egunean emandako pauso kopurua ( $\beta = 0,319$ ,  $p = 0,002$ ) hezur-zurruntasuna modu positiboan adierazgarriki aurreikusten duen faktore bezala mantendu da azken ekuazioan eta gizonengan aldiz, JF oso kementsua ( $\beta = 0,288$ ,  $0,040$ ). Aurretik aipatu bezala (4.12. taula), emakume eta gizonek egiten duten jarduera fisikoa desberdina da. Sexuen arteko ezberdintasun hau, erregresio ereduetan esanguratsuak azaldu diren aldagaien ezberdintasunaren arrazoi izan daiteke. Gizonak, intentsitate maila altuan egiten diren kiroletan parte-hartzeko; eta emakumeak, aldiz, ibiltzera edota intentsitate maila baxuagoan egiten diren ariketatan aritzeko aurrejoera izaten dute (Abel, Graf eta Niemann, 2001; Azevedo eta lank., 2007).

Hortaz, honako emaitza hauek adierazten dute hezur-garapen egokia izateko, jarduera fisikoaren intentsitate maila aintzat hartu beharrekoa dela. Jarduera fisikoaren intentsitateak hezur-osasunarekin duen erlazioa modu argi batean azaldu da. Inpaktudun jarduera fisikoek duten erlazioa ordea, ez da ondo azaltzen Y ardartzak JFNKarekin ( $R = 0,838$ ,  $p < 0,001$ ) eta egunean emandako pausoekin ( $R = 0,755$ ,  $p < 0,001$ ) azaltzen duen loturaren ondorioz. Hala ere, ardatz-bertikalean egindako mugimenduek, inpaktu karga handiko eta karga-bolumen handiko ariketak gazteengan eragin osteogenikoak dituzte (Yung eta lank., 2005; Rosenberger eta lank., 2017)

Gaitasun aerobikoaren adierazle den  $VO_{2\text{Max}}$ ak ere, hezur-zurruntasunarekin lotura positiboa du batez ere gizonengan ( $\beta = 0,228$ ,  $p = 0,096$ ). Erlazio hau ariketa fisikoak hezur-zurruntasunean eta egoera fisikoan, bietan, duen loturaren ondorioz gerta daiteke. Ikerketan parte hartu dutenen emaitza guztiak batera aztertuz, erregresio ereduco azken ekuazioan,  $VO_{2\text{Max}}$  mantendu egiten da hezur-zurruntasunaren adierazle independiente bezala ( $\beta = 0,147$ ,  $p = 0,079$ ).

## **Emaitzak eta Eztabaida**

---

Azelerometriaren bitartez neurtutako parametroek gaur egungo jarduera fisikoa bakarrik adierazten duten bitartean,  $\text{VO}_{2\text{Max}}$ ak egindako ariketa fisikoa islatu dezakeen parametroa da. Hori dela eta, ariketa fisikoak, gaitasun aerobikoarekin duen loturaren ondorioz, hezur-zurruntasunarekin lotura independientea daukan parametro bezala azaltzen da.

Honekin guztiarekin, intentsitate altuan eta giharra landuz egindako ariketa fisikoak hezur-zurruntasunarekin erlazio positiboa dutela esan daiteke. Alde batetik, ariketa fisikoa egitean, gihar-ehuna landu egiten da eta ikerketa honetako emaitzek, gihar-masa eta gihar-indarra *Stiffness* indizearen eragile positibo independiente bezala erlazionatzen direla adierazte dute. Bestetik, JFNK edota jarduera fisiko oso kementsuaren eta egunean emandako pausoen parametroek, era zuzenean, hezur-zurruntasuna azaltzen duten aldagai independiente bezala mantendu dira. Hortaz, ariketa fisikoa egitea hezur-zurruntasunarekin duen erlaziona kontuan izanik, hezur-osasuna hobetzera bideraturiko prebentzio ekintzak faktore hauetan oinarritu beharko lirateke.

#### **4.4. ESKOLA GARAI DESBERDINETAKO ARIKETA FISIKOAK, GAUR EGUNGO HEZUR-ZURRUNTASUNAREKIN DUEN LOTURA**

Ariketa fisikoaren balorazioa egiterako orduan, ariketa fisikoak aurkeztutako inpaktuaren arabera, bibliografian kontsultaturiko antzeko beste ikerketetan oinarrituz, egin diren 29 ariketa mota ezberdinak 5 talde desberdinetan sailkatu dira (inpaktu karga handia, ezohiko inpaktu karga, karga-bolumen altua, inpaktu karga baxua eta inpakturik ez). Parte-hartzaleek egindako ariketa fisikoak ez dira beti berdinak izan, denborarekin eta garai desberdinetan zehar, kirol praktikak aldatzen joan dira. Parte-hartzaleek lehen hezkuntza (6–11 urte), bigarren hezkuntza (12–15 urte), batxilergo (16–17 urte) eta unibertsitate garaietan zehar egindako ariketa fisikoak, inpaktuaren arabera sailkatuak aztertu dira (4.14. Taula).

**4.14. Taula.** Emakume eta gizon parte-hartzaileek, eskola garai desberdineta zehar egindako ariketa fisikoa inpaktu motaren arabera.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>n (%)</b>	<b>n (%)</b>	<b>n (%)</b>
<b>Lehen-hezkuntza</b>			
<i>Inpaktu karga handia</i>	22 (% 24,7)	10 (% 17,9)	32 (% 22,1)
<i>Ezohiko inpaktu karga</i>	43 (% 48,3)	38 (% 67,8)	81 (% 55,9)
<i>Inpaktu karga baxua</i>	7 (% 7,9)	—	7 (% 4,8)
<i>Inpakturik ez</i>	11 (% 12,4)	7 (% 12,5)	18 (% 12,4)
<b>Bigarren-hezkuntza</b>			
<i>Inpaktu karga handia</i>	27 (% 30,3)	14 (% 25,0)	41 (% 28,3)
<i>Ezohiko inpaktu karga</i>	33 (% 37,1)	31 (% 55,3)	64 (% 44,1)
<i>Inpaktu karga baxua</i>	15 (% 16,8)	1 (% 1,8)	16 (% 11,1)
<i>Inpakturik ez</i>	7 (% 7,9)	8 (% 14,3)	15 (% 10,3)
<b>Batxilergoa</b>			
<i>Inpaktu karga handia</i>	17 (% 19,1)	14 (% 25,0)	31 (% 21,4)
<i>Ezohiko inpaktu karga</i>	21 (% 23,6)	23 (% 41,0)	44 (% 30,3)
<i>Karga-bolumen altua</i>	—	3 (% 5,4)	3 (% 2,1)
<i>Inpaktu karga baxua</i>	17 (% 19,1)	3 (% 5,4)	20 (% 13,8)
<i>Inpakturik ez</i>	11 (% 12,4)	8 (% 14,3)	19 (% 13,1)
<b>Unibertsitatea</b>			
<i>Inpaktu karga handia</i>	12 (% 13,5)	8 (% 14,3)	20 (% 13,8)
<i>Ezohiko inpaktu karga</i>	16 (% 18,0)	15 (% 26,8)	31 (% 21,4)
<i>Karga-bolumen altua</i>	—	8 (% 14,3)	8 (% 5,5)
<i>Inpaktu karga baxua</i>	19 (% 21,3)	5 (% 8,9)	24 (% 16,5)
<i>Inpakturik ez</i>	5 (% 5,6)	5 (% 8,9)	10 (% 6,9)

n (%): Parte-hartzaile kopurua (portzentajea).

***Inpaktu karga handia*** bezala sailkatutako jarduerak, lurzoruaren aurka salto bertikal maximoak burutuz emandakoak dira hala nola, saskibaloia, eskubaloia edo boleibola. Emakume eta gizonetan garai desberdineta zehar emandako joera desberdina da. Lehen- eta bigarren-hezkuntzan zehar, gizon baino emakume

gehiago aritzen dira hauetan jarduten. Baino batxilergo eta unibertsitate garaian, jarduera mota hauek praktikatzen dituzten emakumeen portzentajeak behera egiten du eta gizonak dira batik bat jarduera mota hauek burutzen dituztenak.

***Ezohiko inpaktu karga*** jarduerak bat-bateko norabide aldaketa eta geldialdiak ematen direnak osatzen dituzte. Hauen artean, besteak beste, futbola, tenisa edota eskupilota aurkitzen dira Hauek dira garai guztietañ, beste inpaktu guztien gainetik nabarmenzen direnak bai emakume bai gizonetan. Hala ere, gizonak dira batez ere inpaktudun jarduera hauetan aritzen direnak.


***Karga-bolumen altua*** motatako inpaktu lurzoruarekiko inpakturik jasan gabe, gihar-indar maximoa eginez, astiro eta ondo koordinaturiko mugimenduak biltzen dituen jarduerak dira. Gaur egun, gimnasioetan egiten diren pisu entrenamenduak eta halterofilia talde honetan sailkatzen dira. Gizonak dira jarduera mota hauek burutzen dituztenak batxilergo garaitik aurrera. Aipatzeko da hauen kopurua nabarmen handitzen dela unibertsitate garaian. Emakumeek ordea, ez dituzte inpaktu mota honetako jarduerarik burutzen.

Lurzoruaren aurka, abiadura baxu eta konstante samarrean eta modu iraunkorrean egindako jarduerak ***inpaktu karga baxua*** motatakoak bezala aztertu dira. Besteak beste, aerobic, zumba edo dantza modernoa dira hauen adibide. Batez ere, emakumeak dira hauetan jarduten direnak. Gizonek ordea, ia ez dituzte inpaktu mota honetako jarduerarik burutzen. Hala ere, garai desberdinatan aurrera joan ahala, emakume eta gizonetan, mota honetako jardueretan aritzeko joera gero eta handiagoa da.

Azkenik, ***inpakturik ez*** motatakoak, lurzoruaren aurkako inpakturik izan gabe, gihar-indarra luzaroan egin beharreko jarduerei egiten diete erreferentzia; esaterako, igeriketa, waterpoloa edota spinning-a. Inpaktu mota honen barruan sailkatzen diren jardueretan aritzeko joera oso antzekoa azaltzen dute emakume eta gizonek. Batez ere, lehen-hezkuntza garaian eta batxilergoan burutzen diren jarduerak dira hauek.

### ■ Ariketa fisikoaren jarraipena hezkuntza aldietaan zehar

Parte-hartzaileek, ariketa fisikoa etenik gabe edo, modu tartekatuan aritu diren ezagutuz, ariketa fisikoaren jarraipena aztertu da. Horrela, eskola garai bakoitzean, ariketa fisikoa egiten aritutako parte-hartzaileen portzentajeak aztertu dira (4.2. Grafikoa).



**4.2. Grafika.** Emakume eta gizon parte-hartzaileen ariketa fisikoaren jarraipena. LH: Lehen hezkuntza; DBH: Bigarren hezkuntza; Batx.: Batxilergoa; Uni: Unibertsitatea.  $\chi^2$  \*  $p < 0,05$

Ikerketa honetako parte-hartzaileen gehiengoa, % 58,6 hain zuzen, bizitza osoan zehar, unibertsitate garaia barne, ariketa fisikoa modu jarraikor batean egin izan du. Baino hala ere, badira aurreko garaietan jarduera fisikoa egiteari utzi egin dutenak. Emakumeen % 89,9a lehen-hezkuntzan ariketa fisikoan jardun izan den bitartean, batxilergo garaian, portzentajea % 70,8rarte jaisten da eta unibertsitate garaian % 50,6a da ariketa fisikoa egiten duena. Gizonetan aldiz, nahiz % 71,4ak modu jarraikor batean, etenik gabe, unibertsitate garairarte ariketa fisikoa egiten jarraitzen du. Modu orokorrean, ariketa fisikoa egiten uzteko joera bigarren hezkuntza garaitik aurrera eta batez ere batxilergo garaian azaltzen da. Hala ere, badira garai batean ariketa fisikoa egiteari utzi eta beranduago berriro atzera hartu egiten duten parte-hartzaileak; batez ere emakumeeak (% 9,0).

Lehen eta bigarren hezkuntza garaietan, ariketa fisikoa egiteko ohitura oso zabaldua dago. Ikasketa mailetan aurrera egin ahala berriz, eskolaz kanpoko ekintzetan aritzeko gero eta denbora gutxiago izanda, orduan eta ariketa fisiko gutxiagotan aritzen dira parte-hartzaileak. Hau batez ere emakumeetan antzematen den joera da. Goi-mailako ikasketak egiten dituzten gazteek, ariketa fisikoetan partaidetza gutxitu eta izaera sedentarioarekin erlazionaturiko bizi-ohiturak areagotu egiten dituzte (Gómez-López eta lank., 2011; Deforche eta lank., 2015). Gazteek, unibertsitate garaian, ariketa fisikoan jarduteko dituzten oztopoak ingurumen-arloan eta arlo sozialean aurkitzen dituzte. Euren burua trantsizio-egoera batean aurkitzea, unibertsitate sistemara moldatu beharra eta presio akademikoak sortarazten dizkien ardurak ariketa fisikoan jarduteari utzi egitea eragiten die (Aceijas eta lank., 2017)

#### ■ Ariketa fisikoa ez egitea

Ariketa fisikorik egiten ez duten pertsonak ere kontuan hartu beharrekoak dira. Horretarako, garai desberdinatan, ariketa fisikoarekin erlazionaturiko eskolaz kanpoko ekintzarik egiten ez duten parte-hartzaileen kopuru eta portzentajeak aztertu dira (4.15. Taula).

**4.15. Taula.** Eskolaz kanpo, ariketa fisiko ekintzak egin ez duten emakume eta gizon parte-hartzaileak.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztiak</b>
	<b>n (%)</b>	<b>n (%)</b>	<b>n (%)</b>
<b>Lehen hezkuntza</b>	6 (% 6,7)	1 (% 1,8)	7 (% 4,8)
<b>Bigarren hezkuntza</b>	7 (% 7,9)	2 (% 3,6)	9 (% 6,2)
<b>Batxilergoa</b>	23 (% 25,8)	5 (% 8,9)*	28 (% 19,3)
<b>Unibertsitatea</b>	37 (% 41,6)	15 (% 26,8)*	52 (% 35,9)

n (%): Parte-hartzaile kopurua (portzentajea).

Chi-Pearson \* p < 0,05

Eskola garai desberdinatan aurrera igaro ahala, gero eta gehiago dira eskolaz kanpoko ekintzetan edota denbora libreatu jarduera fisikorik egiten ez duten parte-hartzaileak. Emakume eta gizonen artean badira desberdintasun esanguratsuak eta

hauek nabariagoak dira batxilergo ( $p = 0,017$ ) eta unibertsitate ( $p = 0,037$ ) garaietan.


Emaitza hauekin bat egiten duten ikerketak badira. Batxilergo garaikitik unibertsitatera igarotzean, gazteek, ez dute behar adina ariketa fisikorik egiten (Han eta lank., 2008; Wengreen eta lank., 2009). Modu horretara, bizi-ohitura sedentarioak, eskola garaietan aurrera egin ahala, nabarmenean handitzeko joera azaltzen dute.

### **■ Ariketa fisiko federatuak**

Federatu bezala aritutako kirolak lehiakorrak dira eta txapelketetan parte-hartu behar izanak entrenamendu mota, intentsitate eta maiztasunarekin erlazioa du Hau kontuan izanik, parte-hartzaleek egindako ariketa fisiko desberdinak federatu mailan egiten zitzuten edo ez aztertu da.

Lehen-hezkuntzan, kirolean aritzen ziren parte-hartzaleen % 33,3a bakarrik aritu izan da federatu gisa. Izan ere, adin tarte honetan, eskola kiroletan aritze da ohikoena. Portzentaje hori bigarren-hezkuntza garaian % 80,9a izatera heldu da, bere maila maximora hain zuzen. Batxilergo garaian, kirolean federatu bezala parte-hartzen dutenen portzentajea % 67,5 izatera jaitsi egin da eta unibertsitate garain jaitsiera hori % 49,5era iritsi da. Modu horretara, kirol desberdinetan federatu eta ez-federatuak diren parte-hartzale kopurua ia berdinduz.

Eskola garai desberdinetan, inpaktu mota desberdinetan aritzen direnen parte-hartzale federatuen portzentajea aztertu da (4.3. Grafika).



**4.3. Grafika.** Eskola garai desberdinietan zehar, federatu bezala jardundako parte-hartzileen portzentajea inpaktu motaren arabera.

LH: Lehen hezkuntza. DBH: Bigarren hezkuntza. Batx.: Batxilergoa. Uni: Unibertsitatea.

Inpaktu handi eta ezohiko kiroletan parte-hartzen dutenak dira batik bat federatu bezala aritzen direnak. Saskibaloia, eskubaloia, boleibola eta futbola taldeko kirolak dira eta badira federazioak lehiaketak antolatu eta sustatzen dituztenak. Batez ere, bigarren hezkuntza eta batxilergo garaian, Inpaktu handiko kargadun ariketak bigarren hezkuntza (% 97,6) eta batxilergo garaian (% 96,8) federatu bezala praktikatzen dira. Ezohiko inpaktu kargadun ariketetan aritzen diren parte-hartzialeak ere bigarren-hezkuntza (% 84,4) eta batxilergo garaian (% 84,1) zehar federatu bezala egiten dute.

Inpakturik jasaten ez duten kiroletan ere, federatuak direnen portzentajea altua da bigarren-hezkuntzan (% 80) eta unibertsitatean (% 70), lehen hezkuntzan (% 22,2) eta batxilergo garaian (% 47,4) baino. Izan ere, igeriketan, waterpoloan, piraguismoan eta bizikletan aritzen direnek, entrenamendu ordu asko izaten dituzte eta batxilergo garaian normalean gazteen kezka ikasketak izaten direnez gero, ez dute kirol hauetan federatu gisa parte-hartzen.

Aldiz, inpaktu baxua bezala sailkatutako kiroletan jarduten diren gehienak ez-federatu bezala aritzen dira eskola garai guztietañ zehar. Gutxi dira inpaktu karga

baxua duten ariketak federatu bezala egiten dituztenak eta hauen parte-hartzaileerik portzentaje handiena bigarren-hezkuntzan (% 25) azaltzen da. Normalean, aerobic, zumba, eta gimnasioko klaseetara joaten direnek, nahiz eta klaseak taldean eta entrenatzaile edo monitore batekin egin, ez dira talde edo elkarte baten parte eta euren kabuz, eta autodiziplinan independentzia puntu bat izanik egiten dituzte. Aipatzeko da ere, batxilergo eta unibertsitate garaian bakarrik jarduten den bolumen karga altuko inpaktu kirola, gimnasioan pesak egitea alegia, % 100ean ez-federatu bezala egiten dela.

### **4.4.1. Inpaktudun ariketa fisikoa hezur-zurruntasunean**

Kobariantza analisiari esker, garapen garai bakoitzean, inpaktu mota desberdinako ariketa fisikoak hezur-zurruntasunarekin nola erlazionatzen diren azter dezakegu. Eskola garai desberdinatan, inpaktudun jarduera fisikoek *Stiffness* indizearekin duten erlazioa aztertu da (4.31. Taula).

**4.31. Taula.** Inpaktu maila desberdinako ariketa fisikoentzat eta *Stiffness* indizearen arteko erlazioa eskola garai desberdineetan.

	<b>Lehen hezkuntza</b>		<b>Bigarren hezkuntza</b>		<b>Batxilergoa</b>		<b>Unibertsitatea</b>	
	<b>Bb ± ds</b>	<b>P</b>	<b>Bb ± ds</b>	<b>p</b>	<b>Bb ± ds</b>	<b>p</b>	<b>Bb ± ds</b>	<b>p</b>
		0,082		0,027		0,002		0,016
<b>Inpaktu karga handia</b>	123,3 ± 17,9 <sup>#</sup>		120,4 ± 19,4 <sup>†‡</sup>		124,1 ± 18,1 <sup>‡</sup>		126,9 ± 17,0 <sup>†‡</sup>	
<b>Ezohiko inpaktu karga</b>	117,1 ± 20,4		118,7 ± 21,7		122,3 ± 21,4 <sup>§</sup>		124,4 ± 24,3 <sup>§</sup>	
<b>Karga-bolumen alta</b>	—		—		116,3 ± 33,0		117,9 ± 20,9	
<b>Inpaktu karga txikia</b>	121,4 ± 20,4		107,4 ± 11,3		113,8 ± 8,7		113,8 ± 12,9	
<b>Inpakturik ez</b>	110,3 ± 20,1		122,5 ± 17,3 <sup>§</sup>		117,3 ± 22,2		116,7 ± 25,1	
<b>Ariketa fisikorik ez</b>	104,7 ± 19,9		101,6 ± 18,6		104,3 ± 18,0		110,9 ± 18,1	

Sexu aldagaiarekiko doituta.

Bb ± ds: Batez bestekoa eta desbideratze estandarra.

<sup>#</sup> Inpaktu karga handia eta inpakturik ez dutenen ariketa fisikoentzat arteko analisia ( $p < 0,05$ ).

<sup>†</sup> Inpaktu karga handia eta inpaktu karga txikia duten ariketa fisikoentzat arteko analisia ( $p < 0,05$ ).

<sup>‡</sup> Inpaktu karga handia eta ariketa fisikorik egiten ez dutenen arteko analisia ( $p < 0,05$ ).

<sup>§</sup> Inpakturik ez duten eta ariketa fisikorik egiten ez dutenen arteko analisia ( $p < 0,05$ ).

<sup>§</sup> Ezohiko inpaktu karga eta ariketa fisikorik egiten ez dutenen arteko analisia ( $p < 0,05$ ).

Hezur-zurruntasuna bigarren hezkuntzan ( $p = 0,027$ ), batxilergo ( $p = 0,002$ ) eta unibertsitate garaietan ( $p = 0,016$ ) egindako ariketa fisikoaren arabera moldatzen da. Hala ere, lehen hezkuntzako ereduau, nahiz eta modu adierazgarrian ez izan, inpaktu karga handiko ariketetan jardun direnak, gaur egun, inpakturik ez duten ariketetan aritutakoek baino *Stiffness* indize altuagoa dute ( $p = 0,017$ ). Bigarren hezkuntzan inpaktu karga handiko eta inpakturik gabeko ariketa fisikoak egindakoek, garai horretan ariketa fisikorik egin ez dutenek baino hezur-zurruntasun altuagoa dute gaur egun ( $p = 0,021$ ;  $p = 0,028$ ). Era berean, batxilergo eta unibertsitate garaian, inpaktu karga handiko ( $p = 0,001$ ;  $p = 0,003$ ) eta ezohiko inpaktu kargadun ariketa fisikoak ( $p = 0,001$ ;  $p = 0,007$ ) egindako parte-hartzaileek, ariketa fisikorik egin ez dutenek baino *Stiffness* indize altuagoa dute. Bestalde, bigarren hezkuntza baita unibertsitate garaian ere, inpaktu karga handiko ariketak egiten dituztenek, inpaktu karga txikian aritzen direnak baino hezur-zurruntasun hobeak dute ( $p = 0,039$ ;  $p = 0,040$ ).

Ikerketa gutxi dira inpaktudun ikuspuntutik populazio gazte batean ariketa fisikoaren jarraipena, hezurraren *Stiffness* indizearekin zer nolako erlazioa duen aztertu dutenak (Nakazono eta lank., 2014). Bigarren-hezkuntzatik aurrera, inpaktu mota desberdinako ariketa fisikoa egiten dutenek hezur-osasunean aldaketa adierazgarria dute. Lehen hezkuntzan, egindako ariketa fisikoaren gehiengoa, jolas-orduetara eta hezkuntza-fisikoko irakasgaira mugatuta dago. Hori dela eta, eskola garai horretan inpaktudun ariketa fisiko desberdinen artean ez da ezberdintasun esanguratsurik azaldu. Izan ere, garai horretan umeek normalean egiten duten ariketa fisikoa nahiko homogeneoa da eta, horregatik, inpaktudun ariketa fisiko desberdinek hezurrean eragiten duten erantzuna nahiko antzekoa izan daiteke. Gainera, bigarren hezkuntzatik aurrera da parte-hartzaileek federatu bezala aritzen hasten diren garaia. Federatuak diren ariketa fisikoak lehiakorrak dira eta, hortaz, hauen entrenamenduak federatuak ez direnak baino antolatuagoak eta egituratuagoak izan behar dira. Modu honetara, ariketa fisiko bakoitzak

hezurrekin izango duen erlazoa espezifikoagoa izango da, eta gazteen hezurretan azaltzen diren ezberdintasunak areagotu egingo dira.

Bizi-ohiturak aldakorrak dira, eta ariketa fisikoaren ohitura ere denboran zehar aldatu egiten da. Inpaktudun ariketen efektu onuragarriak bigarren hezkuntza, batxilergo eta unibertsitate garaietan dira nabariago. Hala ere, hezurrak estres mekanikoari erdi-pubertarotik menarkia arte edo Tanner II-IV aroetan inoiz hobeto erantzuten dio (Beck, 2017). Adinarekin erlazionaturiko, bai GH (*growth hormone*) eta sexu hormonen, baita gorputz-osaeraren aldaketek, eskola-garai bakoitzean, parte-hartzaileek duten heldutasun mailarekin erlazionaturik daude, eta hezurraren *Stiffness* indizeak inpaktudun ariketa fisiko bakoitzaren aurrean duen erantzunarekin lotura izan ahalko lukete.

Ikerketa honetan, bigarren hezkuntzan ez ezik, inpaktu karga handia eta ezohiko karga inpaktudun ariketak egin dituzten parte-hartzaileek, inpaktu karga txikia edota ariketa fisikorik egin ez dutenek baino *Stiffness* indize altuagoak dituztela esan daiteke. Aurretik egin diren beste ikerketetan ondorioztatu bezala, inpaktudun ariketa fisikoak hezur-geometrian, indarrean eta, azken finean, hezur osasunean onurak eragiten dituela adierazten dute (Tenforde eta Fredericson, 2011). Bestelako ikerketetan, nerabezaroan hezur-maila suspertzeko inpaktudun ariketa fisikorik eraginkorrena, inpaktu maila handia dutenak direla ondorioztatzen da (Sayers eta lank., 2011; Deere eta lank., 2012). Gainera, baloia erabili behar izaten diren kirolak inpaktu-maila altua eta ezohikoa bezala sailkatuak dira, eta hauen sustapena, hezur-osasuna suspertzeko estrategia bezala azal daiteke. Izan ere, baloia oinarri duten kirolen bereizgarri diren norabide anitzeko inpaktuek eta lurzoruarekiko erreakzio indar handiek, hausturei hobeto aurre egin ahal izango dieten hezur-zurrunagoak izaten laguntzen dute (Tenforde eta lank., 2015).

Hala ere, espero ez genuen bezala, bigarren hezkuntzan hezur-zurruntasun milarik altuenak inpakturik ez duten ariketa fisikoak egiten dituzten parte-hartzaileek aurkezten dituzte. Kontuan hartu beharrekoa da, giharrak inpakturik ez duten

ariketa fisikoetan, hala nola igeriketan, waterpoloan, spinningean eta piraguismoan, garrantzizko papera duela. Giharrak eta hezurrak elkarri eragiten dioten ehunak dira eta umeengan gihar-masaren garapenak hezur-metaketa suspertu egiten duela ondorioztatzen duten ikerketak argitaratu dira (Klentrou, 2016; Gabel eta lank., 2017; Mitchell eta lank., 2018).

Nahiz eta alde batetik, inpakturik ez duten ariketa fisikoak egiten dituzten pertsonen eta biztanleria sendentarioaren hezur-osasuna alderatu eta parekatu izan dituzten ikerketak izan (Gómez-Bruton eta lank., 2013). Bestetik, haurtzaro eta nerabezaro hasieran, hezurrean, desberdintasun gutxi antzematen dira igeriketa edo inpaktu maila altuko ariketak egiten dituzten kirolarietan (Gómez-Bruton eta lank., 2016). Izan ere, desberdintasunak, ikerketa honetan ikusten den bezala, metatzefektu baten ondorioz, denborarekin agertzen doaz.

Inpaktu-karga txikia bezala sailkatutako ariketa fisikoak, hala nola zumba, aerobic edo dantza, egiten dituzten pertsonak normalean ez dira federatuak izaten eta hauek, normalean, intentsitate maila baxuagoetan praktikatzen dira. Haurtzaroan jarduera fisiko neurrizko-kementsuak izango den ondorengo hezur osasunarekin duen lotura aztertu den ikerketa batean, haurtzaroan egindako jarduera fisiko neurrizko-kementsuak hezur-masa edukia handitu eta hezur osasuna mantendu eta luzatu egiten dituela ikusi da (Janz eta lank., 2010). Baino beste ikerketa batean, iraupen berdina izanda, jarduera fisiko kementsuak hobeto erlazionatzen dira hezur *Stiffness* indizearekin, jarduera fisiko neurrizko-kementusan egindako jarduera fisikoak baino (Cardadeiro eta lank., 2012). Hortaz, inpaktuaren ikuspuntutik aztertuz, inpaktu maila txikiko ariketa fisikoak hezur-zurruntasun baxuarekin erlazionatzearen arrazoia, hauek beste inpaktu motetan baino intentsitate maila baxuagoan egiten direla izan daiteke.

Hori dela eta, hezur-garapena suspertzeko gomendaturiko ariketa fisikoak ez dira bakarrik inpaktu maila alta dutenak izan behar. Inpakturik ez duten ariketa fisikoek ere, gihar-masa eta indarra handituz, hezur-egituraren tentsioak sortzen

dituzte, eta hauek zeharka hezur osasunaren hobekuntzan eragiten dute (Vicente-Rodríguez, 2006). Gainera, inpakturik ez duten ariketak egin dituzten parte-hartzaileen hezur *Stiffness* indizea, batxilergo garaitik aurrera, karga-bolumen maila altuko ariketak egiten dituztenekin alderatuz, ez da modu esanguratsuan desberdintzen. Izan ere, karga-bolumen maila altuko ariketetan aldagai dinamikoak eta giharraren nabarmenezko paperak estimulu egokia eragiten dute, hezurrean estres osteogenikoa eman dadin (Daily, 2007).

#### **4.4.2. Ariketa fisikoaren jarraipena hezur-zurruntasunean**

Egindako ariketa fisikoaren jarraipenak hezur-zurruntasunarekin duen lotura aztertu da (4.32. Taula).

**4.32. Taula.** *Stiffness* indizearen eta jarduera fisikoa mantentzearen arteko erlazioa.

	<i>Stiffness</i> indizea $Bb \pm ds$	P
		0,007
<b>Lehen hezkuntza</b>	103,83 ± 21,74 <sup>#</sup>	
<b>Bigarren hezkuntza</b>	104,46 ± 17,14 <sup>†</sup>	
<b>Batxilergoa</b>	117,27 ± 16,51	
<b>Unibertsitatea</b>	121,50 ± 20,28	
<b>Ez-jarraitua</b>	109,45 ± 19,93	

Sexu aldagaiarekiko doitura.  $Bb \pm ds$ : Batez bestekoa eta desbideratze estandarra.

<sup>#</sup> Ariketa fisikoa lehen hezkuntzararte eta unibertsitate garairarte egindakoen arteko analisia ( $p < 0,05$ ).

<sup>†</sup> Ariketa fisikoa bigarren hezkuntzararte eta unibertsitate garairarte egindakoen arteko analisia ( $p < 0,05$ ).

Zenbat eta denbora luzeagoan jarduera fisikoa egiten jardun, orduan eta hezur-zurruntasun hobea da ( $p = 0,007$ ). Modu jarraikor batean, etenik gabe, bizitzan zehar jarduera fisikoa egin izan duten parte-hartzaileek *Stiffness* indize handiagoa dute lehen-hezkuntzararte ( $p = 0,038$ ) edota bigarren-hezkuntzararte ( $p = 0,009$ ), bakarrik egin dutenek baino.

Ariketa fisikoaren jarraipenari dagokionez, garai aurre- eta peri-puberalak dira hezur estimuluekiko sentikorrenak (Tan eta lank., 2014). Hezur-garapenean pubertaroa garai erabakigarria da, persona batek izango duen hezur masa totalaren %26a 11,5 – 13,5 urte bitartean lortzen da emakumeengan; eta 13 – 15 urte bitarte gizonengan (MacKelvie, Khan eta McKay, 2002). Urte horietan hezurrean gertatzen diren hobekuntzek hezur-dentsitate mineral maila maximo handiago eta hobea izatea eragiten dute, eta, aldi berean, etorkizunean osteoporosia pairatzeko arriskua gutxitu (Broke eta lank., 2016). Hori dela eta, nerabezaroan egindako ariketa fisikoak, duen ahalmen osteogenikoagatik, *Stiffness* indizearekin modu positiboan erlazionatu eta osteoprosiaren hastapena atzeratu eta moteldu egiten ditu (Lau eta lank., 2017).

Eskola garaiak aurrera egin ahala, derrigorrezkoak diren heziketa-fisikoko 2 orduko klaseak besterik egiten ez duten parte-hartziale kopurua handitzen doa. Parte-hartzailerik inaktiboenak, heziketa fisikoko klaseen gain ariketa fisikorik egiten ez dutenak, hezur *Stiffness* indize baxuenak dituzte aztertu diren eskola garai guztietañ. Fisikoki aktiboak ez diren gazteek duten hezur dentsitate mineral maila maximoa, hazkuntza garaian, ariketa fisikoa modu erregular batean egiten dutenena baino baxuagoa da (Booth eta lank., 2017). Gainera, fisikoki ez-aktiboa izateak hezur-galera eta narriadura areagotzen ditu (Booth, Roberts eta Laye, 2012). Ikuspegi mekanistikotik, ariketa fisikoa ez egiteak modu negatiboan eragiten du hezur birmoldaketan, baita hezur-dentsitate mineral maila maximo egokia lortzeko prozesuan ere, hezur bixurgapen eta eraketaren arteko oreka balantza eragotziz (Maggioli eta Stagi, 2017).

Ikerketa honetako hezur-zurruntasunaren adierazle den *Stiffness* indize handia, ariketa fisikoa modu jarraitu eta mantendu batean egin duten parte-hartzailleek azaldu dute. Aktiboagoak izan diren parte-hartzialeak, ariketa fisikoak hezurrean dituen efektu positiboak denboran zehar eutsi ahal dituzte. Hala ere, kirol egiteari utziz gero, kirolean mantentzen direnak baino hezur dentsitate mineral baxuagoak aurkezten dituzte. (Tenforde eta Fredericson, 2011). Bestalde, haurtzaroan,

saltodun ariketak hezur masa areagotzen laguntzen dute eta onuren efektuak denboran mantendu egiten direla ikusi da (Gunter eta lank., 2008).

Eskola garaian dauden gazteengan egindako ikerketetan, hezurrean aldaketak sortzeko 10 aste, 3 eta 20 hilabetetako ariketa fisikoko programak nahikoa izan daitezkela ikusi da (Iuliano-Burns eta lank., 2003; MacKelvie eta lank., 2004; Casazza eta lank., 2012). Dena den, aipatu beharra dago, aldaketa horiek hezurrean epe luzeera eraginkorra izan daitezen, ariketa fisikoarekin gertatzen diren aldaketak denboran zehar mantenduak izan beharko liratekeela. Aipaturiko ikerketetan, ez da esku-hartzeen eraginaren iraupena aztertzen, baina hala ere, ikerketa honen emaitzetan eskola-garai guzietan zehar, etapa pre-puberaletik gaztarora iritsi arte, ariketa fisikoa modu jarraian egitea hezur-zurruntasuna suspertzeko garrantzitsua dela antzeman daiteke.

Gaur egungo gazteek, ikerketa honetan adierazi den bezala, eskola garaietan aurrera egin ahala, orduan eta ariketa fisiko gutxiago egiteko joera azaldu dute. Hau guztia kontuan hartuz, inpaktudun ariketa fisikoak hezur-zurruntasunarekin erlazio positiboa duela esan dezakegu; inpaktu mota bakoitzak dituen ezaugarriengatik, hezur eta giharraren arteko loturarengatik edota ariketa fisikoan jardutea bizimodu aktiboago batekin duen erlazioagatik izan liteke. Era berean, ariketa fisikoa modu jarraian, eskola-garai guzietan zehar eta haurtzarotik nerabezaro amaiera arte egitea, hezur osasun hobearrekin erlazionatu egiten da. Hau honela, iraunkorra den ariketa fisikoa hezur-zurruntasun handia lortu eta mantentzen laguntzen duen sustatzaile garrantzitsua izan daiteke. Hau ez litzateke bizitzako lehen garaietan bakarrik kontuan hartu beharreko eragilea izan behar. Honako osasun-estrategiak, hezur-dentsitate mineral maila maximo altuagoa izatearen, eta, behin hau lortutakoan, hezur-dentsitate maila mantentzearen aldekoak direnez, bizitza osoan zehar gogoan izan beharko lirateke hezur-osasun hobea izateko. Hortaz, hezur-dentsitate maila maximoa lortu eta ondorengo garaietan ere, osteoporosiaren aurkako prebentzioan, hezur-dentsitate eta zurruntasuna mantentzera bideraturiko esku-hartzeetan gogoan hartu behar izango litzateeken faktorea da.

### 4.5. EMAITZEN ANALISI OROKORRA

Ikerketa honetan, hezur-dentsitate maila maximoa lortzear dauden unibertsitateko gazteen gorputz-osaerak, elikadura-ohiturek, jarduera- eta ariketa fisikoak, egoera fisikoak eta bestelako bizi-ohiturek, hezur-zurruntasunarekin duten lotura aztertzea izan da. Hau honela, lehenik parte-hartzaileen orpo-hezurrean, balioztaturiko ultrasoinuen bidezko dentsitometria frogaren bitartez, hauen hezur-zurruntasunaren adierazle den *Stiffness* indizea neurtu egin da eta ez da emakume eta gizonen arteko ezberdintasun adierazgaririk aurkitu.

Antropometriaren bitartez, unibertsitateko ikasleen gorputz-osaera eta egiturarekin erlazioa duten parametroak neurtu dira. Hauetan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak antzeman dira; emakumeek gantz-ehun portzentaje eta somatotipo endomorfiko handiagoak dituzten bitartean, gizonek gihar-ehun portzentaje handiagoa dute. Hau honela, azal-tolestura eta gorputz-adarretako perimetroen ezberdintasunak modu adierazgarrian azaldu dira. Emakumeek gizonek baino azal-tolestura handiagoak dituzte eta gizonek, goputz-adarretako perimetro handiagoak. Nahiz eta emakume eta gizonen arteako gorputz-osaera desberdina izan, era antzeko batean erlazionatzn dira hezur-zurruntasunarekin. Gihar-ehunak, bai emakume baita gizonetan ere, *Stiffness* indizearekiko joera positiboa azaldu du. Beste alde batetik, gantz-ehunak emakume eta gizon parte-hartzaileen hezur-zurruntasunarekin joera negatiboa aurkezten du. Hezur-zurruntasunak, neurturiko azal-tolestura eta gorputz-adarretako perimetroekin duen lotura aztertzean, gizonen enbor tolesturak eta zehatzago tolestura abdominalak, *Stiffness* indizearekin lotura negatiboa duela azaldu da. Honetaz aparte, aipatzeko da izterreko perimetroak hezur-zurruntasunarekin duen lotura positiboa, izan ere, lotura positibo hau modu adierazgarri batean eta emakume eta gizonentan azaldu da.

Parte-hartzaleen elikaduraren balorazioa egiteko helburuarekin, 5 eguneko egunkari dietetikoa burutu da. Honela, ahoraturiko makro- eta mikromantenugaiaek ezagutu eta hauek hezur-zurruntasunarekin duten lotura aztertu ahal izan da. Parte-hartzaleek ez dituzte gomendaturiko makro- eta mikromantenugai ahoratze egokiak aurkeztu eta kasu batzuetan, ez dira gomendio minimoak asetzera iritsi. Makromantenugaiei dagokionez, unibertsitateko ikasleen dieta desegokia da; hiperproteikoa, hiperlipidikoa eta hipogluzidikoa. Hala ere, ez da hauen eta hezur-zurruntasunaren arteko lotura esanguratsurik aurkitu. Beste alde batetik, mikromantenugaiei dagokienez, bitamina hidrosolugarri eta mineral eta elektrolitoen ahoratzeak izan dira hezur-zurruntasunarekiko lotura modu argiago batean azaldu dutenak. Gero eta tiamina, azido askorbiko eta B<sub>6</sub> bitamina ahoratze altuagoak izan, orduan eta hezur-zurruntasun handiagoa aurkeztu dute ikerketa honetako parte-hartzaleek. Bestetik, kaltzio, potasio, eta fosforo ahoratzeak ere, hezur-zurruntasunarekiko lotura positiboa azaldu dute.

Parte-hartzaleek egindako jarduera fisikoa eta aurkezten duten jokabide sedentarioak ezagutzeko, 7 egunetako azelerometria erregistro bat egin da. Jarduera fisikoaren intentsitate maila desberdinek hezur-zurruntasunarekin duten papera aztertzean, bai emakume baita gizonetan ere, intentsitate maila handiko jarduera fisikoak *Stiffness* indizearekin lotura positiboa dutela agerian geratu da. Honez gain, Y ardatzean egindako mugimendua eta egunean emandako pauso kopuruak, hezur-zurruntasunarekin lotura positiboa azaldu dute emakumeetan.

Egoera fisikoaren balorazioa egiteko, gaitasun aerobikoa (oxigeno kontsumo maximoa) eta gaitasun anerobikoa (indar-esplosiboa eta gihar-indarra) neurtu dira. Nahiz eta emakume eta gizonek egoera fisiko desberdina izan, bi kasuetan hezur-zurruntasunarekin lotura dutela ikusi da. Alde batetik, gaitasun aerobikoak, hezur-zurruntasunarekin lotura positiboa azaldu du bi sexuetan. Bestetik, emakumeetan, gaitasun anaerobikoen adierazle den koadrizepsaren gihar-indarra, eta, gizonetan iskiotibialen indarra, izan dira *Stiffness* indizearekin modu positiboan erlazionatu direnak.

Alkohol eta tabako kontsumoak, tratamendu farmakologikoek eta hezur-hausturak pairatu izanak hezur-zurruntasunarekin duten lotura aztertzeko, parte-hartzaleek faktore hauen inguruko galdeketa bat burutu dute. Hala ere, aldagai hauen eta *Stiffness* indizearen arteko lotura, ez da era adierazgarrian azaldu.

Hau honela, ikerketa honetan, hezur-zurruntasunarekin lotura duten aldagai prediktiboak identifikatu dira. Hezurrean giharrak duen babes-papera agerian geratu da. Alde batetik gihar-masa (izterreko perimetroa) eta bestetik gihar-indarra (koadrizepsa emakumeengan), *Stiffness* indizearekiko lotura positiboa azaldu dute. Bestetik, gantz-ehunaren erakuslea den izterreko tolesturak, *Stiffness* indizearekiko lotura negatiboa du.

Jarduera fisikoari dagokionez, intentsitate maila altuetan aritza (neurrikoskemtsu eta oso kementsu) eta gaitasun aerobikoa (oxigeno kontsumo maximoa) hezur-zurruntasun handiagoarekin erlazionatu egiten dira bi sexuetan. Emakumeetan, egunean emandako pauso kopurua eta gaitasun anaerobikoa (koadrizepsaren gihar-indarra) dira hezur-zurruntasunaren faktore positibo independiente bezala azaldu direnak. Eta gizonetan, jarduera fisikoa intentsitate oso kementsuan egitea eta gaitasun aerobikoa (oxigeno kontsumo maximoa) dira hezur-zurruntasun handiagoarekin modu adierazgarriago batean erlazionatu direnak.

Bizitzan zehar egindako ariketa fisikoak gaur egungo hezur-zurruntasunarekin duen lotura aztertzeko, modu erretrospektiboan, partaideek egindako ariketa fisikoa inpaktuaren eta jarraipenaren ikuspegitik azertu da. Ariketa fisikoa egiteak hezur-zurruntasunarekin lotura positiboa azaldu du. Bigarren hezkuntzatik aurrera, inpaktudun ariketa fisiko mota bakoitzak *Stiffness* indizearekin lotura duela agertu da. Inpaktu karga maila handia eta ezohiko inpaktudun ariketa fisikoak sortutako tentsioen eraginez, hezur-zurruntasun handiekin erlazionatu dira. Bestetik, inpakturik gabeko ariketa fisikoetan gihar-ehunak eragindako indarren ondorioz, *Stiffness* indize maila altuak ere azaldu dira. Hau honela, inpaktu karga handiko

ariketa fisikoez gain, inpakturik ez duten ariketek, zeharka, gihar-ehunaren bitartez hezurrean tentsioak sortuz, hezur-osasun hobearekin erlazionatu egiten dira.

Azkenik, ariketa fisikoaren jarraipena eta hezur-zurruntasunaren artean erlazio positibo bat dagoela agerian geratu da. Modu horretara, eskola garai guztieta zehar, ariketa fisikoa etenik gabe egiteak, hezur-zurruntasun handiagorekin dauka lotura. Hau horrela, ariketa fisikoak duen ahalmen osteogenikoa denboran zehar mantentzeko, ariketa fisikoa era jarraitu batean egitean datza.

Laburbilduz, ikerketa honetan, hezur-dentsitate maila maximoa lortzean dauden gazteen hezur-zurruntasunarekin erlazionaturiko faktore desberdinaren artean, hezurrarekiko lotura gehien duten aldagaiak zeintzuk diren ezagutu ahal izan da. Emaitza hauekin, hezur indartsu eta osasuntsuagoak izatea ahalbidetu dezaketen osasun-programa eraginkor eta zehatzagoak garatu ahalko lirateke. Aldagai desberdinek hezur-zurruntasunarekin duten lotura jakinez, hezur-osasuna hobetzera bideraturiko prebentzio programak diseinatu daitezke. Modu horretara, haurtzaro eta gaztaroan hezur-dentsitate maila maximo handiagoa lortzea sustatuz eta helduaroan hezur-dentsitatea mantendu eta hezur-galera murriztuz.

#### **4.5.1. Mugak eta etorkizunerako proposamenak**

Beste ikerketa guztieta bezalaxe, honako honetan ere badira sendotasun eta mugak. Hezur-zurruntasunaren eragileak zehazteko ikerketa honen hasierako diseinua, metodo ez-inbaditzaileak erabiliz, emaitza sendo, fidagarri eta nabarmenak lortzeko helburuarekin egin da baina kontuan izandako faktoreen azterketa egiterako orduan, muga batzuk ere azaldu dira.

Alde batetik, ikerketa honetako lagina, parte-hartzale populazio oso konkretu batek osatutakoa izan da. Denak, 18-21 urte bitarteko unibertsitate ikasleak izan dira. Oraindik hezur-garapen prozesua amaitu gabe eta hezurrarekin erlazionaturiko efektuak dituzten patologiak ez duten gazteak izan dira ikerketan parte-hartu dutenak. Gainera, hain populazio zehatza izanagatik, bizi-modu eta ohitura

antzerakoak aurkeztu dituzte eta horrek hezur-zurruntasunean lotura duten faktore bereizleak identifikatzea zaildu du. Beste alde batetik, tabako, alkohol eta tratamendu farmakologikoek gorputz-osasunean eta hezurrean dituzten loturak, luzaroko kontsumo edo espozisio baten ondoren antzematen dira eta gazte hauek ez dituzte oraindik hauetako ohitura bilakatzeko denborarik izan.

Hau honela, ikerketa honetan lortutako emaitzetan sakontzeko aukera bat, laginaren tamaina handitza izango litzateke. Emakume eta gizonen hezur-zurruntasunarekin erlazionaturiko faktoreak ez dira beti berdinak izan eta hortaz, sexuen arteko ezberdintasuna kontuan izanik, laginaren tamaina handitzerako orduan, emakume eta gizon parte-hartzaile kopurua modu berdinean handitu beharko litzateke. Gainera, unibertsitate ingurutik aparte, parte-hartzaileak 18-21 urte bitarteko populazio-orokorreko gazteetara hedatuz, bizi-ohituretan aldakortasun gehiago antzeman ahalko liratekez. Era horretan, hauetako hezur-zurruntasunarekin duten erlazioa hobetu zehaztu ahalko litzatekeelarik.

Nutrizio atalari dagokionez, kontsumituriko makro- eta mikromantenugai ahorakinen kuantifikazioa parte-hartzaileek indibidualki betetako egunkari-dietetikoan oinarritu da. Honako hau, hainbat ikerketetan erabilia den froga da eta ikerketan erabiltzeko balioztaturik dago (Ortega, Perez-Rodrigo eta López-Sobaler, 2015). Baino nahiz eta froga aurrera ondo eraman ahal izateko parte-hartzaileei azalpen eta instrukzioak eman, ahoraturikoaren kantitateak eta plateren prestaketa ez da kasu guztietaan behar adina zehatza izan. Gainera kantitateak adierazteko orduan, osasunean efektu negatiboa duten elikagaien kontsumoa gutxietzi egiteko eta efektu positiboak dituztenak gainestimatzen joera dago (Sidor, Glabska eta Włodarek, 2016).

Etorkizuneko ikerketa batean, atal hau aztertzeko lehenengo aukera odol-analitikak egitea izango litzateke. Izan ere, modu horretara, gantz-mota desberdinak, mineral eta elektrolitoek hezurrean duten lotura era zehatzago batean aztertu ahal izango litzake. Ahoraturiko makro- eta mikromantenugaien baliagarritasun eta

eskuragarritasuna hauen xurgapenaren araberakoa baita. Gainera, bestelako faktoreek; jarduera- eta ariketa fisikoak eta bestelako bizi-ohiturek ere, erlazioa dute zenbait odol parametroetan. Hala ere, odol analitikak egitea hori bideragarria izango ez balitz, erregistro-dietetikoa beste metodologia erabilerrazago baten bidez aurrera eraman ahalko litzateke. Honako erregistroetan, frogak irauten duen egun guztietan, parte-hartzaileen konpromisoa mantentzea ez da erraza izaten eta askotan, erregistroak modu erretrospektiboan egiten amaitzen dira. Bainan gaur egun, badira hori errezen duten mugikorreko aplikazioak. Ikerketa honetako parte-hartzaileak gazteak direla kontuan izanda, erregistro-dietetikoa aurrera eramateko metodologia berri hauek guztiz baliagarriak izango liratekez. Izan ere, gaur egun, populazio gazteetan erabiltzeko balioztaturik daude (Delisle Nyström eta lank., 2016; Rangan eta lank., 2016).

Guzti honetaz aparte, aipatzeko da, hemen aurkeztutakoa, ariketa eta gaitasun fisikoaren ikuspuntutik, azelerometria, frogak aerobikoa eta anaerobikoen bitartez, populazio gazte baten hezur-zurruntasunaren eta giharraren arteko erlazioa aztertu dituen lehenengo ikerketa dela. Azelerometroak erabili izanak, sendotasun eta sinesgarritasun gehiago ematen die honako ikerketa honen emaitzei. Izan ere, aurrelik egin diren ikerketetan, ariketa fisikoa galdeketen bitartez aztertua izan da. Frogak isozinetikoa, gaur egun, normalean kirolari populazioetan bakarrik erabiltzen den frogak da. Bainan ikerketa honetan erabiliz, gihar-indarrak hezurrean azaltzen duen lotura indarturik azaltzen da.

